

JAKIN

autonomi ESTATUTUA

J. M. Castells J. Intxausti
G. Jauregi

Autonomia Europan
Foruetatik Autonomiara
Estatutu eta Estatutu-gaiak, gaur
Errepublikara garaiko Estatutuak

Uztaila
Iraila

3

1977

Euskal Idazleak, gaur • Zientzi euskara • «Deia», Euskal Herriko lehen egunkaria • Loiolako Irrati berriua: aukera galdu bat? • CIEMEN: gutiengo etniko eta nazionalen alde

1977 - UZT.-IRAILA

JAKIN - 3

(BIGARREN ALDIA)

Zuzendaritza: Luis Antonio Bilbao Monasterio (kazetaria). Joan Mari Torrealdy

aurkibidea

	Zenbaki honetan	3
GURE ERITZIZ	Herria ez da negoziatzen	5
AUTONOMI ESTATUTUA	Jose M. Castells Artetxe Autonomia European	12
	Joseba Intxausti Foruetatik Autonomiara	25
	Joseba Intxausti Errepublika espainola eta Euskal Estatutua	55
	Gurutz Jauregi Gaurko Estatutu-gaien eta Estatutuen egoera ...	69
	Idazkaritza Bibliografia	77

ORAIN ETA HEMEN	M. Pagola	
	DEIA, Euskal Herriko lehen egunkaria	84
	J. Altzibar	
	Loiolako Irrati berritua: aukera galdu bat?	85
	P. Kortabarria	
	C.I.E.M.E.N. Gutiengo etniko eta nazionalen alde	86
GAIAK	Martzelino Aizpurua	
	Zientzi euskara	88
LIBURUAK	I. Sarasola	
	Euskal Idazleak, gaur	98
	Zer dugu Orixeren kontra. Zer dugu Orixeren alde	101
	Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak	103
GUTUNAK	Aurreko zenbakiaz bi ohar (Andolin Eguzkitza) ...	105
	Gutiengoen eskubidez beste Agiri bat (G. I.) ...	107

Idazkaritza eta administrazioa	Soldadu kalea / Cuartel, 2 Tolosa (Gipuzkoa)
Jabegoa	Anaïdia, Arantzazu
Dep. Leg.	S. S. 25/1977

ZENBAKI HONETAN

Hona *Jakin* aldizkari berrituaren hirugarren zenbakia.

Hirugarren honetan gaur gaurkoa den gai bizi bat hautatu dugu aztergai nagusi bezala: Autonomi Estatutua. Arazo honi inguruetik eta historiatik ere heldu nahi izan diogu.

Gure inguru geopolitikoari begiratu bat ematen dio J. M. Castells-ek, Europan autonomia zertan den eta zein irtenbide eman ohi zaion heurriz herri aztertuz. Ez da problema hila, ez eta gutiagorik ere.

Gure artean, autonomiak atze edo tradizioa ere badu: aspaldiko Foruetatik II. Errepublikako Estatutuetarainoko historia horren zenbait marka nagusi adierazten dizkigu Joseba Intxaustik. Hor agertzen denez, herriaren baitan txertaturiko aginte politikoaren eta gizalibertatea lortu nahiaren historia da euskaldunena.

Gurutz Jauregik, bere aldetik, gaurko Estatutu projektuen berri ematen du, hiru ezagunen aurkezpen labur bat eginaz. Bada beste projekturik ere, noski, baina ez publikoki ezagunak eta plazaratuak.

Azterketa hau burutzeko, euskal alderdi eta mugimendu zenbaiten jokabideak hurbildik ezagutzeko asmorik ere bage-nuen. Hauteskunde garaia zelako agian, ez dugu erantzunak oro eskuratzerik izan. Deus ere ez argitaratzea hobe dela pentsatu dugu.

Gaia osatzeko asmoz, bibliografia ematen dugu. Bestetan bezala, arazoa orokorki aztertzen duten zenbait textu, alde batetik, eta azken aldiko euskal aldizkarietan agertu diren idazlanak oro, bestetik.

Gai nagusi honen gidaritza, J. M. Castells eta J. Intxaustiren kontura joan da.

Gaiak sailean, gure hizkuntzaren inguruko arazo interesgarri bat birplanteatzen du Martzelino Aizpuruaren idazlanak: euskararen eta zientzi hizkuntzaren arteko harremanak. Nahiz eta garbizalekeriatik honaino bide luzea egina izan jadanik, etorkizunari buruz gauza bat edo beste argitzeko dagoke, eta, horretarako, puntuz puntu hartu behar da hauzia. Horretan saiatzen da M. Aizpuru.

Liburuak sailean, Ibon Sarasolak lanean dihardu, aldizkarira bidaltzen diren liburuen berri emanez. Lau libururi eskaintzen dio azterketa luzea oraingo honetan: «Euskal Idazleak, gaur» liburuaren euskal textuari, «Zer dugu Orixeren kontra» eta «Zer dugu Orixeren alde» liburuei, eta «Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak» nobelari. Euskal liburugintzaren gune kritikoa izan nahi luke sail honek.

Orain eta hemen sailak, eta berdin *Gutunak* sailak, halako bizitasun eta arintasun beharrezko bat ematen diote aldizkariari. Arinki trataturik egonik ere, zenbait problema interesgarri aipaturik gelditzen da hor, analisi sakonago baten zain, noski.

Herria ez da negoziatzen

Egoera politiko berri batetan abiatzen ari gara. Amets txar bat dirudi jasan berria dugun garaiak, edo, nahiago bada, historiaren parentesi bortxatu bat.

Parentesi bat, esan dugu, zeren eta isilarazi eta ezkutatu nahi izen diren problema denak zutik eta bizirik baitaude. Berrogei urte garrantzizko alferrik galdu ditugunaren sentimendua dugu; berrogei urtetako atzerapenarekin arazo berei oratu behar diegun susmoa.

Zalantzarik gabe, frankismoaren aurreko eta ondoko arazo bizienetako bat nazionalitateen Autonomiaren hauxe dugu. Eta Autonomia aipatzean, horretarako moldatu beharko ditugun Estatutuak datozkigu gogora. Autonomi Estatutuaren baliagarritasunaz sinesturik dirudite denek, alderdi abertzaleek eta bertan lanegiten duten gainerakoek. Batzu, gainera, hortxe gelditzen dira; ez doazke hortik aurrera. Guretzat, berriz, askatasunaren ibilbide luzean pauso posible bat besterik ez da Estatutua. Euskal Herriaren jatorrizko eskubidea ez da, inondik ere, goitik eman diezaguketen Autonomi Estatuturen batetan agortuko. Eskubide hark hori baino sabel emankorragoa du. Gure Herriaren kontzientziak, borondateak eta irudimenak muga lezakete bakarrik jatorrizko eskubide haren etorkizuna.

Europaren bideak

Eta geure eskubide librearen zerbitzuan, ez gaude umezurtz eta bakarrik. Gu diktadurapean egon garen bitar-

tean, Autonomiak eratzten Europako beste herri batzuk erabili dute beren irudimena. Jugoslavian, Alemania Federalean, Italian, Belgikan, Britainia Handian bereziki. Formula eta teknika ezberdinak erabili izan dira; baina kasu guztietan, Aginte Zentralak periferiari eskaini edo erregalatu dion askatasun zati bat izan da.

Bienbitartean, 1960aren inguruan hasi den herri tipiaren errebolta ezagutu dugu: nola baretu zitekeen herrialde horien irakina? Autonomi formulei heldu zaie horretarako, baina gaur, dagoeneko, erdizkakotzak jotzen da irtenbide hori. Europako Estatu egituren birmoldaketa dago hauzitan hor. Nazio debekatuek, ukatuek, eskubide osoz plazaratu nahi dute. Herrien Europa da etorkizuneko Europa. Eta, herrien Europa horretan, Euskal Herriak, dagokion bere lekua behar du, izango du. Euskal Herri osoak, Hegoaldeak eta Iparraldeak batera.

Autonomiaren baliagarritasuna eta pobrezia

Herrien Europa horretarako bidean, gure kondairaren bidegurutze honetan, Autonomi Estatutuaren bidea has dezakegula uste dugu. Gure baitango naziotasun hau sendotzeko probetxuzkoa izango dela deritzagu, premiazkoak ditugun kondizio minimoak baldin baditu behintzat. Estatutua, guretzat, Euskal Herriaren askatasun bidearen une bat da. Epe laburreko formulatzat hartzen dugu, bide posibilista baliagarri bezala. Ez da helburua, baina helbururakoa da.

Euskal Herriak Autonomiarako eskubide osoa eta areago du, noski. Estatu batentzako, konstituziogintzaren barnean, Autonomien Estatutuak tresna tekniko egokiak gerta litezke, eta, egokitasun horren izenean, Estatua irtenbide autonomiko horietaz moldatu. Obra konstituzional bat izango da hori, aipatutako Estatuarentzat; baina, beti ere, eskualdeei ematen zaien eskuerakutsia edo da hori.

Guk, Euskal Herriaren arazoa, problema tekniko ororen gaintik eta azpitik ikusten dugu. Euskal Herriaren arazoa eskubidezkoa da, lehenik. Euskal Herria, eta nahia-go bada euskal Herrialde bakoitza, soberani unitate bat da, eta horrelaxe jokatu du Historian zehar: Euskal He-

rriaren etengabeko konstituziogintza soberania eta burujabetasun horrexetatik bizi izan da. Gure jatorrizko soberaniaren jatorburua ez dugu inon jartzen, geure baitan ezik.

De facto autonomia emango digunak, bestelakorik pentsa dezake, noski; baina guk geuregan ikusiko dugu horretarako eskubidea. Halako Batzarrek, edota holako Batzordek, gauzak erebakiko dizkigunean ere, geure eskubideari dagokion zatiño bat itzuliko dugu. 150 urtetan ezarri zaizkigun aginteetara zuzentzean, gure betidaniko Forua izango dugu gogoan.

Foruak, herriaren soberanigailuak

Ihazko uztaillean, Foruen aldeko kanpaina hura zabaldu zenean, batek baino gehiagok galdetu zion bere buruari, ea zertan genbiltzan. Ez ote zen hura erromantizismoren baten bihozkeria zaharkitu bat? Beharbada, ez genekien gure tradiziozko serioenean txertatzen zela eske hura. Ez ote zen, azken finean, geure burujabetasun baten kontzientzia?

Gure herri honek, eskubidetan, ez du limosna eta eskupekoz emango zaizkion aitopenen beharrik; baina paretaren kontra, esku gora, bortxatu dutenez, prest dago arma bidez nagusitu zitzaizkionekin mintzatzeko. Bizi egin nahi du, eta ahal bada, baita askatasun osora iritsi ere. Horregatik, bere burujabetasuna ukatu gabe, pragmatiko izango da, oso pragmatiko; baina tratante lan hauetako arriskuetatik ahalik garbien irteteko, premiazkoa du bere buruaz kontzientzia historiko eta nazionala, gaurkoa, argi gordetzea.

Euskal Herriak ez du sekula bere soberanian amore eman. Lanak izango ditu inork bestelakorik frogatzen. Eta gure Konstituzio politikoei gorde zaien leialtasunaren testigutzat, bada hor pasarte ederrik franko. Bapatean gogorra daitezkeenetatik, aipa dezagun bat edo beste: Bizkaiko Foru Diputazioak (liberala bera) 1837an egin zuen protesta, Gipuzkoako azken Batzarre Nagusiarena 1876an, urte berean euskal hiru Diputazioen erresistentzia gogorra, 1917ko Diputazioen Mezua eta honen ondoren egindako Estatutu Aurreproiektuan ditugun oinharrizko eskeak,

1923ko Gipuzkoako Diputazioaren «Memoriak» dioena, «Eusko Ikaskuntza»ren Estatutugaian ikus dezakezuna. Guztietan gauza bera: hau edo hura eskatzean (Konzertu Ekonomikoak edo Autonomi Estatutuak, adibidez), aurretik Foruen itzulpena jartzen da (erdaraz hitz hauk erabiltzen dira: devolución, restitución, restablecimiento, eta ez: creación en Cortes, concesión, eta antzekoak). Foruak sortu bakarrik egin litezke, eta ez eman: gure Herriaren soberani Konstituzioak dira Foruak.

Burujabetasunaren kontzientzia

Deretxo Politikoaren alorrean, Foruak erabat maximalista dira; edozein agintari arrotzi hauxe esan diezaioke Euskal Herriak: «Jaunak! Konstituzio denen aurretik, lapurreta legeztatu denen atzetik, guk, nazio honetako senideok, geure buruak burujabe eta soberano aitortzen ditugu». Uste honen oinharritzat bi zutabeok eman izan ditugu aspaldidanik: a) Egia historiko bat: euskaldunon betidaniko jabetasuna edo kontzientzia, eta b) Egia nazionala: edozein nazio herritarri datxekon eskubidea. Geure Historia osoaren aurka defendatu behar bagenu ere, ozenki oihukatuko genuke gaurko euskaldunok geure funtsezko nazio eskubidea. Maila honetan, Euskadiren nortasuna —izanean eta ondoriobidezko soberanian— ez da tratugaia, ezin liteke elkarrizketa baten ondoko erabakien menpe laga. Kanpoko inori ez dagokio Konstituzio aldaketarik Euskal Herrian. 1837ko Konstituzio espainola ezarri nahi izan zitzaigunean Bizkaiko Diputazioak esan zuen bezala:

Examinado detenidamente este documento [Erregeren Dekretu bat, alegia], y no creyendo la Diputación que reside en las Cortes, ni en poder ninguno del Estado, la facultad de destruir ni de modificar las instituciones fundamentales de este País, sin el asentimiento de su Junta General legítimamente convocada (...) protesta solemnemente la injusticia y la violencia y quiso consignarlo así en esta acta, a fin de que de ninguna manera se tengan por menoscabados los derechos del Señorío de Vizcaya ni de sus habitantes, y puedan reclamar en tiempo oportuno el restablecimiento de sus leyes tutelares.

Tiempo oportuno horren zain geratuko gara euskaldunok oraindik puska batean, geure burujabetasuna gordeaz. Eta, bienbitartean, Autonomi Estatutua eskatuko dugu; baina euskal nazioa eta beronen soberania ez da negoziatuko. Hori hor dago, eta kito. Herria ez da negoziatzen.



j. m. castells artetxe
joseba intxausti
gurutz jauregi
idazkaritza

AUTONOMI ESTATUTUA

Autonomia European

Bigarren Mundu Gerratearen ondorioak. 50 urteetako bitartea. Herrialdetasun politikoaren berbizkundera.

Foruetatik Autonomiara

Euskal Foruak: Bizkaiko Jaureria. Euskal Foruak, Iraultza burgesaren barnean (1789-1875). 1876ko eztabaida eta Foruen deuseztapena. Kontzertu Ekonomikoen errejimenarekin (1878-1931).

Errepublik espainola eta Euskal Estatutua

Estatu berri baten bila. Estatutua, aukera berri bat. Estatutuaren aurreproiektua. Lizarrako Estatutugaia (1931). Madrilgo Gorteetara begira. Estatutuari Nafarroak ezetz? (1932). Hiru Probintzientzako Estatutugaia prestatzen. Madrilgo azken guduak.

Gaurko Estatutu-gaien eta Estatutuen egoera

Otxoa de Barandikaren projektua. Javier Villanueva eta Manu Escuderoren projektua. Kimu Berriren aurreproiektua.

Bibliografia

Euskal Foruak. XIX. mendea eta Foruen deuseztapena. Kontzertu Ekonomikoak eta Estatutuak. Espainolezko bibliografia Foruei buruz.

Autonomia European

Jose M. Castells Artetxe

I. Sarrera

Gutziz nabarmena da gaurregun espainol Estatuaren baitan diktadurari zegozkion printzipioen krisi orokorra. Jakina, aldez aurretik suma daitekeenez, gainegitura estatala bera ere, zentro-periferia arteko ordenamendua bera ere, ukitu duela esan daiteke aurreko egitura organikoaren berriztapenak. Eta —hala izango ahal da!— Estatu baitango guttiengo nazionalen ezagutzea ere ekarriko duela esan liteke orobat. Estatu baterakoi frankistaren krisiak ez digu, alde horretatik, gauza berririk agertzen; horren antzeko gune bat 1931ko udaberrian gertatu zen, Errestaurazioko Estatu baterakoi zurrunduaren birmoldaketa exijitu bait zen orduan ere ezinbestean, eragabetasun haren jatorrizko kausak guttiz aspaldidanikoak baldin baziren ere. Honi buruz txit aintzinerara jo beharko genuke: Olivares Konde-Dukearen erabaki biziki erdirakoiak beharko lirateke aipatu XVII. mendean, eta Felipe V.aren Molde Berriko Dekretuak; gutziz bereziki, ordea, euskaldunontzat, 1839ko urriko, 1841eko abuztuko eta 1876ko uztaileko gerla legeak beharko lirateke gogora erakarri: zentrotik

bazter litzatekeen edozeren ukatzaile eta besterik ezbezalako Estatu erdirakoiaren datu garbiak ditugu horik.

Halaz ere, badu bere alderdi berria egungo egoerak, aurreko sasoiaren aldean bederen: Europako ingurumunduak berak ere Estatu-Nazio handi horren krisi orokorra du agertzen gaurregun, kondairan lehen aldiz, iraultza burgesaren emaitza paradigmaticoa horren krisia halegia. Eta paralerroki, Europa osatzen duten Herri diferenteen kontzientzia bereziaren iratzartzea dakusagu gaurregun. Konstatazio horixe dago 1974eko azaroan argitara eman dokumentu batek, Europako Kontseilu neutroarenak. Hor dago gertakaria. Atsegineko ala ez, gure eremu geopolitikoa Europa hegoaldekoa dugu, eta koordenada kontinentalek errefleksuki eraginen diote gure eremu propioari.

Horra nondik Europako prozesuaren hildo nagusienak, gainez gain bederen, ematearen interesa, autonomia nola nazional hala herrialdearreki buruz. Era berean laburtuz eta arrazoi berean oinharrituz, eta sakontasunetan murgildu gabe, interesgarri deritzagu eskubide eta eskabide nazionalen ezagutzea hezurramitzeko erabili teknika juridikoak aztertzeari.

Aipatu prozesua, gaurregun bere faseetarik batetan eta, beraz, arrunt irekirik dagoelarik, hiru sasoi diferenterean adierazle diren hiru epigrafetan banatzen dut, azken eta erabateko sasoi baten zain.

II. Bigarren Mundu Gerratearen ondorioak

Erregimen faxisten galera zela eta, garaituriko herriak hondamendira eraman zituen sistema estatalaren beraren krisia gertatu zen.

Halaz guztiz, sakontasunik handienaz buruturiko Estatu ordenamendua, seguraski barneko gutiengo nazionalen heterogeneitateak berak ezarriarik, Jugoslaviako Herri Errepublikak Federatua burutu zena izan zen. Tito mariskalaren erregimena gauza izan zen herri desberdin multzoa batasun batetan entsanblatzeko, eta horretarako prozedura federalismoa izan zen, 1953ko urtarriaren 13ko Konstituzioan ageri denez («Jugoslaviako Herri Errepublikak Federatua, herri soberanu eta eskubide berdinduen Estatu sozialista demokratikoa da»). Deserdirapenezko formula zabal-zabalean, batipat herri komiteen, langile kontseiluen mesedetakoan, ordain edo kontrapartida bezala, herri batzarre edo asanblada federatuaren goiagintea erabaki zen, herri soberaniaren

eta ordezkari eta federakuntzaren goi erakundetzat berau ematen zelarik.

Aipatzekoa da halaber, testu konstituzionalaren aitzinsolasak berak irekitzen zuela bidea, federazio baitako herri errepublika diferenteei audeterminazio eskubidea ezagutzeko, Jugoslaviar Estatua hala nahi izanez gero uzteko eskubidea bera ere onhartuz.

Birmoldaketa bide beretik ikusten ditugu Estatu aleman eta italiarra. Mendebal Alemania, lau botereek okupatua, teknika juridikoen fungebiltatearen adierazgarri garbia dugu, zeren, ondoren agertzen denez, azkenean onhartu zen formula federatua, euskarritzat eskuindarren alderdia hartu zuten aliatuek ezarria izan bait zen. Paradoxikoki, arau konstituzional berria eztabaidatzean, bi talde gertatu ziren aurrez aurre zorrozkiro: batetik, gartsuki federalismoa defendatzen zuten kristaudemokratak, eta bestetik, sozialdemokrata liberal eta komunistak; okupatzaileek ezarritako dotrinari uko egiten zioten beren buruak abertzale bezala agertuz eta, hargatik, Estatu zentralizatu baten premia baiesten zuten; batipat, K.P.D.ren (komunistak) ordezkariak azaldu ziren bizikienik federalismoaren aurka, joera hura erreakzionario eta separatistatzat joz.

Debatearen ondore edo azkena, Bonn-eko Oinharritzko Legea (1949ko maiatzaren 23) atera zen, hots, gatazkako indarren akordioa, eta jarrera bateragaitzak (federalista amorekaitzak eta komunistak) zokoratzen zirelarik. Debatearen ondore hori grafikoki kontatu du *Sigman*-ek.

Aleman Estatu berriak, Hitleren burugabekeria baterakoiaren aurka banaketa ahalik handiena emateagatik federatutzat eman zenak, laster aurkitu zuen bere ibilbide propioa, eta entseguzko formula hura laster finkatu zen aski gogor. *Eisemann*-ek, haren aztertzaileak, honela idatzi du: «Bonn-eko konstitugileek, 1941eko beren aurrekoek utzirik zuten Estatu federatu klasikoari berrekin diote eta izpiritu federalista azaldu». Gerora zerranolako segida ukan zuen, hurrengo epigrafean ikusiko dugu.

Faxismoaren ondo-ondotik datorren italiar Errepublikak Alemaniakoaren antzeko ezaugarriak aurkezten ditu. Haatik, gertakari batek ukanen du eragina Estatu berriaren planteamenduan, izatez joera jakin bat har eraziz: Siziliako irla, italiar lurraldearekin hautsiz, bere gisara hasten da; arazoa hainbat larriagoa da, zeren italiar gobernu probisionalak ez bait du botere tresnarik irla bihurria menperatzeko; ondorea, siziliar ordezkariak eta italiar gobernuarenak negoziapenetan hastea izan zen, eta emaitza, Siziliaren estatutu herrialdekoa. Horrela, Siziliak, Aosta

Ibarrak bezalaxe, ondorengo Konstituzioa eztabaidatzen hasi aurretik, onharturiko textuak zituen bere alde, eta lurralde horiei konpetentzia guztiz zabalak ezagutzen zitzaizkien gai diferente-renetan, eremu autonomiko zabal-zabala eratuz.

Mortati-k, Estatu zentral eta italiar herrialdeen erlazioez izandako diskusioaren gune garrantzizkoenean izan ziren interesak azpimarratzen ditu. Azkenean akordiotu zen formula, eta bate-rakoi eta federatu arteko Estatu herrialdekoi hori, berorren ideologo nagusien *Ambrossini*-k azaldu zuenez, borroka parlamentario garratz baten ondorea izan zen. Berriro ere, kristau demokraziaren alderdia izanen da joera deserdirakoiaren alde at-rako dena, sozialista eta komunisten blokearen aurka; hauek, beren tradizio jakobinoari jarraikiz, Estatu baterakoia defendatuko bait dute; neofaxista eta monarkikoek mutur-muturreraino eramango duten baterakoikeria bera funtsean.

Bidezkoa da hemen aipatzea Tomas Ramon Fernandez-ek da-gien zehaztapena; halegia «italiar bizitza politikoan protagonista diren hiru alderdiak (D.C.I., P.C.I. eta P.S.I.), puntu honetan, alderdikoikerian eta egoismoan erori dira; hirurak izan dira oportunistak, guztiak bait dira mugitu besteren bozen arabera, hau da, herrialdetasuna onhartu ala ukatu, etsaiaren jarreraren arabera eginez». Itzulkortasun hori beherago aztertuko dugu. Hauxe nahi dugu oraingoz seinalatu: Italiako Errepublikaren Konstituzioa, 1947an, formalki bost herrialderen existentzia de-klaratzeko izan zela, arrazoi geografiko, etniko, linguistiko edo kulturalengatik deretxo bereziko estatutua zeukatenena halegia, gaineratiko italiar lurralde guztiak (14 herrialde) baterako esta-tutua zuen bitartean.

Halatan, itsuki zentralista ziren hainbat Estatuk aldatu egiten zuen zeinek bere barne egitura, eta deklarazio mailan bereden, bere baitan zituen herri diferenteren berezitasunak ezagutzen.

III. 50 urteetako bitartea

Halaz ere, herrialde interesen aldeko lehen bolada igaro zen, eta «impasse» batetan sartu zen, hartatik ateratzeko hamarraldi luzea beharko zelarik. Geldialdi horretara bultza zuten arrazoi-nak hainbat izan ziren. Nagusia, agian, «gerla hotz» izene-koaren lehertzea izan zen; kontinentea elkarri basaki kontrajarri-riko bi bloketan banatuz eta, ondorioz, Estatuen indartzea ekarri zuten horrek, yanki ala errusiar handitzarren atzetik jarritz. Har-

tara, Estatu haietan ziren guttiengoan arazoa hain bigarren mailara pasa zen, non ez bait zuen ukan sasoi horretan, esateko, indarrrik.

Bestalde, Europako komunitate mugimendua sortzen da, eta, egia esan, errealtate nazionalei mesedegarri baldin bazaie ere, boterean diren subjektu politikoak dira mugimendu guzti horren protagonista: Estatuak hategia. Pabe-ko irakaslearen Herrien Europaren orde, jeneralaren aberrien Europa indarberritzen eta potentziatzen da, alde aurretik erabakiriko Aberria-Estatua baliokidetasuna aurrera botaz. Europeismoa, fase horretan, merkatuen zabaldua hutsa da, hau da, pertsonen, ideien eta, batipat, kapitalen askatasuna. Estatu ez diren nazioen balizko eskubideei dagokienez, ez dira ukatzen noski, baina ez dira ere hauzitan jartzen.

Gauza bitxi bat, Europako erresuma batek adieraziko digu garbi zein diferentea den oposizio edo aginte-aurreko garai gogorretan deklarazioak, formalki oso handiak eta eskuzabalekoak, egitea, eta bestetik, botere politikoan instalatu ondoren egintza konkretuz buruturiko errealtate tristea: kasu hori italiar Errepublikan gertatzen da, eta horren egilerik nagusia Italiar Kristau Demokrazia da.

Ferrari-k sintetikoki deskribatu du alderdi horrek, legegintza hauteskundeetan arrakasta handia lortu ondoren, burutu zuen prozesu abstentzionista. Italiako Kristau Demokrazia ondo konaturatu zen zer-nolako ondorioak ekarriko zizkion herrialdekatzea martxan jartzeak: hategia, Italiako ipar eta erdialdeko hainbat herrialdetan bere kontrola galduko zuela; analisi horren aurrean, Espainiako II. Errepublika garaian ezkertiarrek ukan zuten jokatibide berari heltzen diote: alde eta molde guztiz jadanik estatutudun ziren herrialdeei autonomia ukatu.

Honetatik hasi ziren: 1949ko urtarrilaren 1ean egitekoak ziren Herrialde Kontseilu hauteskundeak «sine die» atzeratetik; ondoren, helburu bat berera zeramaten teknika piloari ekiten zaio: herrialde erreforma martxan jartzearen eragozpen zirenei, juridiko mailan baina eraginkorki. Hala ere ez da guztia jarrera atzerazle hutsa; Italiako Kristau Demokraziak eta Italiar Gobernuak, gainera, lege proiektu sail bat lantzen dute, herrialdeen autonomia politikoa murriztekotan, Konstituzioak zekarrenez; garbi agertzen dute horiek zein den gobernuaren gogoia: herrialdea, deszentralizazio politikodun ez, baina deszentralizazio administratibo hutsaren tresna bilakatu.

Eta hona posizio honen kontrajarrera: alderdi sozialista eta

komunistena. Konstitugintzan herrialde arazoari buruz hain dunda-mudako, are aurkako, agertu zirenok, orain oposiziotik, Italiar Kristau Demokraziaren aurka borrokatuz, hain gogorki zurrunduriko gaia plazara atera nahiz, herrialde idealaren defendatzaile suhar bilakatzen dira. Herrialdetasuna, hots, errejonalismoa, boterean den talde hegemonikoaren aurka oposizioko alderdien harma bihurtzen da. *Fernandez Rodriguez*-ek aurpegitzen dien akusazioa, hau da, oportunistoarena, ezin erabatekoagoa gertatzen da.

Eta garai horretako Frantziari dagokionez, hona. Bere inperio koloniala asaldatuz jaikitzen zaiolarik, sistematikoki biltzen da Frantzia guztia metropoli inperialaren inguruan; boterean edozcin alderdi delarik ere (eta, esan behar da, sarritan Langile Internazionalaren Frantses Saila, gero frantses alderdi sozialista bilakatuko dena, aurkitzen dela hor). Halaz guztiz, Frantzia ere bere baitan diren hainbat herrialderen nola-halako berbizkunde bat, teori mailan bederen, ikusi beharrean gertatzen da. Hor dira *Heraud*, *Lafont*, *Quermonne* autoreon obrak, ondorengo etengabeke uztaren ereintza gertatuko direnak.

Jakingarria da, urte horietan ematen dela sasoi horretako mitorik handienetako baten jaiotza: herrialdetasun ekonomikoarena. Autoreek garbi agertu izan dute aipatu izen horren pean datorren oinharritzko nahastea, zeren, herrialdetasun politikoak bezalaxe, zuzen-zuzeneko intenzionalitate politikoa bait darama bere baitan; guttiengo nazionalen mesedetan botere kreatiorik burutu nahi eza; izan ere, denborarekin, Estatuaren Administrazio zentrala dominatzen duten zentro erabakitzailearen aurka jaiki bait litezke halako herrialde botereak. Jarrera hori oinharrian zuritzeko bidea, honetan topatzen dute: Administrazioak efikazago iharduteko teknikazko exijentziak izatean; hondo-hondoan, alabaina, *Coscolluela*-k adierazi duenez, herrialde politiko autonomoaren ezarrera edo inplantazio nahi eza dago bistan hor.

Guztiz teknokratiko itxurako alternatiba hori arras argi dago Frantziaren kasuan; eta are garrantzizkoagoa da hori, zeren esperientzia hori egokitu edo hartu bait dute, eta inongo kanbiorik gabe, azken aldiotako espainol gobernuek. *Risco Salanova*-k dioenez, politika horren gidari izan diren kriterioen arabera herrialdea errealtate ekonomiko huts bailitzan hartzen da; halako moldez, non herrialdetasuna bide edo aukera honetarako ikusten bait da on: egintza ekonomiko jakin batzuei gaurkotu nahi dituen Administrazio periferiko baten laguntzarako; edota, agian, beste honetarako: Administrazio efikaz bat bilatzeko, entrepre-

sa pribatuen mesedetan, eta atxakiatzat antolaketa administrati-
boa herrialde desarroiloaren problemei egokitzea dela esanez.

Konkretuki, VI. Frantses Desarroilo Plana (1962-1965) izan zen ekintza herrialdekoi planifikatzaileaz eta lurraldearen orde-
namenduaz bereziki arduratu zena. Horretarako desarroilo plan orokorretan txertaturiko herrialde planen ondorengo joerari ha-
sera ematen zitzaion, espainol planifikazio ekonomikoak ere bere hartan bereganatzen zuelarik sistema hori. Labur esanik, herrial-
dekatze asmo baten aurrean gaude; horri buruz galdera bat egin behar litzateke, dotrinak jadanik expresatua: «zilegi da, frantses moldeko Herrialdetasun edo Errejonalismo hau ez ote den Na-
poleonen departamentalizazioaren bertsio gaurkotua galdetzea». Ez ote den, bestalde esanik, zentralizazio hertsia bat forma axala-
goren pean.

Gaineratiko Europa mugigaitz agertzen da aztertzen ari ga-
ren puntuaren aldetik; dena den, bada zenbait datu, barnean kabitu ezin diren guttiengoei buruz estatuaren aldetiko erreakzioa adierazten dutenak. Esaterako, mendebaleko aleman federalismo hantustea urratzen hasten da, Lander edo Lurraldeen gehiegi eritzizko askaduraren aurrean botere zentral federatuak hartzen duen jarreraren bidez. Ingalaterrak ere, bere inperio kolonial za-
balaren galera aurrera doan heinean, aurkezten zaion eskoziar, galestar edo irlandar erreibindikazio oro anatematizatzen du. Belgika ere istilu bat sortzen da bi komunitateen artean, irtenbide politikorik eman nahi ez zaiolarik.

IV. Herrialdetasun politikoaren berbikundea

1960ko dekadak, bere azken fasean bereziki, nazional eta herrialde beraien erreibindikapenen agerpena dakar, eta lehen mailako gai politiko bezala ekarri ere, eta bere indarrez Estatu beraik arazoa birplanteatzera behartzen dituelarik. Esan liteke, kontinentearen bi bloketako banaketa behin gaindituz gero, hainbat joeratako indar zentrifugok Europa zaharraren monolitismo estatala urratu egiten duela. Denbora berean, ideia nazionalistek ezkerretara jotzen dute, baita mutur-muturreraino ere, eta paralerroki, aintzina edozein planteamendu nazionalen aurka ziren ezker alderdiek joeraz aldatu egiten dute; *Duverger*-ek frantses alderdi komunistaz egiten duen konstatazioa jeneraliza liteke: alderdi horren kontzientziapen geroz handiagoak, ideia nazionalak eritzi publikoan sakon erroturik daudela halebria eta, agian, klase

argituetan baino areago klase herrikoietan, boterearen konkistarako ideia horik tresnatzat hartzera behartzen du.

Gaia mahaigaineratzen duen lehen Estatua Italia da. Zentro-erretxerko gobernuaren moldaketa dela bide, eta egitamu komunaren ondorioz, interesatuki zurrundurik zegoen herrialde mekanismoa martxan jartzen da berriro. 1970eko ekainaren 9an legegintz hauteskunde errejionalak ospatu ziren, ondoren zegoen herrialde kontseiluak moldatu zirelarik; herrialdeen estatutuak Errepublikaren 1971ko ekainaren 14eko legeak onhartu zituen; botere eta konpetentzien beharrezko eskualdatzea, Italiako Estatutik herrialde berrietara, Konstituzioaren 117. artikuluaurreikusia, zortzi legegintz dekretuz burutu zen 1971ko abenduaren 8an, eta, azkenik, herrialde bilbapenaren funtzionamendua martxan jartzea 1972ko apirilaren 1ean egin zen, egun horretan egin bait zen aipatu herrialdeei Konstituzioz ezagutzen zitzaizkien ahalmenen eskualdaketa Estatutik herrialdeetara.

Denbora berean, zutik zegoen herrialdetasuna ekonomikoaren berrikuspena egin zen; printzipioak eta forma beraik aldatu gabe izanik ere, aurrerapen bat gertatu zen berrikuspen hori frantses Estatua osatzen duten herrien onhartzearen alde. Entsegua *De Gaulle* jeneralak protagonizatu zuen, 1969an herrialde erreformaren projektu bat erreferendumara aurkezten zuelarik. Projektuaren asmoa, bere hitzen arabera, herrialde ekonomiak homogeneizatzea zen eta deszentralizazio ekonomikoaren politika sortzea. Hartarako, 22 herrialdeetaraino konstituzionaltzen ziren, herrialde historikoekin bateratasun handiak zituztelarik, eta lurralde entitate bezala itxurmoldatuz. Erreferendumaren emaitzak, jeneralaren abentura honi frantses herriak ezezkoa ematen ziolarik, hankaz gora bota zuen asmo hori.

1972ko uztailaren 5eko legea promulgatzearekin, maila juridiko berri bat taiutu da Frantziako herrialdeentzat, ikuspegi juridiko-administratibo aldetik bederen; araupide hori, orduan Lehendakari zen Pompidou-ren hitzaldi sonatu batetatik abiatuz, zenbait ukitu gorabehera, 1969ko projektuaren zimentarrian oinharritzen da, herrialdea eraikuntza publikotzat ematen delarik, esan nahi bait da, espainol deretxo positiboko erakunde automotzat ematen dela.

Ipar Euskadiren kasua gelditzen da, hau da, Pabe hiriburutzat izanik frantses departamenturik handienetako batetan (Pirinio Atlantikokoan) integraturik diren hiru euskal probintziarena. Euskal lurralde osoa batean bil dezan departamentu baten eskabidea, apurka apurka, gero eta indarragotuz doana da, eta lortzea espero duguna.

Bere barne egitura birmoldatzen ari den beste Lurralde bat Belgika dugu. Ez gara hasiko hemen, Estatu honek zer-nolako eboluzioa jo izan duen esaten, Estatu-nazio eta Estatu plurinazional —Gobernuko Lehendakariak, Leo *Tindemans*-ek, orain dela gutxiko liburu batetan dakarren terminologia erabiltzeko— bilakatu bitartean; hala ere, hau dugu nabarmen erazi nahi: erreforma hori bi alderdi nagusiotan agertu dela: autonomia kulturala eta herrialdekatze ekonomikoa. Bilbaketa prozesuaren ardatza, 1967tik 1974era, eremu bi horien inguruan burutu da, bortizki enfrentaturiko komunitate bien exigentziei erantzunez: flandestarra eta waloniarra. Xede horrekin, hiru herrialde eraiki ziren 1970ean: flandestarra, waloniarra eta bruselasdarra, eta 1974eko abuztuaren 1eko legez, Herrialde Kontseiluak sortu ziren herrialde bakoitzeko senadorez osatuak, eta herrialde komite ministerialak, egiteko hau dutelarik: herrialde politika landu eta koordinatu, eta politika horren gastuak estaltzeko presupuesto estatalean erabakirik diren kredito globalak nori eman proposatu.

Ageri denez, sistema mixtoa da; hala ere, bistan da, Belgika Estatu herrialdeko batetarantz doala.

Entseguetarik berriena, Eskozia eta Galesi buruz Ingalaterran gertatzen ari dena da. Berehalako iturria, Eskozia eta Galesi botere itzulketari buruzko Liburu Zuria delakoan dago, Parlamentuari 1975eko azaroaren 27an aurkeztuan. Eragiketa honen sustraiko arrazoia, eskoziar Alderdi Nazionalistak azken urteotan ukan duen hazkundean datza; halaber, Ipar Itsasoan aurkitu diren petrolio leku handien aurkikuntzan ere, eremu haik handikiro birbalioztatzeko izan bait da hori.

Ene eritziz, aipatu Liburu Zuria, ingeles lantaldeen bikaintasun tekniko tradizionalari dagokion bezalakoa da; halaz ere, haren edukina ikuspegi autonomista eta deszentralizazio politikotik aztertuz gero, guztiz dezepzionagarri gertatzen da; argi eta garbi gehiegizkoa da bai federalismoari buruzko ukoa, bai Erreinu Batuaren batasun politiko eta ekonomikoaren euspenaz behin eta berriz egiten den alusioa, bai ondasun ekonomiko autonomikoen (ingeles Parlamentuaren subentzio orokorra) banakuntz sistema propioa, bai botere zentralaren kontrol bortitz eta erreze-luak Eskozia eta Galesi buruz. Martxan den eragiketa honen moderapena adierazteko, datu pilo handia da guztiori.

Gauza sintomatikoa da botere itzulketari dagokion tituluketa: erakunde —nola administratibo hala politiko— sortzearen baliokidekotzat ematen da hori, beti ere Ingalaterrako Erregi-

naren soberania pean Parlamentuan. Hartarako, 138 partaidek osaturiko eskoziar batzarre bat antolatzen da; espresuki eskuldatzen diren gai sail batetan bakarrik (osasun, leku administrazio, sozial laguntza, hezketa, bizitzetxe, lurralde planifikazio eta ingurumari, zigor deretxo eta pribatu, hauzitegi, turismo eta estadistika) ukanen dute kompetentzia. Nominalki aipaturik ez datozen gaineratiko gaiak ingeles gobernuaren esku geratzen ziren.

Halaber, eskoziar exekutibo bat izendatzen da, Eskoziako arazoetarako Estatu idazkariak izendaturik, eta araupidezko ahalmen zabal bat ematen zaiolarik.

Guztiorrek badu bere kontrapartida: ingeles gobernuak eskuhartzeko ahalmen bortitzak gordetzen ditu beretzat; guztia, eskoziar erakundeek egiten ahal lituzketen gehiegikeriak kontroltzeko. Neurri horren zuriketa, hain zuzen ere, honela egiten da: «babes mekanismo bat da, eta berorrek ematen du eskualdaketa zabalago bat egiteko posibilitatea».

Sistema, aipatu Liburu Zurian itxurmoldaturik datorrenez, cragiketa hertsia eta kamutsa gertatzen delarik ere, joeraz bederen herrialde Estaturen aldekoa da, Eskozia eta Gales, biak, Erreinu Batuaren baitako lurralde autonomotzat emanez.

Epilogo

Europa, momentu honetan, egitura estatalak birmoldatu nahian ari da. Nazional errebindikapen eta planteamenduren agerpena egundoko gauza berria da; lehenik, bere hedapenaz, eta bigarrena, bere bizitasunaz. Ez da zokorik Europan errealtate konstituzionala koloka jartzen ez duenik, gainegitura estatala kritikoki analizatzen ez duenik. Europako Herrien berbizkundera dudagabeko gauza da eta ukaezinekoa. Joera honen norakoa garbi dago; halaz ere, artikulapen tekniko inkognita bat dugu orain; ez da horretan zer harriturik, debate ireki baten aurrean, burutu gabeko prezesu baten aurrean aurkitzen garen z gero.

Euskadik, europar textuinguru horretan txertaturik, bere lekua behar du askapen prozesu horren barnean. Horrela gerta dadin, gaur inoiz baino areago, geure esku dugu.

Euskaratzailea: **Dionisio Amundarain**

J. M. C. A.

LA AUTONOMIA EN EUROPA

Asistimos en los momentos presentes a una crisis generalizada de los principios de la dictadura en el Estado español, a la crisis del Estado unitario franquista. A nivel europeo es perceptible la crisis del Estado-Nación, producto paradigmático de la revolución burguesa.

Nuestro espacio geopolítico es el europeo del sur y las coordenadas continentales incidirán reflejamente sobre nuestro propio ámbito. De ahí el interés en descubrir las líneas maestras del proceso existente en Europa.

Pueden distinguirse tres épocas en las técnicas jurídicas para el reconocimiento de los derechos y exigencias nacionales.

1) Las consecuencias de la II guerra mundial. La derrota de los regímenes fascistas provoca una revisión del sistema estatal. Así sucede en Alemania del Oeste y en Italia. En el primero, las cuatro potencias imponen por mediación de los cristianodemócratas la fórmula del federalismo. La fórmula pactada final italiana es un Estado regional intermedio entre el unitario y el federal. Sin embargo, donde la ordenación de un territorio se realiza con mayor profundidad es en Yugoslavia con la constitución de un federalismo, con la posibilitación del derecho de autodeterminación de las diferentes repúblicas populares.

2) El intervalo de los años 50. Hay una paralización del movimiento regionalista. Quizás a causa de la «guerra fría» que fortalece los Estados y del movimiento comunitario europeo que se desarrolla a nivel de Estados. En Italia, la D.C.I., favorable en los inicios a la descentralización y regionalización, frena ahora la puesta en movimiento de la reforma regional. La izquierda trata de asumir el problema. En Francia, con la pérdida de las colonias, hay un cierre de filas en la metrópoli. El regionalismo económico que propone el gobierno, es una mera medida administrativa en la finalidad política de evitar el fortalecimiento de minorías nacionales. Los demás países permanecen estáticos, con reacciones duras contra el resurgir de las minorías nacionales que malviven en su interior. Así en Alemania del Oeste, Gran Bretaña, Bélgica.

3) El resurgimiento del regionalismo político. La década de los 60 significa la aparición de las reivindicaciones nacionales e incluso regionales. Las ideas nacionalistas se orientan a la izquierda. Lanza el movimiento, Italia (1970): se realizan las elecciones legislativas regionales, y se constituyen los consejos regionales. El 14 de junio de 1971 se aprueban los Estatutos regionales. En Francia, hay una revisión del regionalismo económico vigente. En 1969 aborta la pretensión del proyecto de reforma regional de De Gaulle. En 1972, a raíz del discurso de Pompidou, nace una nueva dimensión al menos desde la perspectiva jurídico-administrativa. En Bélgica, en el proceso evolutivo de 1967 a 1974, la reforma ha tomado dos direcciones: la autonomía cultural y la regionalización económica. En 1971 se establecen tres regiones: la flamenca, la valona y la bruselense. En 1974 se crean los Consejos regionales. Es en Gran Bretaña donde se ha realizado el más reciente ensayo, en especial respecto a Escocia y Gales. La fuente se halla en el Libro Blanco de la devolución de poderes a Escocia y Gales, presentado en el Parlamento inglés el 27 de noviembre de 1975. Desde una perspectiva autonomista y de descentralización política es decepcionante por su rechazo del federalismo como opción, por la reiterada alusión al mantenimiento de la unidad política y económica del Reino Unido, por los fuertes controles y prevenciones del poder central, etc. La

devolución de poderes se hace equivalente a la creación de instituciones bajo la soberanía de la Reina de Inglaterra en Parlamento.

Epílogo. Estamos inmersos en el proceso de reconversión de las estructuras estatales en Europa. Es incuestionable la amplitud e intensidad de las reivindicaciones y planteamientos nacionales y el renacimiento de los Pueblos de Europa. La dirección de la tendencia es clara; la articulación técnica sigue siendo una incógnita. Euskadi, inserto en el contexto europeo, debe encontrar un lugar, que depende de nosotros, en ese proceso de liberación.

L'AUTONOMIE EN EUROPE

Actuellement nous assistons à une crise généralisée des principes de la dictature dans l'Etat espagnol, à une crise de l'Etat unitaire franquiste. Au niveau européen, on perçoit la crise de l'Etat-Nation, produit exemplaire de la révolution bourgeoise.

Notre espace géopolitique est européen du sud et les coordonnées continentales ont une incidence réflexe sur notre propre domaine. D'où l'intérêt de la découverte des lignes maîtresses du processus existant en Europe.

On pourrait distinguer trois époques à propos des techniques juridiques pour la reconnaissance des droits et exigences nationales.

1. — **Les conséquences de la II guerre mondiale.** L'échec des régimes fascistes provoque une révision du système étatique. Ainsi, par exemple, en Allemagne de l'Ouest et en Italie. Dans le premier cas, les quatre puissances imposent par la médiation des chrétiens-démocrates la formule du fédéralisme. En Italie la formule définitive est celle d'un Etat régional qui se situe entre l'Etat unitaire et le fédéral. Cependant, là où l'aménagement du territoire est réalisé en plus grande profondeur c'est la Yougoslavie avec la constitution d'un fédéralisme, avec possibilité du droit d'autodétermination des différentes républiques populaires.

2. — **L'intervalle des années 50.** Il y a une stagnation du mouvement régionaliste. Peut-être à cause de la «guerre froide» qui fortifie les Etats et du mouvement communautaire européen qui se développe au niveau des Etats. En Italie, la D.C.I., favorable au départ à la décentralisation et à la régionalisation, freine maintenant la mise en pratique de la réforme régionale. La gauche essaie de prendre à son compte le problème. En France, à cause de la perte des colonies, il y a un resserrement dans la métropole. Le régionalisme économique proposé par le gouvernement n'est qu'une mesure administrative avec le but politique d'éviter le renforcement des minorités nationales. Les autres pays restent inmuables, avec des réactions dures contre la réapparition des minorités nationales que vivent mal à l'intérieur. Ainsi l'Allemagne de l'Ouest, la Grande Bretagne, la Belgique.

3. — **La réapparition du régionalisme politique.** La décade des années 60 signifie l'apparition des revendications nationales et même régionales. Les idées nationalistes s'orientent vers la gauche. L'Italie lance le mouvement: élections législatives régionales (1970) et constitution des conseils régionaux. En France il y a une révision du régionalisme économique en vigueur. En 1969 échoue la prétention gaulliste du projet de réforme régio-

nale. En 1972, à partir du discours de Pompidou, naît une nouvelle dimension au moins dans la perspective juridico-administrative. En Belgique, dans le processus évolutif de 1967 à 1974, la réforme a pris une double direction: l'autonomie culturelle et la régionalisation économique. En 1971 s'établissent trois régions: la flamande, la wallonne et la bruxelloise. En 1974 les Conseils régionaux se sont créés. Le dernier essai a été fait en Grande Bretagne, surtout en relation avec l'Ecosse et le Pays de Galles. La source se trouve dans le Livre Blanc de la dévolution des pouvoirs à l'Ecosse et au Pays de Galles, présenté au Parlement anglais le 27 novembre 1975. Dans une perspective autonomiste et de décentralisation politique, il est décevant à cause du rejet du fédéralisme comme option, à cause de l'allusion à plusieurs reprises du maintien de l'unité politique et économique du Royaume Uni, à cause des contrôles étroits et préventifs du pouvoir central, etc. La restitution des pouvoirs équivaut à la création d'institutions au Parlement sous la souveraineté de la Reine d'Angleterre.

Epilogue. Nous sommes plongés dans le processus de reconversion des structures étatiques en Europe. L'extension et l'intensité des revendications, projets nationaux et la renaissance des Peuples d'Europe sont incontestables. L'orientation de la tendance est claire; l'articulation technique continue d'être une inconnue. Euskadi, insérée dans le contexte européen, doit trouver sa place, qui dépend de nous, dans ce processus de libération.

Foruetatik Autonomiara

Joseba Intxausti

- A) Euskal Foruak: Bizkaiko Jaurerria
Jaurerriko eskualde eta izaki politikoak
Botere ejekutiboaren instituzioak
Botere legegilearen instituzioak
Justizi boterearen instituzioak
Ondasun-zaingoa eta Foruak
- B) Euskal Foruak, Iraultza burgesaren barnean (1789-1875)
Liberalismoaren konstituziogintza
Bergarako Gomenioa (1839)
Nafarroa, bere bidetik: «Lege Hitzartua» (1841)
Hiru Probintzien kontra erasoak (1841-1875)
- C) 1876ko eztabaida eta Foruen deuseztapena
Estatuaren batasun arazoa
Diktadura bat Legearen zerbitzurako
Gorteetako eztabaida: bentzutuari zigorra
Cánovas-en Konstituzioa, Euskal Herriarentzat
- D) Kontzertu Ekonomikoen errejimenarekin (1878-1931)
Zer ziren Kontzertu Ekonomikoak?
Euskal Diputazioen Mezua (1917)
Gipuzkoako Diputazioaren «Memoria» (1923)
- E) Azken ohar

Azken hilabeteetan izan da zer esanik franko Euskal Herriari emango ote zaion autonomia politikoaz. Eguneroko eta liburutan, norberaren lagunartean, eztabaida politikoetan. Edonon eta noiznahi. Baina kezka eta amets hau ez da gaur jaioa, eta, dirudienez, luzaro eta bero iraungo du oraindik.

Ez da ezerezetik sortu eskakizun hori. Euskal politikagintzari gagozkiola, badugu historia luze bat. Gorabehera handiak jasan dituen kondaira. Mendebaleko herrietan, askorentzat Erdi Aroa izan da beren nortasun politikoa instituzioetan hezur-mamitu duten garaia. Euskaldunontzat ere bai; gure gizartearentzat orduantxe asmatu genuen geuk sortutako estruktura politikorik osoena.

Hori ez da txantxetako gertaera arrunt bat. Euskal kreatibitate politikoak egina du bide luzea hor, eta etorkizunerako ere gogoan hartzekoa dela esango nuke nik. Gurea baita hori, hain zuzen. Instituzio horik gure eskola politikoa ere izan litezke (eta horretan eskola on baten premiarik falta ez zaigunez...). Gure berehalako gogoeta eta ekintza politikoak ez dute deus galduko tradizio politiko aberats horretatik zerbait ikasiz.

A) EUSKAL FORUAK: BIZKAIKO JAURERRIA

Euskal legeria publikoa, batez ere Foruetan ikus dezakegu. Foru horien gain jaso izan da herrialdeetako bizitza politikoa; eta ez da hori ausaz gertatu, hain zuzen ere, Lege horretantxe haragihartu baitzuen hauzuen, elizateen eta hirien zentzu politikoak. Baina herrialde bakoitzak bere gisara egin zuen hori, eta, horregatik, bakoitzak izan zuen bere Forua; baina, laster ikus daitekeenez, legeen azalpetik zihoan usariozko jatorburua batbera zen. Gizarte baten gainegitura ziren instituzio haik; baina, inter-ekintza batean, herriak egiten zituen instituzioak eta instituzioek egiten zuten herria.

Euskal Herrialde guztietako instituzio politikoak aurkezpen historiko oso bat komenigarri zen hemen; baina, idazlan honek, nahitaez, gorde behar dituen mugetara biltzeko, hautapen bat egin behar izan dugu. Zuzenean Bizkaiko Jaurerriaz dihardugu. Hala ere, orohar, Gipuzkoa eta Arabarako ere esenplu hurbila dela uste dugu Bizkaia ¹.

Jaurerriko eskualde eta izaki politikoak

Bigarren Erdi Aroan eta Aro Modernoan *Bizkaiko Jaurerria* bezala ezagutu dugun Herrialdeak bere jatorrizko eremua eta erdigunea aski hertsia zuan. IX-XII. mendeetako Bizkaia hartatik kanpo geratzen ziren Enkartazioak, Durangaldea, Orozko eta Orduina; baina ekialdetik, orduko Bizkaia hura Deba hibiraino zabaltzen zen, nonbait. Hastapen horrek ondorio politiko luzeak ekarriko zituen Bizkaia osoaren etorkizunean: Jaurerriko lurralde ezberdinak tradizio desberdinetatik eta eitura bereziekin zetozen eta guztien bateragintza ez zen bapatean eta tentsiorik gabe lortu.

VIII.etik XII.era doazen mendeetan moldatzen du Bizkaiko Jaurerriak bere lehen erdigunea. Gerora *Lurralde Irekia* deituko zaio horri. Lehendabizi, inondik ere, Arabako kontearen menpean egon zen Bizkaia hau; baina XI. mendean geroztik (Antso Handiarekin, 1000-1035), Bizkaiaren jatorrizko eremu hark bere konte propioa ukanen du. Hala ere, XI. mendean, egiteko dago oraindik historian Jaurerri bakarra osatuko duten lurralde guztien batasuna.

Azken Erdi Aroan sartzean, XIII. mendean alegia, lortuko da Bizkaiaren eremu-bateragintza. *Durangaldea* 1212an, *Balmaseda* 1214ean lehenengoz (eta 1399-1400ean azkenik), *Ordunia* 1284ean lehenengoz (eta 1480an azkenik) Lanestosa 1287an eta *Enkartazioak* mende osoan zehar Bizkaiko Jaurerriaren parte izatera pasako dira. Bateratze hau ez da guztientzat Jaurego bakar bat aitortzearekin amaituko. Elkarrenganatu diren Lurraldeak denentzako instituzio berriak sortuko dituzte, Lurralde bakoitzaren instituzioak ukatu gabe. Lurralde Irekiaren eta gainerako Lurralde eta Hirien arteko batasuna, guztien instituzio berri horietan finkatzen da. Jaurerri batberaren barnean, instituzioen batasuna eta berezitasunak kateaturik joango dira harrez gero.

Jaurerriko Lurraldeen eremua *Merinaldetan* banatzen zen. 1526ko Foru Berrian zazpi agertzen dira: Uribe, Busturia, Markina, Zornotza, Bedia, Arratia eta Durangaldea. Merinalde hauetako bizilagunak, *elizateetan* biltzen ziren beren udal-gobernutarako. Jaurerri osoak 93 elizate zituen (72 Lurralde Irekian, 10 errepublika Enkartazioetan, 11 Durangaldean), baina Jaurerriko Batzarre Nagusietarako Lurralde Irekiko 72ek bakarrik zuten boto bana; besteak Lurralde bezala agertzen ziren

Gernikara, ez elizate bezala. Uribeko Merinaldea zen handiena, 33 elizate zituela eta eremuz Barakaldotik Gorozikaraino eta kostaldetik Bediako Merinalderaino (Lemona) zabaltzen zela.

XII-XIV. mendeetan (1199-1376) *hiribilduak* sortuko dira, eginkizun ekonomiko berriei erantzunez. 21 Hiribildu zeuden Bizkaian, eta hiru taldetan sailkatuak (1630era arte hiru talde hauen buruak Bermeo, Bilbo eta Durango izan ziren). Industriaren, merkatalgoaren eta nabigazioaren aterpeak izango dira. Jaurerriko Lurraldean bihotzetan lekutu ziren hiribilduok, baina mundu aparteko bat ziren, legez eta ekonomiaz. Banderizoen gudate luzeak izan zuten muntarik franko, hiribilduak eraikitzen. Hiribildua, harresitua izaten zen eta murruekin inguruko eremu bat ere Hiri Agiriak eskaintako abantailen babespera biltzen zen. Lur-eremu hau aski zabala izan ohi zen, gehienetan.

Horrela, Jaurerri barneko gobernabidean, Lurralde Irekia eta Hiribilduak kontrajarriak geratzen dira ondoko gizaldiatarako. Hiribilduan ez dute Jaurerriaren jurisdikzio arrunteko agintariak boteririk, eta aginte estruktura berria sortzen da hirietarako (alkate, probestu, juratu, izkribau, etab.). Bienbitartean, elizateak kanpoan geratzen ziren, Lurralde Irekia osatuz, eta betidaniko beren agintariak zeuzkaten (Foru Alkateak, Presameruak, Merinuak, etab.).

Botere Ejekutiboaren instituzioak

Elizate, Hiribildu, Merinalde eta Jaurerriaren, Gobernailuak, Legegailuak eta Justizigailuak aurki ditzakegu, Jaurerriko bizilagunak gobernatu, berauei legeak eman eta justizia egiteko². Eskualde eta biztanleentzat gobernabide oso bat sortu zuen Foruak. Nolakoa zen, ordea, hori dena?

Montesquieu-k klasiko bihurtu zuen hiru Botereen bereizketa ez zen gaurreguneko errejimen demokratikoetan bezain argi agertzen; baina aginte horik ez ziren nahas-mahasian erabiltzen ere. Has gaitezen Botere ejekutiboarekin eta elizate apaletatik, udalen gobernutik alegia, Jaurerri osoraino iristeko.

Zimiterio edo kontzejupean bildutako herriari deitzen zitzaion *elizate* edo *elizaldea*. Parroki-eliza baten inguruan antolatutako instituzio politikoa zen, beraz. Nekazal udala izan ohi zen elizatea, eta dirudienez, autonomia politikorik zabalena

zuen komunitate herrek. Ezagunak ditugu udal-arautegi batzu (Abando, Zeanuri, etab.).

Elizateen gobernurako, Kontzeju Irekia edo udal-bilera zabal izaten zen lehenengo instituzio politikoa: bilera honen eskuetan zeuden hauzoaren ekonomi ardura (salerosketak, esportazioak, zergak, etab.), defentsa hartua (kapitaina izendatuz), bideak eta pielaren izendapena. *Piel errejidorea* zen, hain zuzen, elizatearen buruzagi ejekutiboa. Hauzo lagun guztiek aukeratzaren zuten. Elizateko bizitza gidatu ezezez, Gernikako Batzarreko ordezkariak ere berak eraman ohi zuten. Zerga partiketa, hauzogoaren berriematea, eta ordena publikoa honi gomendatzen zitzaizkion. Hola dio Artiñano-k:

Los *fieles* son los ejecutores de los acuerdos del Ayuntamiento general, los que manejan los fondos y bienes de la comunidad, defienden sus derechos, cuidan de la policía urbana y representan a la anteiglesia en todos los asuntos judiciales.

Hiribilduetan —hiri-udalak ziren hauk— Kontzeju Irekia eta Kontzeju Hertsi aurkitzen ditugu. Bilbon ezik, gainerako Hiribilduetan oso bizirik egon zen Kontzeju Irekia edo hauzo-lagun guztien batzarrea, baina gerora Kontzeju Hertsi edo Errejimenduak baztertu egin zuten sarritan, izan ere Kontzeju Hertsi hau izan ohi zen eguneko arazoetan eskua zuten gobernaileak. Kontzeju Hertsi edo Errejimendua urtero aukeratua zen, batzutan hauzogoaren beraren erabakiz, bestetan uztekoak ziren kargudunek berek aukeratuta. Udal Errejimenduaren betekizunak, Hiribilduko bizitza sozio-ekonomikotik zeuden, nahitaez: oso bestelakoa zen Hiribildu handi ala txikia izan, lur-lehorreko ala kostaldekoa izan. Batez ere ekonomi bizitza zuzentzen zuten esku handia Errejimenduko agintariek: artesautza, merkatalgoa, kontsumakien inguratzea, salneurrien finkapena, merkatuaren arauak, zerbitzu publikoak eta abar ziren haien ardurapean zeudenak.

Ezaguna denez, Merinalde izena zeramaten Jaurerriko eskualdeek. Erregeren ofiziale bati (*merino*) gomendatzen zitzaion eremu-barrutia zen Merinalde hori. Merinaldeari nortasun publikoa Jaunaren ofiziale haiek eta komunitatearen beraren instituzioek ematen zioten. Jaunaren ofizialeetatik zaharrena, hain zuzen, merinua da; baina Azken Erdi Aroan prestameruak hartu zitzaizkion egitekorik gehienak, gerora beroni ere Korrejido-

reak kendu zizkion bezala. Ofiziale hauek, justizi egitekoa zuten bereziki, eta horregatik ez dagokigu horietaz orain jardutea. Baina, inola ere, gogora ditzagun Merinaldeko Batzarreak: 1526ko Foruak aipatzen ditu, nahiz eta haien egitekoa eta bizi-tza oso murriztuak agertu ondoko mendeetan. Merinaldeak, instituzio bezala, ez zuen halako hazkuntza nabarmenik ukan; Jaurerriko, Lurraldeetako eta elizateetako artean ito egin zen, nonbait, Merinaldea.

Jaurerriko Luryaldeetako (Durangaldean, Enkartazioetan, etab.) Botere ejekutiboak gobernailu propioak izan zituen; baina, horretan sartu gabe, ekar ditzagun orain Jaurerri osoari zegozkion gobernailu orokorrak.

Errejimendu Orokorra eta Diputazioa dira gogoratzekoak. Gernikako Batzar-lagunen iradokizun eta erabakiak betearazteko sortzen dira biak. Errejimendu Orokorra 19/21 lagunek osatzen zuten, 1500az geroztik, eta lehenik lurralde Irekirako asmatutako instituzio hau, 1630ean Hiribilduena ere bilakatzen da, urte hartako Akordioari esker.

Errejimendu Orokorreko lagunak Jaurerri osoan sakabana-turik zeuden eta, behin eta berriz biltzeko lagun gehiegi izateaz aparte, beronen bilera bakoitzak gastu lar zekartzan bidaiari eta egonaldietan. Zer egin? Errejimendu Orokorrek berak *Errejimendu Berezi* bat moldatu zuen, bere baitandik hautaturiko batzurrekin, eta beti ere, espreski bakoitzean gomendatzen zitzaizkionak istudiatu eta erabakitzeko. Beraz, Errejimendu Bereziak, Orokorren delegazioz lanegiten zuen beti. Ez zuen berezko autonomiarik.

1630eko Akordioaren ondoren, Errejimendu Orokorra indarberritua gertatzen da instituzio bezala, eta, eboluzio bizkor baten ondoren, eta haren beso luzagarri bezala, Lurralde Irekiko Errejimendu Berezitik *Diputazio Orokorra* jaioko da, zazpi deputaturekin. Errejimendu Berezia, Diputazio Orokor bihurtzen da, beraz (1645), eta 1696tik aurrera ez da Errejimendua-ren delegaziotik egongo eta berezko autonomia bat aitortuko zaio. Bakoitzak berean, elkarrengandik autonomia izango dute Errejimendu Orokorrek eta Diputazioak. Biek batera osatuko dute *Jaurerriko Gobernu Orokorra* (Gobierno Universal del Señorío).

Lanik franko eman zuen Jaurerriko gobernailuen batasunik lortzeak; izan ere, Lurralde Irekiaren eta Hiribilduen arteko

berdintasuna oso gatazka handien ondoren iritsi baitzen, 1630-eko Akordioarekin. Horregatik esan du Monreal-ek Akordio hontaz:

Constituye el acta de nacimiento de la estructura institucional de Vizcaya en la etapa que denominamos de madurez foral (136 or.).

Ordutik Foruen deuseztapenera arte, Jaurerriak bere Gobernu Ejekutibo Orokorra ongi instituzioztatua ukanen du; baina, pentsa daitekeenez, hori ere ez zen ezerezetik sortu, lehenagotik ere Jaurerri osoari batasuna ematen zioten beste bi oin-harrietatik baizik, Jaurgotik eta Batzarre Nagusietatik alegia.

Botere legegilearen instituzioak

Euskal Foruek deretxozko Estatu bat sortu zuten, herriaren aginteari, zegokion lekua emanez; agintearen botereari, mugak eta egitekoak ezarriz, eta giza eskubideak babestuz. Foru haiek beren iturburuak izan zituzten. Lehen-lehenik, beren jatorburua herriaren *usuario eta ohituretan* dute. Ohituren fruitua izatea da euskal Foruen berezitasunik nabarmenena. Ez dute Forua legegizonek egin; ez da lege arrotzen kopia bat ere. Bizkaiko Foruaren iturri hurbila, Lurralde Irekiko ohituretan aurkitzen da.

Lurralde Irekiko elizateen ondoan, ostera, Hiribilduak sortu ziren, eta berauei Erregek ematen zizkien Hiri Agiria eta Arautegia ere gogoan hartzekoak dira. Lurralde Ireki eta Hiribilduen sistemekin bikoiztasun juridiko bat agertu zen Jaureriaren barnean. Ez da harritzekoa, ba, jatorrizko Lurralde Irekiak haien bizkaitartasuna ukatu edo gutietsi nahi izatea, luzaro iraungo duen gatazka haietan. Hiribilduetako Udal Ordenamenduen azpitik, ordea, udal horietan ere Lurralde Irekiko (hau da, Hiribilduen partaidetasunik gabe sortutako) Forua nagusituko da Bizkaian. Honegatik idatzi du A. Zelaiak: *el Fuero no es (sólo) el Código de la Tierra Llana sino la ley básica de Vizcaya entera*.

Usarioz eta guztien ezagupidez onhartuak ziren ohiturak *idatzi* egingo dira Erdi Aroaren azkenetan. Bizkaiko Foruak bi idatzaldi izan zituen: 1452ko redakzioari *Foru Zaharra* deitzen zaio; 1526koari, berriz, *Foru Berria*. Lehenengo idazkuntza egitean ere, aspaldidanik zetozen ohiturak finkatu nahi dira, ez deretxo berri bat sortu. 1526ko Forua, Zaharraren berriztapena baizik ez da.

Herritar iturburu horretantxe ditu oinharriak Foruaren orijinaltasunak. Hala ere, lege-gizonek geroz eta esku handiagoa ukanen dute instituzioen eboluziobidean, batez ere Forua idatzia izan zenetik. Bestalde, egon zen bestelako eraginik ere: kanpoko sistema juridikoen kutsaturik, nahitaezkoa zen haiek sistema arrotzen izpirituz ere baliatzea, eta halaxe gertatu zen. Honetan ere, ez gara mundu erabat aparteak euskaldunok. Dena dela, ukaezinak dira euskal Foruen orijinaltasuna eta herritartasuna.

En consecuencia, el Fuero de Vizcaya es un cuerpo de leyes autóctonas que se han formado a lo largo del tiempo sobre el solar vizcaíno. Esto no significa que falte toda comunicación con otros sistemas jurídicos, pues no cabe pensar que el contacto con celtas, iberos, romanos, godos y árabes no haya dejado ninguna huella, pero en cualquier caso, el Fuero tiene originalidad bastante para constituir un sistema jurídico peculiar (A. Zelaia-k, *Fuero Nuevo de Vizcaya* liburuaaren sarreran, IX. or.).

Honela, ba, beti ere herriaren ohiturak oinharritzat direla, Foru idatzia gogoan hartuta eta Foruaren instituzioen gain bideratzen da Jaurerriaren bizitza politikoa. Aipa ditzagun hemen *Gernikako Batzarre legegileak*.

Jaurerriko Gobernuaren eskeari erantzunez, Korrejidoreak egiten zuen Batzarreko deia. Maizenik, bat edo bi bilera egiten zituen urtero Batzarreak, eta inoiz hiruzpalau ere bai. XVII. mendean, 1609-1700 urteetan eduki ziren 152 bileratik sei bakarrik luzatu ziren hiru egun baino arago.

Nor etorri ohi zen Gernikako Batzarreetara? Diputazioarekin (Korrejidore, Diputatu, Sindiko eta Idazkariak) batera elizateetako ordezkariak ziren, batez ere, batzarkideak. Lurralde Irekiko ordezkariak osatzen zuten Batzarrearen gehiengoak: 101 bozetatik, 72 elizateei zegozkien. Hiri eta Hiribilduek 21 boz bakarrik zituzten, eta Durangaldeak eta Enkartazioek, Lurralde bezala bidaltzen zituzten beren bozemaileak (Durangaldeak bi eta Enkartazioek sei lagun, onenean ere).

Nahiko hala-holakoa zen talde hauen arteko boz partiketa. Lurralde Irekiko biztanletza, 1712an, %46koa bakarrik zen Jaurerrian; baina Gernikako ordezkarietatik %72a zuen Lurralde horrek. Hiriarena eta Hiribilduena %31 zen bizilagunetan, baina %21 ordezkari bakarrik zituzten Batzarrean. Enkartazioek okerrago oraindik: %9 bizilagunentzat bozetan %1 bakarrik. Hori dena halaxe izanda ere, gogoan hartzekoa da, Enkartazioek,

esate baterako, autonomi modu bat ere bazutela Jaurerri osoaren barnean, eta aipatzen ditugun ezberdintasunok bazuten autonomia harekin zerikusirik franko.

Batzarreetara Jaurerriak bidaltzen zuen ordezkaritzak, garrantzizko egitekoak zituen Bizkaia osoarentzat. Gaurreguneko Parlamentuen antzera, Gobernu kontrola zuen Batzarreak. Kontrolbide hau, Jaunari eskatzen zaion *juramenduan* agertzen da, esate baterako. Foruaren lehenengo legeak hola dio:

que el tal Señor, que asi nuevamente sucede en el dicho Señorío, seyendo de edad de los catorce años, haya de venir en persona á Vizcaya, é hacerles sus juramentos, é prometimientos, y confirmarles sus Privilegios, é usos, y costumbres, franquezas, y libertades, é Fueros, é tierras, y mercedes que de él tienen, siendo requerido para ello por los dichos Vizcaynos, y si despues, que assi fuere requerido, en un año cumplido no viniere a hacer la dicha confirmación, é juramentos; que los dichos Vizcaynos, assi de la tierra llana de Vizcaya, como de sus Villas, é Encartaciones, é Durangueses no le respondan, ni acudan al dicho Señor, ni á su Thesorero, ni Recaudador, con los Derechos é Censos que tiene sobre las Villas, é otras Caserías Censuales de Vizcaya. Y que si su Señoría embiare Mandamiento, ó Provisiones en el entretanto, sean obedecidas, y no cumplidas (I. Tit., I Legea).

Ikus daitekeenez, Bizkaiko Foruarentzat Jaunaren eskubide guztien aurretik eta gainerik Lurraldean usuario eta konstituzioa dago. Hori da oinarririk funtsezkoena. Baina, argi dago, Jaunaldi berriaren hastapeneko juramendu hau ez zen aski Jaunak Legeari zor zion leialtasuna segurtatzeko. Non aurki, ba, segurtapen hau? *Foru Pasabidea* izan zen horretarako asaturiko instituzio juridikoa:

Otrosí, dixeron: Que havian por Fuero, é Ley, é Franqueza, é Libertad, que cualquiera carta ó Provisión Real, que el dicho Señor de Vizcaya diere, ó mandare dar, a proveer, que sea, ó ser pueda, contra las Leyes, é Fueros de Vizcaya, directe ó indirecte, que sea obedecida, y no cumplida (*Foru Berria*, I. Tit., XI. Legea).

Honela ba, Gernikako Batzarreak (eta berauen bidez Bizkai-komunitate politikoa) Tribunale Konstituzional bihurtzen dira, kontraforu guztien kontra. Herriak, gizarteak, Jaunaren jaun izan nahi du, Foru tradizioaren barruan. Ez ote dago, ordea, Jaunari dagokion aginte barrutirik?

Justizi Boterearen Instituzioak

Menpekoen artean eta legearen aurrean epaile izatea, Jaunari zegokion egitekoa zen. Jauna ez zen Gaztelan zegoen atzeritar bat: Erregek bere eskuetan zeukan *Jaurgoa* Bizkaiko bertako instituzio politikoa zen, eta gainerako instituzio guztiak bezain bizkaitarra. Eta instituzio horrek betekizun jakinak eta propioak ezartzen zizkion Jaunari, Foruaren arabera. Betebehar horietako nagusiena, hauxe zen: bizkaitarren arteko bidegabekeriak legearen bidez epaitzea. Juzgamena, Erregeri zegokion bereziki.

Horretarako, Erregek bere ordezkariak zituen Jaurerrian; justizi gizonak Erregeren izentapena zuten. Begira zer dioen Foru Berriak:

Primeramente, dixeron: Que havian de Fuero, uso, é costumbre, que todas las justicias del dicho Condado, y Señorío de Vizcaya, y Encartaciones, y Durangueses, sean, é hayan de ser de sus Altezas, como de Rey, y Señor de Vizcaya. Y que assi Corregidor, y Veedor, é Prestamero, y Alcaldes, é Merinos, se han de poner por su Alteza, é non por otro alguno (*Foru Berria*, II. Tit., I. Legea).

Bizkaian bertan zegoen goi-tribunalea, Korrejidorearena zen. Behe-tribunaleetatik hara jotzen zen. Korrejidore bakarraren esku-barrutikoa zen Bizkaia osoa bere Lurralde ezberdin guztiekin. Horregatik, justiziazkoaz aparte, beste betekizun historiko bat ere ukan zuen Korrejidoreak Bizkaiko kondairan zehar: Lurralde Irekiaren eta Hiribilduen arteko gatazkan, denen arteko batasun lokarria gertatu zen Korrejimendua. Ordezkariak izentatzen zituen Korrejidoreak (*tenientes*) Bizkaiko Lurraldeetarako eta ezagunak ditugu esku-barruti ttipiago hauetako haren ofizialeak ere: merinuak, prestameruak, alkateak eta abar.

Botereen bereizkuntza, demokrazia modernoaren printzipio bat da; baina, bereizkuntza hori gorabehera, aginteak beti du, orain ere, batasun bat. Foruak hiru botere klasikoak (hots: botere ejekutibo, legegile eta justizikileen) bereizkuntza modu bat bazuen, gizona agintarismotik gordetzeko; baina aginte publikoak ez zuen bere barneko batasunik galdu.

Ondasun-zaingoa eta Foruak

Foru sistemak bere oinharri ekonomikoak zituen, noski. Alde batetik gizarte-ekonomiaren beraren ispilu bat zen, eta, bes-

tetik, Hazienda publiko bat zegoen denari olioa ematen. Ondasun publikoek beren sistema berezia zuten herrialde, lurralde eta udaletan, eta diru-sarbide eta gastuak aratuak zeuden. Hazienda Publikoaren sistema hau oso jakingarria da, noski, sistema politiko haren berezitasun, burujabetasun eta euskal jatorrasuna ezagutzeko; baina lantxo honetan ezin gaitetzke xehetasun guztietan luza. Hala ere, euskal irakurleak badu lan egoki bat. Foru garaietako Ondasun-zaingo publikoaren sistemaz laburki eta argi jabetzeko. Ikus bedi Eizagirre-Garaikoaren «Euskal Lege Zaharra» (in ELKAR-LANEAN, *Lur eta gizon, Euskal Herria*, Jakin, Arantzazu. 115-145 or.).

B) EUSKAL FORUAK, IRAULTZA BURGESAREN BARNEAN (1789-1876)

Aro Garaikidearekin batera, Iraultza politiko bat gertatzen da Europan. Gizarte egitura berriek, politik estrukturak berriak eskatzen dute. Eta euskal Foruak ere berrikuntza horren tartean aurkitzen dira. Frantziako Iraultzaren barnean, lehenengo, 1789ko abuztuaren 4ean, eta Liberalismoarekin, geroago, euskal instituzio publikoak desagerrarazi egiten dira. Horrela ezartzen da Euskal Herrian burgesiaren iraultza.

Liberalismoaren konstituziogintza

Espainiako Estatu berriak bere burua birmoldatu egin nahi du. Konstituzioak errosario luzean datoz, bata bestea ukatuz nahiz gaintuz. Tarteka-marteka gerrateak ere bai. 1808tik 1876-ra arte hamar Konstituzio ezagutzen ditugu eta etengabeko konstituziogintza honekin batera, euskal Foruen bidezotasuna eta egokitasuna ekartzen dira eztabaidara.

1808ko Erreboltaren biharamunean bertantxe ukan zuen Liberalismoak bere pentsamendua agertzeko aukerarik, 1809an egindako inkesta bati erantzunez. Hantxe agertzen da eskualdeetako Konstituzio berezien arazoa. Inkesta publiko hark jasotzen dituen eritzien arabera, eskualdeetako Foruek ez dute tokirik nazio batu baten barnean. Nazioaren batasunak, hala diote, Konstituzio bakarra eskatzen du; aparteko txoko berezirik jasaten ez duen batasuna da hori. Badajoz-ko erantzule batek —apeza bera— honela idazten zuen:

La Nación española, aunque es un vasto reino [*oraindik Amerika galtzeko zegoen*] compuesto de diversas provincias, puede y debe gobernarse por unas leyes generales y uniformes, porque en todas ellas se habla una misma lengua, se profesa una misma religión y tiene una sola cabeza suprema.

Pentsamendu hau ez zen erantzule harena bakarrik. Konstituzionalismo liberalaren oinharrietan dagoen printzipio orokor bat da. Teorian, Cádiz-ko deputatuek laudorioz beteko dituzte euskal Foruak, gizabanakoaren eskubideentzat garairen batean aterperik seguruenak izan zirelako; baina egintzetara pasatzean, zera esaten da, eskubide haiek Konstituzio berrietan aurkituko dutela babesik irmoena. Liberalismo osoa, orohar, ezker-eskuintetan, unitarismoaren alde agertuko zaigu, salbuespentxoren bat edo beste kenduta, eta hain zuzen, zenbait euskal deputatu liberal salbuzko horietakoa izango da.

Gerrate bakoitza, Konstituzio berri batekin konpondu nahi zen. 1812ko Konstituzioa gerratean emana zen. 1834eko «Estatuto Real»a ere karlistadaren ekaitzarekin jaioa dugu. Estatutu horren deiarri erantzunez (Estatu osorako Konstituzioa izan behar zuen hark), euskaldunak bortxaturik daude Madrileratu deputatuak bidaltzera, hain zuzen Euskal Herriari legeak handixe eman nahi zaizkiolako. Jadanik, ez dute balio betidaniko euskal hauteskunde legeek, Madrilen eraturakoez baizik. Espainiako Gorte berriek —Liberalismoaren iraultza instituzionalarekin jaiotakoez, alegia— Euskal Herriraino luzatu nahi dute beren esku-barrutia. Gernikako nahiz Arriagako Batzarreak ez dira haintzakotzat hartzen. Aldaketa hauen paradoxa ezaguna gogora dezagun: herriaren burugaintasunaren eta soberaniaren izenean, Foru instituzioen herri iturburu jatorra ukatu eta itoerazi egiten da. Geure herriaren soberanitatik genuen Forua, inongo herriaren (eta burgesiaren?) asmoetara bortxatuko da. Kanpoan erabakitako Konstituzioak eman-kendu eta trukaturako zaizkio Euskal Herriari: beraz, soberaniaren oinharria ez da *euskal herriari* ezarriko, burgesiak beretzat asmatu duen Estatu batetan baizik.

Bergarako Gomenioa (1839)

Testuinguru honetan egiten da lehenengo karlistada eta Bergarako Gomenioa. Ez da, ba, batere harritzekoa hain kontrako gertatu baldin bazitzaigun. Han, ez Maroto-k zuen Euskal Herriaren ordezkartzarik, eta ez Espartero-k zeukan Madrileko

Gobernuaren izenean deus agintzeko eskumenik. Hitzta ederki asko jan zezaketen haiek. Bergarako hitzarmenak ez zuen oinharri juridikorik. Eta areago ere: arras aldrebesa zen, testuari eman zitzaion idazkera prometaturiko guztiak zidorretan galarazteko adinekoa.

Espartero recomendará con interés al Gobierno el cumplimiento de su oferta de comprometerse formalmente a proponer a las Cortes la concesión o modificación de los Fueros.

Espartero-ren «gomendioak» zein indar zuen Madrilen? Eta eskainitakoa betetzekotan, nola beteko zen? Eta Gorteei proposatzearekin baterik ote zen hitzarmena? Eta areago eta okerrago: nondik nora eta zein oinharri juridikorekin aitortzen zitzairen Gorte haiei Foruak *eman*, Foruak *alda*, Foruak *ken* eta horrelakoak egiteko *eskubidea*? Hementxe zegoen arazo eta eztabaida osoaren gakoa. Korapilo hau erabakitzat ematen zuen Bergarako Gomenioak.

Primeran etorri zen hitzarmen hura Madrilen, bere testu nahasi eta guzti. 1839ko urriaren lehenengo egunetan eman zitzaion hasera eztabaidari, eta hilaren 25ean eman zen lege berria:

Se confirman los Fueros de las Provincias Vascongadas y de Navarra, *sin perjuicio de la unidad Constitucional de la Monarquía.*

Bergarako akordioaren bide beretik zihoan Legea ere: oso positiboki hitzegin bai, baina ez zen ametitzen Euskal Herriak, legeak eta Konstituzioa ere egiteko zeukan eskubide historiko eta nazionala. Euskal Herriaren tradizio politikoan erabat arrotzak ziren Madrilgo Gorteak, eta, hala ere, haietxei aitortzen zitzairen Euskal Herriarentzat Konstituzioa asmatzeko ahalmena. Eta Konstituzio horrek berak ere, bere edukinean, kanpoko Dretxo Publiko batek kondizionatua jaio beharko zuen: *sin perjuicio de la unidad constitucional de la Monarquía.* De facto, orduan galdu zuen Euskal Herriak Foruen oinharri juridiko beregaina. Foru instituzicak ez ziren bapatean galdu, baina horretarako bidea harturik zegoen.

Nafarroa bere aldetik: «Lege Hitzartua» (1841)

Gerra amaitzean, euskal Herrialdeak bi ikuspidetatik ekin ziezaioketen beren lanari. Egin zitekeen, gerra galdutzat eta

konstituzionalismo espainola nahitaezkoztat eman, eta, beraz, itxurazko egokiera historiko hari amore eman. Edota, gauzak batez ere euskal tradizioetik begiratuta eta Foruei eutsiz, Espainiako unitarismoaren aurka burukatu. Bi hautabide hauen artean erdibitu zen Euskal Herria, 1841ean.

Nafarroa, bereziki, Gobernuarekin elkarrizketan ahalegindu zen, galdu behar zena galtzeko prest eta gorde zitekeenari eusteko gertu. Nafarroa esatean, kasu honetan, Madrildik ezarritako Diputazio Probintziala esan nahi da, eta ez nafar Konstituzioaren arabera Erreinuko Gortean aukeratutako Diputazio Iraunkorra. Gobernuak Nafarroa Probintziazat hartzen du, eta Diputazio Probintzial berriak (liberala, noski) eraman zuen elkarrizketa Madrilekin. Beste hiru Probintziengandik aparte egin beharko zela lan, uste izan zuen nafar Batzordeak (*no será indispensable separarnos de las Provincias Vascongadas, cuyas exigencias tienen contra sí la opinión pública de todos los matices políticos*. Alderdi politiko liberalak, alegia).

Bizpahiru arrazoin eman litezke Nafarroaren jokabide bereiztu honen zergatia agertzeko: a) Batzordeko nafar ordezkariak liberalak ziren, eta osorik onhartzen zuten liberalen konstituzionalismoa; b) Nafarroan, beste euskal Herrialdeetan baino argiago nabari zen instituzio zaharkituak garai berrietara egokitu beharra (esate baterako, Nafarroako Gorteak estamentuzkoak ziren Foru garaian, beste Herrialdeetakoak ez bezala); c) 1839ko azaroaren 16ko Dekretuak, instituzio politikoen egoera aidean utzi zuen dena: instituzio horien etorkizuna ongi marraztu beharra biziki sentitu zuten nafarrek, batez ere 1841eko egokieran liberal progresistak hain indartsu azaltzen zirela.

1841eko Lege Hitzartuarekin, Nafarroari finantzetara mugatzen zaio autonomia, eta bere instituzio politiko ia guztiak kendu egiten zaizkio: Gorteak, Foru Diputazio Iraunkorra, Goi Kontseilua, Tribunaleak, Udalen beregaintasuna, etab.

Desaparecían sus Cortes con la facultad de legislar y dar leyes a los navarros, el Consejo Superior que, con audiencia de la Diputación, poseía el derecho de sobrecarta, sin cuyo requisito las cédulas y demás documentos reales no tenían fuerza de ley. Asimismo señala Hermilio de Olóriz, cómo desaparecía la autoridad de nuestros Tribunales de Justicia, el libre organismo municipal que permitía a cada Ayuntamiento gobernarse con independencia, y en vez de la Diputación Permanente que daba cuenta de todos sus actos a las Cortes, se creaba una Diputación Provincial sin autoridad superior, a quien rendir cuentas, y al jefe político (gobernador) de la Provincia se le consideraba Presidente nato de

dicha Corporación y que en determinados casos podía estorbar los acuerdos de la Diputación (C. Clavería).

Zer pentsa 1841eko Lege hontaz? Historigileak bitan banatu dira: 1) liberalek eta «navarristek» (nolabait esateko) positiboki epaitu dute: haiek, batez ere Espainiaren batasun politikoari begira; hauek, garaiko irtenbide posibilista bakarra bezala ikusi dutelako, eta gerorako onuragarritzat juzgatu. 2) nafar foruzaleek, ostera, gogor eraso diote Lege honi, Foruen deuseztatzaile eta Nafarroaren nortasun politikoaren desagiletzat salatuz (Kanpion-ek, adibidez).

Lege honen oinharri eta iturburuetan badago beste arazo bat ere: Nafarroako Gorteetatik jaio gabeko Diputazio hark nola eman zezakeen ontzat Erreinuaren Konstituzio aldakuntza bat. Ba ote zuen horretarako eskubiderik? Juridikoki baliozkoa izan ahal zen Lege hura, nafar historiaren arabera?

La Ley de 1841, foralmente hablando, fue nula porque no intervinieron en ella las Cortes de Navarra con el Rey, únicos poderes a quienes competía variar, añadir o aclarar el precioso tesoro de sus instituciones fundamentales (Kanpion).

Desde el punto de vista legal, la Diputación provincial no tenía atribuciones para ello [*elaborar y aceptar aquella Ley*]. Su autoridad a la luz del derecho navarro, era nula y sin valor jurídico, pues carecía de auténtica representatividad, puesto que no había sido designada por las Cortes navarras de acuerdo con sus leyes privativas (C. Clavería).

Azkenean, hemen ere, bi soberanien arteko sokatira bat aurkitzen dugu: nor du aginte beregainik Nafarroan, Madrilgo Gobernuak ala nafar herri burujabeak? Egiazki, Nafarroaz Euskal Herritik urrun hartzen dira erabakiak. Bienbitartean, non dabil-tza beste euskal Herrialdeak?

Hiru Probintzien kontra erasoak (1841-1875)

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Nafarroan bezalaxe, Konstituzio arazo bat dauka Estatuak. 1839ko Legearen neurritara erakarri behar dira Foruak. Birmoldaketa horretarako lehen pausoa 1841eko urtarrilean ematen da, hiru Probintziei «Foru Pasa-bidea»ren eskubidea kenduz. Zer zioten hemengoek?

Ongi ulertu zen herrialde hauetan Gobernuaren erabaki honen garrantzia eta errebolta armatuari ekin zitzaion, Espartero-

-ren kontra. Hala neurtu du Eizagirre-Garaikoak ukapen haren munta eta esanahia:

Inútil insistir que con ello, probablemente la violación fundamental al Régimen foral que afectara a su base, todo el sistema quedaba al aire. Era una de las consecuencias inexorables de la defección de Vergara.

Nafarroa Gobernuarekin elkarrizketan eta besteok armatan: horra egoera. Erdibituagorik ezin. Matxinada armatuak pot egin du, eta Esparterori aukera ederra egokitzen zaio Foruak osorik deuseztatzeko (1841-urria-29). Egia da, 1844ean, moderatuek oraindik berremango dituzte Foruak kasik osorik, nahiz eta aduanak dagoeneko behinbetirako Bidasoan laga; baina, alde nahiz kontra berdintsu da, Madrilgo gorabehera politikoek beren kabuz egin eta desegingo dute hemengo Konstituzioa. Erro-errotik aldatua da oinharri konstituzionala.

Ongi ikusi zen hori 1848an: Narváez-en Gobernuak, udala (Foru sistemaren oinharri instituzionala berau) bere eskuetara eramango du, Herrialdeetako agintarien gainetik. Bestalde, 1857an Irakaskuntza Publikoari eraso zitzaion, maisuen izentapena udalen eskuetatik Gobernuarenetara pasaiaz. Arazo kultural larri honetaz, hona zer zioten hiru Probintzietako deputatu orokorrek:

Los profesores de la enseñanza primaria deben necesariamente en este país poner el idioma vascongado (...). Suprimida del círculo de la Administración foral la preciosa atribución de nombrar los maestros, las escuelas se verán ocupadas por profesores extraños a la lengua y a las costumbres especiales de este país...

1844az gerostik gelditzen dentxoak, eta oraindik zerbait baino gehiago da, badu areriorik. 1864ean piztuko da bigarren eztabaida handia Espainiako Gortectan. Afrikako gerratea da atxakia, eta erantzukizun berriak ezarri nahi zaizkio Euskal Herriari, bai soldadutan, bai diru-zergatan. Une honetan berezitasun berri bat dauka eztabaidak: Llorentek euskal Historiari emandako interpretapena politikaraino iristen dela, alegia. Egaña eta Barroeta mintzatzen dira euskal tradizioaren alde. Sánchez Silva ez dator batere ados.

1868ko Iraultzaren ondoren, karlismoaren itxaropen garai berri bat hasten da. Lehenengo, duda-muda batzuren ondotik, hauteskundeetan parte hartuko du eta 1871ko martxoan 51 deputatu lortuko. 1872ko bozketak, ostera, Gobernutik oso maneiatuak gertatuko dira, eta karlismoak armetara joko du: horra

bigarren karlistada (1872-1876). Oiñati, Lizarra eta Tolosatik aginduz, Karlos VII.ak euskal Estatu karlista sortuko zuen, gerratean bertan ere, Estatua Foru sistema oso eta berritu batez eratuz. 1874eko udan, Abartzuzako garaipenaren ondoren, badi-rudi irekia dagoela Madrilako bidea; baina, han hain zuzen, aldatua zen ordurako egoera politikoa. Alfonso XII.a eta Cánovas ziren mintzalagun berriak. Gobernuaren proposamena, ultimatum bat zen: Foruak gordetzeko, hilabeteren buruan laga behar ziren armak. Karlismoak ezezkoarekin erantzun zuen.

C) 1876ko EZTABAIDA ETA FORUEN DEUSEZTAPENA

Foru sistema desagiteko egokiera aparta sortzen da 1876an: galdu du Euskal Herriak gerra, eta XIX. mende osoan lortu ez duen konstituziotasun iraunkor eta batu bat bilatzen du Espainiarentzat Cánovas del Castillo-k. Hain zuzen, 1876ko Konstituzio honexek izan zuen bizitzarik luzeena, mende erdi bat edo (1876-1931). Desegokierarik makurrena da hau Euskal Herriarentzat.

Estatuaren batasun arazoa

Jover-ek honela laburtu du «Restauración canovista» deituaren politikagintza:

La obra política de la Restauración puede ser agrupada en torno a cuatro capítulos fundamentales: *tendencia a la centralización y uniformación jurídica y administrativa, continuando la trayectoria del liberalismo español y muy especialmente de la época moderada*; política financiera, encaminada a hacer frente a una coyuntura general depresiva y a la difícil situación de la balanza de pagos; política económica y social, muy matizada por los intereses de grupo que mueven a los grandes partidos gubernamentales; finalmente, política colonial a seguir, especialmente en Cuba.

Pasarte horretako arazoak, beraz, Monarkia berrituaren oinharritzkoak ditugu. Espreski azpimarkatu dut gure arazoari dago-kiona. Monarkiaren konstituziogintza, eta beronen barruan Euskal Herriarena, arazo nagusia da Espainiako Estatuarentzat. Hilabete haietan, asmoz, egintzaz eta garaiz ere Espainiako Konstituzioa eta euskal Foruen deuseztapena erabat lotuta agertzen zaizkigu, geroago 1931n eta 1977an bezalaxe. 1876ko ekainaren

30ean berresten da Konstituzio berria, eta ekain-uztailetan eztabaidatzen da, hain zuzen ere, Gorteetan (Senatuan lehendabizi, Kongresuan berehala) euskal Foruekikoa. Asko dira, Sánchez Silva-k bezala, Espainiaren alde *combatiendo los privilegios de las Provincias Vascongadas* lanegin nahi dutenak, zuzentasunik gabeko gerra bat egin baitiote Espainiari.

Ordura arte, Gobernu moderatu eta progresista guztiek ahopean esaten zutena, Cánovas-ek egun argitan esango du:

Los últimos acontecimientos, que por sí solos bastaran, como los de 1833 a 1839, para plantear en toda su integridad la cuestión hoy sometida a la resolución definitiva de las Cortes, no permiten consentir por más tiempo que en este punto importante se halle rota y desconocida la unidad constitucional.

Konstituzio batasunaren eztabaida (federalki konpon zitekeena, baina federalki ulertu nahi ez dena), oso argi dago gobernuarentzat: elkarrizketa eta kontsulta guztien aurretik onhurtua dagoen batasun moldea ez da hitzarmen eta bi parte interesatuen arteko elkarrizketa baten menpe jarriko, Madrilgo Konstituzioaren eranetara baizik.

Diktadura bat Legearen zerbitzurako?

Legegaiak eskatzen zituen erraztasunak eta gehiago emango zaizkio Gobernuari 1876-uztaila-21eko Legean. Diskretasunezko botere bereziak (=diktadura?) ukanen ditu Cánovas-ek. Hone-tan, bat datoz Madrilgo denak, Gobernu bera, Gorte Batzordea eta Gorteak. Ongi dakite zein zaila gerta daitekeen euskal tradizio osoaren kontra doan errejimen berri bat Euskal Herriari ezartzea. Batzordearen diktamenak gogoan izango du hori:

Es indispensable preocuparse de las dificultades que surgen inevitablemente al imponer deberes y decretar servicios que hasta ahora no se han prestado. Es preciso reconocer que no cabe esperar que, desde el primer momento, funcione con regularidad, por ejemplo, un sistema tributario determinado, en provincias que no le han tenido ni practicado. A vencer esas dificultades, a superar esos obstáculos, que no ya en provincias hermanas, sino en territorios enemigos y conquistados, se han tenido siempre en cuenta, van encaminadas las autorizaciones [concedidas al Gobierno que ha de ejecutar la Ley].

Agintariak bazuten, beraz, euskal Historiaren kontra ari zirenen kontzientziarik, Legea betetzeko, aldakuntzaren handia

neurtuz, diktadur botere bat eskaintzen baitzizaion Gobernuari Euskal Herrirako.

Ez zebilen hain oker Gobernu, botere bereziak eskatu zituenean, ezagutzen baitzuen hiru Probintzietako Diputazioek Lege hartaz zuten eritzia: (*Las libertades forales se ven radicalmente amenazadas, después de atravesar incólumes todas las tiranías de la Edad Media y Moderna*, idatzi zuten haiek.

Euskal Herriko agintariak «erresistentzia zibila»ren politikaz baliatu ziren, Batzarre Nagusietatik hasi eta herrixka ttipieneko alkatearengaino. Lege hura ez betearaztea erabaki zuten hiru Diputazioek. Cánovas konstituziozaleak makilla erantzun zuen: kasik hiru urtetan (34 hilabete) Konstituzio Garantiarik gabe eduki zuten Euskal Herria (*estado de excepción*).

Gorteetako eztabaida: bantzutuari zigorra

Ekainaren 19an eman zitzaion hasera Senatuko eztabaidari. Egun osoa bete zuen, Batzordearena gogortuz, Sánchez Silva-k egindako proposamenaren azterketak. Azkenik, aparteko proposamen hau baztertua izan zen: 111 boz kontra, 24 alde. Biharamunean, Batzordeak aurkezten zuen legegaiari heldu zitzaion. Agirre Miramón izan zen Legegaiaren kontra luzeenik mintzatu zena. Ekainaren 22an bukatu zen Senatuko lana: 96 lagunek onhartu zuten legegaia, 9 boto izan ziren bakarrik kontrakoak. Prest zegoen, beraz, Deputatuen Ganbararako.

Egiatzko gudua Deputatuen artean piztuko zen. Uztailaren zazpirako Batzordearen Diktamena emanik da Deputatuentzat. Hurrengo egunean aurkezten du González Fiori-k bere aparteko eritzia. Uztailaren 12an ekiten zaio eztabaidari; 13an, 14ean, 17an, 18an eta 19an burutzen da. Legegaia, Legetzat gonfirmatua geratzen da hilaren 21ean.

Legegaiaren sarrerak bestelakorik baldin bazioen ere, bai Legegaian bertan (4. eta 5. art.) eta Legean ere (5. art.), bi trataera ezberdin agertzen dira garaile eta bantzutuentzat. Hori da egia. Karlistek daude, alde batetik; liberalak, bestetik. Monarkia berriari bere bezeria (*clientela*) segurtatu nahi zaio euskal gizartean:

1. — Azken gerratean Monarkia berreraikiaren alde jokatu direnak, edo beraien semeak, ez dira soldaduzkara bortxatuak izango; baina, salbuespen hori gorabehera, Probintziek osorik bete beharko dute, dagokien kupoa.

2. — Karlisten aurka ahalegindu diren herri eta hiriei hamar urtetako zergak barka lekizkieke; berdinki, karlistek pertsegitu dituztenei, edota beren etxeetatik ihes egin behar izan duten liberelei.

Euskal Foruen alde eta kontra XIX. mendeak ezagutu zuen eztabaidarik bortitzena, ausartena, jantziena izan zen ordukoa. Bidezkoa da hemen hizlarien izen batzu gogoratzea. Kontrakoen artean, gogorrena, egoskorrena, eta argiena ere, Sánchez Silva izan zen. Gizon honek eskarmentu on bat eskatzen zuen Euskal Herriarentzat:

Cuando el rigor de las armas, cuando el fragor de las batallas, cuando la fuerza ha decidido la cuestión, siquiera sea la más injusta y temeraria, la ley más justa en manos del vencido se reduce de hecho a la ley que prepondera, que es la del vencedor.

Zigor lege bat eman behar zitzaion, beraz, armatan altxatako Euskal Herriari. Egia da, Cánovas-ek, Gobernuaren Lehendakari bezala, bazuela zuhurtzia politiko hoberik eta ongi zekiela mehatzu hutsez eta zigorrez Estatu batu bat bakerako egiterik ez zegoenik; baina ikus dezagun Lehendakariak euskal arazoa nola ikusten zuen.

Cánovas-en Konstituzioa, Euskal Herriarentzat

Gobernuak epaituta zeukan arazoaren *funtsa*. Horretan ez zuen eztabaidarik nahi, horretarako ez zuen kontseilurik eskatzen. Oinharri-oinharrian erabakita zegoena egintzetara eramateko eskatzen zien Gobernuak Probintziei beren eritzia. Azkenean, politika baten *prozedura praktikorako* bakarrik eskatzen zuen aholkua. Euskal ordezkariet (ordezkari kontseilu emaleak bidaltzea eskatu baitzuen Gobernuak) ez zitzaien galdetzen Euskal Herriak Espainiako Konstituziopara sartu nahi zuen ala ez. Alde aurretik erabakitako Konstituzioa, *errazkiago nola* onhar zezakeen galdetzen itzaien bakarrik. Konstituzioak batbera eta berdina izan behar zuen Monarkia osoarentzat, Gobernuaren ustez; baina, hain zuzen, arazo hauxe zen euskal ordezkariarentzat eztabaidagairik funtsezko eta premiazkoena. Begira, ordea, puntu nagusi eta ardatz hau nola ikusten zuen Cánovas-ek:

Llamé yo a los comisionados de las Provincias Vascongadas (...), para que dejando aparte como inconcuso el principio de la unidad constitucional de la Monarquía, pudiera oírlos el Gobierno respecto de todas

las cuestiones de método, de forma, de aplicación de los principios de la unidad constitucional (...). Que la Ley les había dado el derecho de ser oídos [1839ko Legeak, alegia] para eso, para facilitar la aplicación de los principios constitucionales. (...). Que yo he planteado siempre la cuestión, diciendo que (...) por unidad constitucional comprendía la aplicación de los deberes constitucionales para todos los españoles. (...). Yo no les exigí ninguna declaración doctrinal [hau da, 1839ko «sin perjuicio de la unidad constitucional de la Monarquía» hura euskal ordezkariak ere Gobernuak bezala ulertzea] ni me importaba exigirles; tomé la posición que me correspondía como jefe del Gobierno, y les dije: el Gobierno entiende esto en este sentido, y les llama a ustedes para oírles y facilitar la aplicación de estos principios.

Ikus daitekeenez, azkenean, Cánovas eta Sánchez Silva —Lehendakariak berak aitortu zuen bezala— elkartengandik ongi hurbil zeuden oinharizko eritzi eta helburu politikoetan. Euskaldunen betekizun politikoak Konstituzioaren arabera ulertu behar ziren (*todo español está obligado a defender la Patria con las armas cuando sea llamado por la ley y a contribuir en proporción a sus haberes para los gastos del Estado*, 6. art.). Hori zen tesi ofiziala (eta garaiko konotazio zentralista guztiak tartean zirela, gainera); euskaldunena, berriz, Azilona eta Belaskok laburtu zuten. Belaskok hola esan zion Cánovas-i:

La cláusula *salva la unidad constitucional* del art. 1.º de la ley de 39 se interpreta por los vascongados suponiendo que uno era el monarca, una la Representación nacional y uno el territorio (...), toda vez que aun (...) el general Espartero [que] introdujo grandes perturbaciones en el régimen foral procurando realizar la unidad, nunca pretendió aplicar el art. 6.º de la Constitución.

D) KONTZERTU EKONOMIKOEN ERREJIMENAREKIN (1878-1931)

1876aren uztaileko Legearen gain jasotzen da Kontzertu Ekonomikoen sistema. Zer zen, ba, Kontzertuen antolapen hau?

Zer ziren Kontzertu ekonomikoak?

Hasera-haseratik esan behar da, sarritan bestelakorik uste izan bada ere, Kontzertuena Konstituzio arazo bat zela. Bere jatorburua Foruetan zuen sistema honek, eta ez pribilejiozko antolamenduren batetan. Foru gobernabideko erakunde ekonomi-

koaren luzapen eta azken aztarna bat dira Kontzertuak. Akordio baten bidez mugatzen eta zer-nolakotzen dira kasu bakoitzean, baina Konstituzio arazo bati ematen zaion irtenbide konstituzionala dira.

Vienen, así, a ser los Concierptos el último resto del régimen foral. De ahí que sean para las Provincias Vascas y para el Estado unas leyes de orden constitucional (F. Zavala).

Euskal Herriko ekonomia publikoari libertate barruti bat sortzen diote Kontzertuek; zerga batzuetarako *kupoa* izentatzen zen (*zerga kontzertatuak* ziren hauk). Sei zerga kontzertatu zituen 1878ko Kontzertuak, eta hamabitaraino iritsi ziren 1926koan. Horietaz kanpo, zerga kontzertatugabeak geratzen ziren: hauk Estatuak berak jasotzen zituen.

Gaurregun Estatuaren eskuetan dauden zerbitzu publiko asko Diputazioen eskuetan zeuden orduan: gaixotetxeak, portuak, kaminuak, urrutizkinak, osasun zerbitzuak, eskolak, mikeleteak, udaletako artxibari, idazkari, bibliotekari, etab. Batez beste, gainerako probintziek hainbat eta gehiago ordaintzen zuten euskaldunek zerbitzu publikoetarako (Udal, Diputazio eta Estatu zentralarentzat). Diputazioen esku-ahalmenik oinharritzkoen eta nagusiena inpostuak, kontribuzioa eta arielak sortu eta arautzea zen. Gipuzkoako Diputazioak honela azaltzen zuen bere zeregin publikoa, 1923ean:

Dos son los sectores en que la actuación de las Diputaciones se manifiestan: *el uno*, meramente administrativo, integrado por el conjunto de atribuciones que ostentan, para el régimen de la Provincia en sí y como superiores jerárquicos de los Ayuntamientos, *el otro*, tributario contributivo, que puede también desdoblarse en dos, ya que en él actúan las Diputaciones a modo de sustituto fiduciario del Estado y responsable del cupo por determinadas contribuciones, y administran además su propia Hacienda provincial, con independencia económica y administrativa, propulsando las fuentes de riqueza del País y obteniendo de ellas lo que estiman prudente para el levantamiento de sus cargos y necesidades (*Memoria*, 1923).

Bost Kontzertu Ekonomiko izenpetu ziren, 1871tik 1931raino, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Herrialdeen eta Estatuaren artean (1878, 1887, 1894, 1906 eta 1925etako urteetan), eta fruiturik onenak eman zituen politikan eta ekonomiaren hazkuntzan. Zabala-k zera idatzi du:

Los Concierptos económicos son un ejemplo a lo que se puede llegar

partiendo de un simple arreglo en la forma de pagar un impuesto (el de inmuebles, cultivo y ganadería) debido al *uso* que de las pequeñas facultades que dimanaban de ese arreglo han sabido hacer las Diputaciones hasta convertirlo en todo un sistema descentralizador.

Foruak deuseztaturik zeudela, Kontzertuekin egoera berri bat sortzen da Euskal Herriarentzat. Egoera horrek ez du lehenagoko historia ahantzi edo ukatu nahi. Egoera faktiko bat bezala hartzen da, ez gehiago; euskal agintariak, behin eta berriz, jatorrizko Foruen eskakizuna goraki altxatzen dute. Utzezinezko eskubide jatorra da garaiei egokiturik eskatzen den Lege Zaharra. Horregatik ez da batere harritzekoa 1917az geroztik bizi izan zen euskal urduritasuna.

Euskal Diputazioen Mezua (1917)

1917-19 urteetan euskal eskakizunak oso bero agertzen zaizkigu. Hainbat bilera, manifestazio, agiri eta hauteskudetan Foruak itzultzea eskatzen da. Ordukoa da euskal Diputazioen «Mezu» sonatua. 1917ko uztailaren 16an izenpetu zen agiri hau, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioek Gasteizen egindako Batzarrean. Batzarre hau herriaren mugimendu zabal batek bulztatu eta babestua izan zen. Zalantza batzuren ondoren, Nafarroak ez zuen ofizialki parte hartu, bere partaidetasuna gerorako utziz.

Karmelo Etxegarai-k eta Pérez-Arregi deputatuak idatzi zuten Mezua. Foruak beren osotasunean eta garai berrietara egokituak itzultzea eskatzen da:

Las Diputaciones (...) estiman que más que nunca es indispensable ampliarla [*Kontzertuen autonomia, alegia*] hoy que se ha producido una tan vigorosa expansión de todas las modalidades en que se manifiesta la laboriosidad de la raza, y que este íntimo anhelo por el País, sólo puede encontrar satisfacción cumplida en el restablecimiento de sus instituciones seculares, de sus Fueros, feliz expresión y fórmula de la libertad del País Vasco, que nunca constituyó obstáculo para el progreso de los intereses generales.

Foruak osorik itzultzea zaila gertatuko zela jakinki, Mezuak bigarren hautabide bat eskaintzen zion Madrilgo Gobernuari: Euskal Herriaren gobernurako ahalik autonomiarik handiena. Autonomia horretan sartu beharko lirateke irakaskuntza osoa, lekuan lekuko administrazioa, ongilegoa, zerbitzu hidraulikoak, lur-

gintza, mehagintza, industria, merkatalgoa. Gobernu zentralaren eskuetan geratuko zirenak, berriz, hauk ziren: Gerra, Herbestea-
rekiko Harremanak, Aduanak, Txanpongintza, Postak eta abar. Salbuespen hauetatik kanpo, gainerako denak Foru gobernailuen eskuetan egon beharko zuket.

Hiru puntutan laburtzen zuen Gipuzkoako Diputazioaren Lehendakariak Mezuaren mamia:

1. Afirmación de que siempre queden a salvo los derechos históricos e imprescriptibles del País a cuya reivindicación no se renuncia.
2. El inmediato restablecimiento de los organismos forales.
3. Recabar una mayor autonomía que permita el desenvolvimiento del País con estos organismos.

Eskakizun hauk Madrilan eraman aurretik, euskal deputatu-
ohiei, udalei, senatore eta diputatuei beren eritzia eskatuko zi-
tzaie. Horretarako, abuztuan egin ziren bilerak. Etengabekoa
izan zen uda hartako lana. Eztabaida edo zalantzaren baten on-
doren (beti ere egokierari nahiz idazkerari buruzko zalantzak),
Mezua, zegoen hartantxe, onhartu zen. Hiru Probintzietako uda-
len borondatearen agerpide egoki bezala ikusi zen Mezua. Uda-
len gain jasotako Mezua zen hura, euskal Foruaren oinharri fun-
tsezkoena Udala izan dela aitortuz. Hala zioten Diputazioetako
Lehendakariak ere:

La doctrina foral de que los Municipios son el fundamento y base del régimen histórico vasco se manifiesta en las diversas intervenciones (...). Los Municipios son la genuina representación del pueblo, e incluso las propias Diputaciones debían desaparecer. La representación parlamentaria, extraforal, debía ceder ante la base de la representación municipal (F. Zabala).

1917ko abenduan eman zitzaion Mezua García Prieto Go-
bernu Lehendakariari. Han ziren hiru Diputazioetako Lehenda-
kariak eta euskal parlamentaririk gehienak. Eskakizunak aurrera
eramateko, parlamentu-kanpotiko Batzorde batek hartu zuen be-
re gain euskal Estatuturako Aurreproiektu bat prestatzea. Beron-
en arabera, Batzarre Nagusian bilduta, Udalek eratuko zuten
Euskal Herriaren autonomia. Mezuaren eskakizunak barne zirela,
euskarari ofizialkidetasuna aitortzen zitzaion. Aurreproiektu hau
Gorteei pasa zitzaie; baina hango eskuin-ekzerrek ez zuten bul-
tzatu. 1920ko hauteskundeen ondoren (abertzaleak deputatu ba-

karrarekin geratzen dira), laster itoko da Aurreproiektua Madrillgo korridoreetan.

Gipuzkoako Diputazioaren «Memoria» (1923)

Primo de Rivera Diktadorearen iradokizun bati erantzunez, Gipuzkoako Diputazioak txosten berri bat zuzentzen dio Gobernuari: *Memoria de la Diputación de Guipúzcoa al Directorio Militar*.

Lau Herrialdeak (nahiz eta jesterio horretan Nafarroa aparte gelditu) batasun bat osatzen dutela esaten da, baina beti ere Herrialde bakoitzari nortasun berezia aitortuz. Euskal arazoaren irtenbide bezala bi aipatzen dira: Foruak bihurtzearena bata, autonomia birmoldatzearena bestea. Foruak osorik bihurtzeko legegai bat ere eskaintzen da; holako zerbait esan beharko luke:

Art. 1.º Quedan derogadas, desde la promulgación de la presente Ley, las de 19 de setiembre de 1837, 25 de octubre de 1839 y 21 de julio de 1876, quedando asimismo sin efecto, en cuanto a Alava, Guipúzcoa y Vizcaya y todos sus Municipios, cuantas leyes y disposiciones modifican su régimen y funcionamiento; y, en su virtud, se les reintegran todas las atribuciones de que gozaban con anterioridad a aquellas Leyes, dentro siempre de la unidad de la Nación española.

Art. 2º Como consecuencia, quedan restaurados, con todos sus derechos y atribuciones, los organismos forales que en ellas existían, a los cuales incumbirá determinar su régimen, constitución y funcionamiento, así como fijar, de acuerdo con el Gobierno, la adaptación a la época actual de sus relaciones de derecho con el Estado.

Euskal Herrialdeek ongi zekiten, ez zela irtenbide hori behar onhartu eta legeztatuko; horregatik proposatzen dute bigarren bidea, autonomiarena. Honen barnean ezartzen dira Udalei dagokien oro, irakaskuntza osoa, ongilegoa, osasun-zaingoa, obra publikoak (bide, kamino, trenbide, portu, urrutizkin, eta abar), urak, meatzeak, mendi, baso eta herri-lurrak, ehiza eta arrantzua, merkatalgoa eta untziteria, lurgintza, ganaderia, aurrezki, kreditoa, estadistika, deretxo pribatua, eta abar. Euskararen ofizialkidetasunaz bereratzigarren basia ari da: euskara eta erdara berdinki erabil litezke irakaskuntzan, Diputazio eta Udaletxetan, eta Tribunale eta Gobernu ekintzetan. Funtzionarien euskaldundu beharra arautu egingo da, mugatuz eta noiz eta nolakoa izango den finkatuz. Kongresuko Batzordeak ere onhartu zuen hau dena.

«Memoria» honi Gipuzkoakoak ezezik Arabako Diputazioak ere oneritzia eman zion. Bizkaikoak —«Liga Monárquica»ren eskuetan zegoen une hartan— ezgaraiko eta desegoki bezala baztertu zuen (*por haber obrado la Diputación guipuzcoana con indiscreción y tendenciosa de separatismo*). Ez da batere harritzekoa, izan ere Diputazio berak euskal Unibertsitatearen kontra jokatu baitzuen eta «Eusko Ikaskuntzaren Elkartea»ri laguntza ere ukatu. Berriz ere, euskaldunon batasunezagatik, sasipeturik geratzen zen autonomiaren bidea.

Hala ere, zer pentsa egun haietan Gipuzkoako Diputazioak hain bihozperu egindako lanari buruz? Zer balio du «Memoria» hark? Cánovas-en hitzak gogoratu, hau idatzi da arazoaz:

El conjunto de la Memoria viene a ser una magistral formulación de la doctrina foral, de aquel régimen conjunto de libertades que a nadie dañan y aprovechan a los que las disfrutan (F. Zabala).

Txosten hau joan, bai, joan zen Madrila, baina handik etorri ez zen erantzunik etorri. Eta horrela ito ziren eginahala guztiak. Nahikoa egin zen, behin eta berriz elkarriketa ito arren, 1926ko Kontzertua izenpetzearekin. Diktaturako bakarra eta II. Errepublikako eginahalen ataria.

E) AZKEN OHAR

Euskal Foruak irakurtzean, euskal eskakizunen Txostenak aztertzean, edo gure instituzio politikoek bizitza miatzean, bi gauzatan erreparatu dut sarritan: *libertatez betetako atrebimendua* du Historia horrek, ausarta da, alde batetik, eta bestetik hirigizon libreaz usteonik irekiena agertzen du, aginte politikoa herri-herrian txertatzen baitu, sistema osoaren ardatz bezala udala hartuz.

Atrebimendua, ausardia esan dut. Ausarta da Foru zaharra. Erregeri zina eskatzeko nahiz haren Agiriren bati Pasabidea ukatzeko. XX. mendeko euskaldunontzat ere txundigarria gertatzen da, libertate politikoko hori garai batetako gure Konstituzioan babestua ikustea. Mende luzetan egon da zutik hor giza libertatearen ausardia.

Ausartak izan dira gure foruzaleak ere. Etxean eta hor kan-

poan —Madrilen, esate baterako— euskal burujabetasun politikoaren alde mintzatu direnean. Zirudenez edo esaten zitzaizenez, Historiaren modernotasunaren kontra hitzegiten ari ziren Egaña, Moraza, eta beste, Foruen alde mintzatzean. Hizlari haien testigantza, pedagogia nazionala da gaurreguneko gizonontzat.

Aginte politikoaren burbiltasuna. Mendez mende hurbiletik lotu du agintea euskaldunak, eta gertu zeukalako, erabili egin du. Foru sistema osoaren zimentarria, hauzoa nahiz udala izan da. Bere etxe ondoan, askotan sortetxearen ondoko arkupean hartu ditu bere erabaki politikoak. Beste garai batzu ziren, noski, baina konstante bat izan da hori gure kondairan. Gorde-gorde beza, gaur ere, gizabanako bakoitzak, dagokion aginte politikoaren bere partea.

Gure tradizio politiko handiaren kontra lan egin dute XIX. mendeak eta gure XX.aren hiru laurdenek. Baina azken orduko bide makur horretatik ihes egiterik ez ote da izango? Behar bada, oraintxe iristen gara Historiaren bihurtune on batetara. Asmatuko ahal dugu bidegurutze berri honetan!

¹ Euskal irakurleak laburpen oso egokia du *Lur eta gizon, Euskal Herria* liburuan (Jakin, 1974), instituzio gipuzkoarrei buruz (115-145). Bizkaiko instituzioetarako, esan gabe doa, Monreal-en liburua erabili da batez ere.

² Hemen, idazlan guztirako, hartu dudak hiru Botereen sailketa, neurriren batetan, gaurreguneko irakurlearentzat pentsatua dago. Barka biezat historigile teknikoak.

J. I.

DE LOS FUEROS A LA AUTONOMIA

El Pueblo Vasco se ha sentido y realizado en la Historia como una nacionalidad que se definía como soberana. Los Fueros y sus Instituciones forales representan la Constitución en la que se ha expresado y realizado esa soberanía política.

El Fuero nace de los usos y costumbres (no concesiones reales), creados y consagrados por el consenso popular, que se expresa, sobre todo,

en los Concejos municipales de la Tierra abierta. El juramento foral del Rey o Señor y el derecho de veto (Pase foral) frente a posibles actuaciones antiforales de aquel, son las dos garantías constitucionales que protegen la Inviolabilidad del Fuero.

Esta autoposición política independiente se ha plasmado de forma autónoma en cada una de las Provincias, Reinos o Señorío. En el Derecho Público de estas entidades vascas hay, aún en las más divergentes, una base común de identidades y similitudes; pero hay que señalar que Alava, Guipúzcoa y Vizcaya poseen un mayor grado de afinidades. Navarra enriqueció más autónomamente su primitivo acerbo institucional con rasgos propios de las Monarquías medievales con las que convivió. En el artículo se ofrece la estructura institucional del Señorío de Vizcaya, como un modelo foral que ayudará al lector a una mejor comprensión del Derecho Público vasco.

El País Vasco peninsular vivió, hasta mediados y fines del siglo XIX, con su propio sistema institucional. Pero los cambios socio-económicos, la ideología del constitucionalismo liberal y la derrota en la Guerras Carlistas lograron desarticular el sistema: entre 1839 y 1876 se consuma la abolición foral. Esta supresión de la Constitución política tradicional es impuesta por un poder extraforal, el poder constitucional de la Monarquía española. La foralidad descansaba sobre un pacto bilateral entre el Rey o Señor y la comunidad política; la monarquía liberal, por el contrario, impuso una constitucionalidad unilateral y, por tanto, antiforal.

La tesis liberal y centralista de que una verdadera y auténtica Constitución del Estado moderno requiere la uniformación constitucional de la Monarquía (y como corolario, la idea de que los Fueros vascos son un privilegio) ha sido constantemente rechazado por el foralismo vasco. Este entiende que el Fuero tiene su fundamento en la soberanía original del Pueblo Vasco.

Para amortiguar la agudeza del problema originado por la extirpación foral (digamos que el establecimiento del régimen común hubo de llevarse a cabo con la suspensión de la Ley de Garantías Constitucionales), el centralismo ofreció un sistema de Concierdos económicos consistente en una autonomía de gestión fiscal: los impuestos concertados se pagaban con un cupo. Los Concierdos económicos resultaron beneficiosos, pero insuficientes, y la demanda de la restitución foral siguió viva.

Entre la abolición foral (1876) y el advenimiento de la II República española (1931), particularmente en los momentos en que el sistema canovista entra en crisis, la reivindicación foral vasca vuelve a expresarse con energía. Esta se manifiesta a nivel oficial (Mensaje de 1917, Memoria de 1923) y a nivel popular, con el apoyo masivo a las demandas forales.

Estos movimientos reivindicativos se formulan teóricamente en estudios o proyectos que, generalmente, ofrecen una doble alternativa de solución al problema vasco: a) el retorno al puro sistema foral, adaptado por el propio Pueblo Vasco a las nuevas necesidades del País, o b) la creación de una autonomía política que permita el más amplio desarrollo institucional.

La Monarquía alfonsina no logró hallar una forma constitucional que encauzara por vías de solución el foralismo (liberal, carlista o nacionalista) del Pueblo Vasco. Así, pues, la Segunda República hubo de heredar un problema no resuelto.

DU FUERO A L'AUTONOMIE

Le Peuple Basque s'est perçu et réalisé dans l'Histoire comme une nationalité qui se définissait comme souveraine. Les Fueros et ses Institutions forales représentent la Constitution politique dans laquelle s'est exprimée et réalisée cette condition politique souveraine.

Le Fuero naît des usages et coutumes (non pas de concessions royales), créées et consacrées par le consensus populaire, qui s'exprime surtout dans les Conseils municipaux de la Terre ouverte. Le serment foral du Roi ou Seigneur, et le droit de veto (Pase foral) face à de possibles actions antiforales de celui-ci, sont les deux garanties constitutionnelles qui protègent l'inviolabilité du Fuero.

Cette autopossession politique indépendante s'est formée de façon autonome dans chacune des Provinces, Royaumes ou Seigneuries. Dans le Droit Public de ces entités basques, il y a, même dans les cas les plus divergents, une base commune d'identités et similitudes; mais il faut signaler que Alava, Guipúzcoa et Biscaye ont un plus grand degré d'affinités. La Navarre enrichit d'une façon plus autonome le primitif acerbe institutionnel par des traits propres aux Monarchies médiévales avec lesquelles elle avait vécu. Dans l'article, nous étudions la structure institutionnelle de la Seigneurie de Biscaye, comme modèle foral qui aidera le lecteur à une plus grande compréhension du Droit Public basque.

Le Pays Basque péninsulaire vécut, jusqu'au milieu et jusqu'à le fin du XIX^e siècle, avec son propre système institutionnel. Mais les changements socio-économiques, l'idéologie du constitutionnalisme libéral et l'échec dans les Guerres Carlistes réussirent à désarticuler le système: entre 1839 et 1876 se consumma l'abolition forale. Cette abolition de la Constitution politique traditionnelle est imposée par un pouvoir extraforal, le pouvoir constitutionnel de la Monarchie espagnole. La foralité reposait sur un pacte bilatéral entre le Roi ou Seigneur et le communauté politique; la monarchie libérale, au contraire, imposa une constitutionnalité unilatérale, et donc, antiforale.

La thèse libérale et centraliste selon laquelle une vraie et authentique Constitution de l'Etat moderne demande l'uniformisation constitutionnelle de la Monarchie (et comme corollaire, l'idée d'après laquelle les Fueros basques sont un privilège) a été constamment rejetée par le foralisme basque. Celui-ci entend que le Fuero a son fondement dans la souveraineté unique du Peuple Basque.

Pour tempérer l'acuité du problème originé de l'extirpation forale (disons que l'implantation du régime commun fut mené à bien grâce à la suspension de la loi de Garanties Constitutionnelles), le centralisme offrit un système d'Accords économiques qui consistaient en une autonomie de gestion fiscale: les impôts convenus étaient payés par une cotisation. Les accords économiques furent bénéfiques, mais insuffisants, et la demande de la restitution forale continua.

Entre l'abolition forale (1876) et l'arrivée de la II^e République espagnole (1931), particulièrement au moments où le système canoviste entra en crise, la revendication forale basque s'exprime à nouveau avec vigueur. Celle-ci se manifeste au niveau officiel (Message de 1917, Mémoire de 1923) et au niveau populaire, avec l'appui massif aux exigences forales.

Ces mouvements revendicatifs se forment théoriquement en études ou projets qui, en général, offrent une double alternative de solution au

problème basque: a) le retour au pur système foral adapté par le Peuple Basque lui-même aux nouveaux besoins du Pays, b) la création d'une autonomie politique qui permette le plus vaste développement institutionnel.

La Monarchie alphon sine ne réussit pas à trouver la formule constitutionnelle pour canaliser la solution du foralisme (libéral, carliste ou nationaliste) du Peuple Basque. Ainsi donc, la Deuxième République hérita d'un problème non encore résolu.

Errepublikak espainola eta Euskal Estatutua

Joseba Intxausti

Espainiako bigarren Errepublikarekin euskal autonomizaletasunari itxaropen eta aukera berriak sortzen zaizkio. Foruak beren osotasunean eskuratzetik ez baldin badago ere, Kontzertu ekonomikoetatik harago ere jo litekeela ematen du, autonomi Estatutu bat lortuz. Ez da, beharbada, aberzale beroenek nahi luketen adina, baina aurreko berrogeitahamar urtetakoaren ondoan aurrerakada handi bat gerta liteke hori.

Estatu berri baten bila

Errepublikak lau arazo larri eta funtsezko zituen: erlijioarekikoa, armadarena, eskualdeena eta soziala. Erlijio eta eskualde arazoek, batez ere Konstituzioan izango dute beren kokalekua. Eskualdeen autonomiarena ez zen, inondik ere, politikako zakur batzuren asmakizun bat. Espainiak, bi mende pasatxo zeramatzan eskualdeen arazoa bide faltso batetik konpondu edo ukatu nahirik, eta agian iritsi zen problemari erantzun jatorrago bat emateko garaia.

Javier de Burgos-ek (1833) gaurregun ezagutzen dugun Probintzi banaketa erdi-asmatu zuenetik, eskualdeen edo nazionalitateen nortasun historiko-kulturazkoa ez zuen Administrazioak hain-

tzakotzat hartu ere nahi. Nazionalitateak geroz eta kontzien-tziagotuz datoz, eta XIX. mendeko historiak erakutsi duenez, gerrateondoetan ezarritako irtenbideak ez dira eramankorrenak gertatzen. Konstituziozko aldakuntza batzu eskatzen ditu Espai-niak. Hori da errepublikazaleen eritzia.

Bigarren Errepublikak, gaizki egindako Estatu birmoldatu egin behar zuen; aginte politikoaren estrukturak, nazionalitateen beharrian eta jomugetara egokitu nahi ziren Estatutuan. Jaiomin den Errepublikaren schaska, Donostiako Hitzarmena izan zen (1930eko abuztuan), eta bertan eskualdeen problemari leku na-barmena ematen zaio, han parte hartu zuten katalanei esker:

...los reunidos aceptan la presentación a unas Cortes Constituyentes de un Estatuto redactado libremente por Cataluña para regular su vida regio-nal y sus relaciones con el Estado español. Este acuerdo se hizo extensivo a todas aquellas otras regiones que sientan la necesidad de una vida autónoma (...). Tanto para las Cortes Constituyentes como para la vota-ción del estatuto por las regiones se utilizará el sufragio universal (*El Sol*, 18-VIII-1930).

Euskal Herriarentzat ere eskurakorra izango da, harrez gero, eskualdearen autonomia. Aro konstituziogile bat irekitzen da Estatuaren barnean. 1931ko apirilaren 14ean.

Errepublikaren lau arazo nagusiak, erabat korapilatuko dira urte haietako euskal historian: arazo soziala eta nazionala (jelki-de eta sozialisten arteko gatazka), autonomia eta erlijioa (Aita Sainduarekiko harremanak: Lizarrako Estatutua), erlijio/autono-miak eta armada (karlisten eta armagizonen arteko lagunkide-tza, gerrara iristeraino). Horietaz gain ezin ahantz beste tentsio bat ere: 1931ko Errepublika, ezkertiarra da Madrilen eta Barce-lonan, baina eskuindar egiten dute karlista eta abertzaleek Eus-kal Herrian.

Estatutua, aukera bat

Testuinguru honetan, euskal indarrek maila ezberdinetan lanegingo dute 1931n. Ekintza politikoaren bideak hiru ziren uda hartan:

- a) Herriaren mobilizazioa (Gernika, Lizarra).
- b) Alderdi politikoaren eta Udaletako alkateen elkartzea.
- c) Jakitun elkarteen lana (Eusko Ikaskuntzaren Elkartea).

Errepublikaren jaiotzatik 1937ra arteko ibilaldia malkartsua

izango da, itzaropen distiratsuenetik gerrate zurrunbiloan erortzeraino. Euskal Estatutuen asmoak loraldi, ekaitz eta makalal-dirik franko ezagutuko du sei urte laburretan. Gogora dezagun orduko gure Estatutugaien zerrenda:

1. — Eusko Ikaskuntzaren Aurreproiektua (1931-maiatza-31).
2. — Lizarrako Estatutugaia (1931-ekaina-14).
3. — Udalen Estatutugaia (1932-ekaina-19).
4. — Hiru Probintzietaako Estatutugai plebizatua (1933-azaroa-5).
5. — Euskal Estatutu aprobatua (1936-urria-6).

Ikusten denez, Euskal Herriak ez zuen bigarren Errepublikarekin, gerratera arte, Estatuturik lortu. Historia hori Katalunian gertatu zenarekin alderatzen badugu, handiagoa dugu oraindik atzerapena. Konstituzioaren 11. artikulua 1931ko uztailaren azkenetan onhartu zen Gortetan; honela zioen:

Si una o varias provincias limítrofes, con características históricas, culturales y económicas comunes, acordaran organizarse en región autónoma para formar un núcleo político-administrativo, dentro del Estado Español, presentará su Estatuto con arreglo a lo establecido en el artículo 12.

Hamabigarren artikulua, Estatutugaiaren proposamena egiteko prozedura mugatzen zuen: Udaletatik gehiengo batek proposatua izan behar zuen, eta gero plebizito batetan onhartua. Ahalbide horiei erantzuki, 1931ko abuztuaren 3an plebizitatu zen Katalunian hango Estatutugaia. Prest zegoen, beraz, noiznahi eztabaidatzeko, 1932ko maiatzetik aurrera aztertu zen deputatuen Ganbaran, eta 1932ko irailaren 15ean Estatutugaia Lege bilakatu zen. Kataluniak bazeukan, beraz, bere Estatutua.

Bienbitartean, nondik nora zihoan Euskal Herriarena?

Euskal mugimendu politikoa, bizkor

«Donostiako Hitzarmenean» parte hartzeko hain iaioak gertatu ez ziren euskal gizon politikoak, apartak irten zitzaizkigun herriaren ametsak konprenitu eta ekintzak gidatzeko. Apirilaren 14etik (Errepublikaren jaiotza eguna) ekainaren 14eraino (Udalen Batzarre Handia Lizarran), bi hilabete bakarrik doaz, baina Estatutuaren aldeko herritar mugimenduak heldutasun batua eta dinamika oso bizia erakusten ditu. Apirilaren 14ean bertan udaletxe eta herritarrei Gernikara dei egiten zaie 17rako.

Eskakizunak erizpide hauen barnean egiten dira: 1839ko Legea deusezta dadila; Espainiako Errepublikak berria onhartu egiten da; Espainiako Estatu federalaren barnean, Euskal Errepublikak aldarrikatzen da; Euskal Herriari autodeterminazio eskubidea aitortzen zaio, eta Udalen ordezkariak eta aipatutako erizpide hauen egiaztatzeak, Batzordea izenta dadila eskatzen da. Lehenengo egunetan Bizkaira mugatutako mugimendu hau, berehala hedatzen da beste euskal Herrialdeetara.

Gertakariak oso presaka datoz: maiatzaren 8an, Estatu-tutagai bat presta dezala eskatzen zaio Eusko Ikaskuntzari. Udaletxeak dira mugimenduaren eragile eta gidari, berak baitziren, izan ere, herriaren bozak hautaturiko bakarrak (apirilaren 12ko hauteskundeak).

Baina Errepublikako agintariek ez zezaketen, inondik ere, mugimendu hura bere gisara ibiltzen laga, Euskal Herriak bere aldetik edozein erabaki hartuta Espainia osoaren ibilbide konstituziogilea hertsu ez zezan. Gernikako Bilera (apirilaren 17an) goarda zibilez eragotzi zen, lehenengo, eta berehala Diputazioen ordezkari lau hiriburuetan Batzorde Gidariak izentatu ziren Madrildik zuzenean (*Comisiones Gestoras*). Horra Euskal Herriaren agintea erdibituta: alde batetik, alkateak eta herri indarrak, eta bestetik, Batzorde Gidariak eta hiriburuetako alkateak. Hauek ere beren Estatu-tugaia proposatu nahi zuten, bide batez Madrildigo prozedura bideak ongi gordez.

Prieto herritar mugimenduaren alde agertzen da; baina, hala ere, sozialistek eta ezkerreko partiduek, Madrildik ezarritako Diputazioen ordezkari Batzorde Gidarien proposamenei lagundu zieten, horrela, alkateen mugimenduaren aurrez aurre jarritz. Ezker-eskuinetan erdibitu ziren, beraz, Euskal Herriko indar politikoak. Herritar indar abertzaleek aurrez zezaketenen kontra, beste hautabide bat sortuz.

Alkateen mugimenduak, Eusko Ikaskuntzaren Elkartean (*Sociedad de Estudios Vascos*) aurkitu zuen beharrezko laguntza teknikoa: lehendik eginda zeuzkan lanez baliaturik eta alderdi guztietatik jasotako eritziak gogoan zituela, maiatzaren 31n, gaueko lauretan, burutu zuen bere aurreproiektua. Herriarentzat eta alderdi politikoentzat tresna teknikorik estimagarriena gerta zitekeen hura, hilabete eskas falta baitzen deputatu hauteskundeetarako (ekainaren 28an), eta hamabost egun bakarrik udal-agintariek eta herri osoak Lizarran egin behar zuen Bilera handirako.

Estatutuaren Aurreproiektua (Eusko Ikaskuntza)

Eusko Ikaskuntzaren Aurreproiektua eta Lizarrako Estatutu-gaia batbera dira, Bilera honetan egin zitzaizkion zuzenketa zenbait ezik. Sarrera, hamar izenburu, behin-behineko disposamena eta beste osagarri bat ditu Aurreproiektuak. Euskal Herriaz zer ulertzen den azaldu ondoren, eskubide eta betekizunak, euskal Estatuaren botereak, gobernailuak, fakultateak, hizkuntza, Espainiako Estatuaren ordezkariak, euskal Estatuaren eta Errepublikaren arteko harremanak, Herrialdeetako Estatutu bereziak, Errepublika espainolarekiko pagakizunak, eta Estatutuaren beraren erreforma arautzen dira Aurreproiektu horretan.

Aipatutako arazo horiei buruz zerak esaten dira: Foruen deuseztapena ez du Euskal Herriak sekula onhartu, eta betidani-ko jatorrizko egoera juridiko hartara itzuli nahi luke; Estatutuak ez du gogo hori ukatzen, baina, garaiko ahalbideetara etorriz, oraingoz Estatuaren mugetara biltzen ditu bere eskakizunak; Euskal Herria lau Herrialdeek osatzen dute, eta batasun bat dira, baina bakoitzak bere autonomia propioa ukan lezake; legeak egin, administrazioa eraman, tribunaleak eduki, legeak eta epaiak beterazi, hori dena egiteko eskubidea izango du euskal Estatuak; demokrazi eta gizaeskubideak garantiatuak egonen dira; euskara da euskaldunen hizkuntza nazionala.

Fakultaterik zabalenak aitortzen zaizkio euskal Estatuari: Estatuarekiko Konstituzio Tribunaldea, udal administrazioa, presondegiak, zergak eta kontribuzioak, politika ekonomikoa, segurtasun publikoa, defentsa (Polizia, Armada eta Itsas-armada), osasun-zaingoa, irakaskuntza osoa, gizarte-legeria, ongilegoa eta obra publikoak, basoak, lurgintza, ganaderia, industria, merkatalgoa, legeria zibila, etab. Fakultate hauk aipatu ondotik, oinarriko arau hau ematen du Aurreproiektuak:

El Pueblo Vasco es reconocido como soberano en todo lo que no esté limitada su soberanía *por la Constitución española o por el Estatuto* [azpimarkatu hori Lizarran honela aldatu zen: *por las atribuciones de que taxativamente hace cesión en este Estatuto al Estado Español*]. Por consiguiente, asumirá todos los derechos y facultades que no se reserven para el Poder del Estado español en el Estatuto y los ejercerá con la máxima intensidad y plenitud (Art. 15, A).

Zer geratzen zitzaion, beraz, Errepublika espainolari Euskal Herrian? Errepublikaren Gobernu modua, gizarte- eta gizaeskubideak zaintzea, Eliza-Estatuen arteko harremanak, sindikalgin-

tza, nazio-arteko harremanak, aduanak, txanpongintza, postak eta gerra, dena Estatutuaren arabera.

Eusko Ikaskuntzaren Estatutugaia aski ideiala zen, nazional-ki begiratuta (nahiko argi aitortzen zion Euskal Herriari bere burujabetasuna). Gehiago eskatu behar ote zen oraindik? Eta eska ote zitekeen, politiko posibilista batek premiazkoa duen zuhurtasuna galdu gabe? Nola jokatu behar zuen herriak? Nola alderdi politikoeak?

Lizarrako Estatutugaia (1931)

Ekainaren lehenengo hamabostekoan eztabaidatzen da Eusko Ikaskuntzaren Aurreproiektua. Gipuzkoatik sortzen dira zuzenketarik garrantzizkoenak, Elizarekiko harremani dagozkienak alegia. Ikus dezagun zer aldatu zen. Txandaka eraman behar den Lehendakaritzarako, Nafarroari lehenengotasuna ematen zaio (8. art.), euskal soberania azpimarkatu egiten da oraindik (ik. goian 15. art.), eskualde euskaldun eta erdaldunetarako zehazkiago mugatzen da euskararen irakaskuntza (17. art.). Baina Aurreproiektuari, etorkizunean ezingaraituzko eragozpenak ezarriko dizkion puntu berri bat dago batez ere Lizarran (15. art. 4.ari dagokiona). Honela dio:

El Estado Vasco (...) tiene competencia en las siguientes materias: (...) 4.º Las relaciones de la Iglesia y del Estado Vasco, el cual negociará un Concordato con la Santa Sede.

Zerk eraman zituen euskal agintariak arazo hau hor ezartzera? Euskal talde politiko abertzaleen batasun beharrak? Eskuin muturrak abertzaletasunari egiten zion txantaia bat ote zen bura? Noren eta zeren zerbitzutan asmatu zen 15. artikuluko laugarren pasarte berri hori?

Zalantzarik gabe, euskal Estatutugai jator haren azken garaitzapena eta geroko gurutzebidetaren lehenengo egonaldia izan zen Lizarrakoa.

Errepublikazaleak eta sozialistek ez zuten onhartu Lizarratik egiten zitzaien eskaintza. Lehentxeago Aurreproiektuaren alde agertutako Prieto, oso gogorki mintzatu zen. Geroago Diputazioetako Batzorde Gidariak ere Eusko Ikaskuntzarena onhartu baldin bazuten, ezinezkoa zen Lizarrakoa. Ez Euskal Herriko ezkerak, ezta Madrilgo Gobernuak ere ez zezaketen irents halako Estatutugairik, inola ere Errepublika hura laikoa izateko-

tan. 1931n, ezkerreko Errepublika bat bakarrik zen posible, eta Errepublika posible horrentzat eramanezina zen Lizarrako Estatutugaia.

Dena dela, 1931ko hauteskundeetan, Lizarrakoaren alde zudenek irabazi zuten: aldekoek 132.445 boto, kontrakoek 95.222; baina Espainian ezkerrek irabazi zuen, eta Katalunian bertan ere. Lizarran sartu zen arriskuetatik irteteko, Euskal Estatutuak mila eta bost laguntza beharko zituen, horregatik.

Madrilgo Gorteetara begira

Uztailean hasi zen Madrilen Konstituziogintza: 11-12. artikuluek ametitzen dituzte eskualde autonomoak eta berauentzako Estatutuak. Hala ere, Konstituziotik bertatik jaio litezke eragozpenak ere, Elizarekiko artikulugai gordin batzu baitaude hor: a) noren esku-barrutian egonen da Elizarekiko harremana, Errepublikarenean ala Gobernu Autonomoarenean? (14. art.), b) Estatu laiko eta erlijiorik gabe bat egingo ahal du Errepublikak? (3. art.), c) zer-nolako trataera emango zaie Elizari eta beronen elkarteei Estatuaren barnean? (26. art.).

Hogeitaseigarren artikulua honetan kontzientzi problema iren-tsezina idoro behar zuten, nahitaez, euskal abertzale katolikoek. Aski zen 26. artikulua, Errepublikarekin ozpinduta jartzeko, eta horretaz gainera, zer gertatuko zen Estatutugaiarekin, Erromarekin harremanetarako eskubidea ukatzen baldin bazitzairen?

Konstituzioaren erreka-ertzeko sasi horietan korapilatu zen, hain zuzen, Lizarrako Estatutugaia. Begira zer zioen Konstituzioaren 14. artikulua:

Son de la exclusiva competencia del Estado español la legislación y la ejecución directa en las materias siguientes: (...) 2.^a Relación entre las Iglesias y el Estado y régimen de cultos.

Hori tartean zela, nola jo aurrera? Irailean, hamalagarren artikulua eztabaidatu baino lehentxeago, 420 alkate euskaldun Madrila doaz, Alcalá Zamora Errepublikako Lehendakariari Lizarrako Estatutugaia eramatera. Ez alferrik!

Hiru egun geroago (irailaren 25ean) agertzen dira hodeiak. Leizaolak boto berezia aurkezten du artikulugaiaren kontra; Agirre, Rodezko eta Pikabeak, berriz, zuzenketa bana. Hala ere, 14. artikulua onhartuta gertatzen da. Baina eraso ez da hor bukatzen.

Erlijio arazoa geroz eta goriago dago Gorteetan: 26. artikulua Gobernu laikoaren kabutara utzi nahi ditu eliz elkarteak, eta, guztiek alde aurretik dakitenez, Jesus-en Lagundia da desegin nahi dena. Ezinaren kontra gudukatuz, azkenean euskal Deputatuek utzi egiten dute Kongresua. Harrez gero, Gobernuak du Estatutuaren inizatiba: Estatutugaiak, derrigorrez, Konstituzio berriari egokitua izan behar du. Hala dio 1931ko abenduaren 8ko Dekretuak.

Estatutuari Nafarroak ezetz? (1932)

Diputazioetako Batzorde Gidariak, alkateen Batzordeari deitu zioten, ponentzia izentatu eta beronek Estatutugai berria prestatu zezan. Eusko Ikaskuntzarena izan zitekeen lanaren oinharria. Nafar udalek erabaki zuten (220tatik 200ek), Nafarroak bereztat beste hiru Probintziekin batera, Estatutu bakarra hautatzen zuen (Iruñean 1932-urtarrila-31). Estatutugai lehenbaitlehen prestatu eta udaletxeen bototara jarriko zen. Ekainaren 19an egin zen bozketa Iruñean, eta, ofizialki orduan esan zenez, honela banatu ziren botoak:

	Emangabeak	Aurka	Alde
Nafarroa	35 (29)	123 (116)	109 (122)
Araba	15	11	52
Bizkaia	6	1	109
Gipuzkoa	3	2	84
OROTARA	59 (53)	137 (130)	354 (367)

Gaurdaino Nafarroak ezezkoa eman zuela esan izan da, nahiz eta, ofizialki esandakoaren kontra, beharbada parentesi arteko datu horik «errealegoak» izan. Jimeno Jurío-ren ustetan, egiatik hurbilago dabilta datu ezofizialak, ofizialak baino. Dena dela, autore honen arabera, Nafarroak ez zion euskal Estatutuari ezezkorik eman. Bi arrazoinetan finkatzen du bere eritzia: a) egiazko datuek ez dute Nafarroak ezezkorik esan zuenik frogatzen, b) urtarrilean herrialde guztiek, eta Nafarroak ere, Estatutu bakarraren alde bozkatu ondoren, ez zen legezko edo gizabidezko herrialde bakar batek (Euskal Herri osoarekiko minoria batek) gainerako guztien kontra berak bakarrik erabakitzea. Nafarroako «Acción Autonomista»k 1932ko irailean esaten zuen bezala:

La imposibilidad racional y jurídica de que, en una misma asamblea y

votación, encaminadas a un fin que precisamente se quiso común [*urtarrileko erabakia*], prevalezca el criterio de la mayoría de una minoría, frente a la mayoría absoluta, y las significativas circunstancias de que se falsease el voto de algunos Ayuntamientos por sus representantes, y de que un buen número de ellos no estuvieran presentes en la asamblea o se inhibieran de votar, conspiran, bien a las claras, a la misma conclusión.

Orain artean sostengatu diren eritzi historikoen kontra, hau idatzi du (eta frogatu) Jimeno Jurío-k: *basados en datos reales no puede afirmarse que Navarra dijera «no» al Estatuto Vasco, sino más bien todo lo contrario.*

Hiru Probintzientzako Estatutugaia prestatzen (1933-34)

Nafarroa aparte geratzen zenez, hiru Probintzietarako beste Estatutugai bat moldatu beharra zegoen. Kataluniako Estatutuaren onhartzeak eskaintzen zuen egokieraz sobera baliatu gabe (Prieto-k kontseilaturikoak ahantziz), ezker-eskuinetatik aitzaki-maitzaki, luzamendutan joan zen aurreproiektuaren lana. Hamalau hilabetetako atzerapenarekin, azkenean aurrekoa bera moldatuz egokitu zen oraingo Estatutugaia. Honetarako, bat etorri ziren kultur talde, alderdi politiko eta langile erakundeak. Gasteizen egin zen Udaletxeen bilera, 1933ko abuztuaren 6an, eta onhartua izan zen Estatutugaia: 239 udaletzek eman zuen aldeko botoa, 28k kontrakoa, eta 15ek zuria.

Konstituzioak agintzen zuenari segiz, han onharturikoa herriari eskaini behar zitzaion bototara. 1933ko azaroaren 5a izentatu zen plebizitorako. Nafarroaren exenpluak eta politikaren egoera crokorrak eraginda (berehala hartuko zuen eskuinak Errepublikaren agintea, «Bienio Negro» deitua hasiz, 1933-35), garai batetan baino ugariago agertu ziren ezezkoak Araban: zentsuaren % 46k bakarrik eman zuen alde. Hala ere, hiru Probintzietako % 84ek baiezkoa eman zuenez (Bizkaian, % 88; Gipuzkoan, % 89), onhartua izan zen Estatutugai plebizatua. Ez ezkerrean, ez eskuinean egon zen ofizialki eta osorik Estatutuaren kontrako partidurik; baina bai sozialisten artean, bai karlistetan izan zen kontra agertutako talderen edo indarren bat edo beste.

Orain, bai, prest zegoen Gorteetarako Estatutugaia. Halabeharrez, euskal abertzaletasun eskuindarrari halako beldurra zion Espainiako ezkerrek laster galduko zituen 1933-azaroko hauteskundeak, jelkideek hemen beren egoera finkatuago baino egiten

ez zuten bitartean. Zer gertatuko zitzaion Madrilako bidea hartu zuen Proiektuari?

Gorteetako Estatutu Batzordeak luzamendutan erre zituen hilabeteak, radikal-cedistak tartean zirela. Abertzaleek hurbiletik ikusi ahal izan zuten egiten zitzaien azpijana, eta oposiziora pasa ziren Gorteetan. 1934ean katalanen alde agertuko dira, Generalitat-ek aurrera eraman nahi zuen lur-erreformaren konstituzionaltasuna defendatuz, eskualdeetako Estatutuen zentzuaren arazoa baitzebilten tarteko. Haiekin bat eginik, Gorteetatik irten egingo dira euskal Deputatuak (lehenago erlijio eztabaidan egingakoa, orain nazionalitate Estatutuen alde egiten dute).

Une honetatik aurrera, maila ofizialetako ekintza moteldu egiten da, herri ekintzari lehenengotasuna emateko. Abertzaleak, 1931n bezalaxe, herri mugimendura itzultzen dira; horretarako, udalen batzarre bat egiten da uztailearen 5ean, eta Madrila bidali beharko diren udal-ordezkariek aukeratzeko, hauteskondeetara dei egiten du batzarreak. Berehala dator Gobernuaren debekua, baina, hala ere, erabakitakoari eutsiz, herri askotan egiten da bozketa (1934eko abuztuaren 10ean).

Irailaren 2an udalen batzarre bat biltzen da Zumarragan. Alkate askok eta askok ez du haraino iristerik, indar armatuek eragotzi dietelako; baina han daude deputatuak (abertzale, sozialista, eta katalanak ere). Debeku guztien aurka, abertzaleek ez dute herria kontzientziatzeko aukerarik galtzen. Honetan Gobernuak ere laguntzen du bere gisara, kale eta herrietan indar armatuen zampakieriaz; Ministergoetatik, Kontzertu ekonomikoaren kontra erabakiak hartuz, bilerak debekatu... Euskal abertzaletasuna ezkerrean lerritzen da geroz eta argiago.

Madrilgo azken guduak

Eta euskal Estatutuaz zer? Espainiako eskuinak, aginte makila eskutan duela, ez du horretaz entzun ere nahi; ezkerre, ostera, iraultza armaturako prestatzen ari da. 1934eko urrian lehortuko da errebolta, eskuindarren Errepublikari erasoz, eta Katalunian Companys-ek «Estat Català» delakoa oihukatzen du. Lerroux-CEDAren Gobernuak bazuen aski buruhauste langileria errebolatua eta beronen gidariak presondegira eramaten. Fronte guztion artean, euskal Estatutugaiak ez du lekurik, edota tirokatu egiten da.

Azken defentsa sonatua, 1935eko abenduko Gorteetakoa izan

zen. Agirrek eta Irujok daramate Estatutu eskakizunaren ikurri-
na. Calvo Sotelo da, aurrez aurre, kontra jarduten dena. Honela
komentatzen du Tamames-ek orduan gertatua:

La sesión de las Cortes del 5 de diciembre en que se debatió la cuestión se hizo memorable. Aguirre e Irujo de un lado, se enfrentaron con Calvo Sotelo y el coro de diputados gubernamentales en uno de los torneos dialécticos más ilustrativos de toda la historia republicana. De Calvo son estas palabras: «¡Ha quedado demostrado, señor presidente del Consejo, que el partido nacionalista vasco es separatista! ¡A ese partido ya no se le puede dar el Estatuto...! ¡No más hablar de Estatuto, porque sabemos que ese Estatuto será en vuestras manos un arma homicida!».

Laster disolbatzen dira Gorteak, eta 1936ko urtean, Gobernuaren eta politikoen eginkizunik kezkarrienak ez daude inongo Estatututan, hauteskunde eta ondorengoetan baizik. Urtarri-lean eratzen da «Fronte Herritarra» (*Fronte Popular*); otsailean, ezkerre da irabazle hauteskundeetan. Euskal herrian, bai Fronte Herritarrak eta bai abertzaleek (beren aldetik aurkeztu dira haur, ezker-eskuinetan Frontea eta CEDA/tradizionalistak dituztela), Estatutuaren eskakizuna beren programetan dute. Elekzioen ondoren hiru talde handitan agertzen da Euskal Herria: eskuina (CEDA, karlista, eta abar), 155.500 botorekin; ezkerre (errepublikazale, sozialista, komunista), 169.000ekin eta EAJ/PNV, 151.000 botorekin. Honela, ba, 1936ko hauteskundeetan hirutatik bi Estatutuaren aldekoak ziren Euskal Herrian.

Dagoeneko, EAJk ikasi du, ongi ikasi ere, eskuindarrendan-
dik apenas itxaron daitekeela Estatuturik. Euskal abertzaletasun-
naren itxaropena ezkerrean dago, harrez gero. Gorteak irekitzean
(apirilaren 4ean), Azaña-k euskal Estatutugaiaren eztabaida ere
proposatzen dio Ganbarari, honek berehala landu beharko dituen
eginkizunen artean.

Baina ezin, ordea, biharamunetik bertatik arazoari heldu,
Errepublikari egiteko larriagorik sortu baitzitazio: Lehendakari
berria aukeratzea, ordena publikoa, grebak, zenbait sozialistaren
iraultzarismoa. Horra, ba: EAJk ezagutu ditu bere ezkerreko la-
gunkideak eta badaki Errepublikarekin joan behar duena; baina
Errepublika elbarri bat da hura.

Uztailean Altxamendu Nazionala lehertzen da. Hasi da, ba,
gerrate luzea.

Borrokatzeko frontera zihoan Euskadiri besapera sartu zion
Estatutuaren opil gozoa Errepublikak. Hainbeste egonaldi eta

itxoinaldi luze egindako Estatutugaia bapatean onhartua izan zen, urriaren 6an.

Bost urteren ikaskizunak

Ikusi dugunez, 1931tik 1936ra arte, Euskal Herriarentzat bost Estatutu prestatzen dira, katalanek lehenengoa eta bakarra aski izan zuten bitartean. Eman zitzaiguna ere, gerra hasi eta handik bi hilabete t'erdira eman zitzaigun. Gurutzebide hark gauza jakingarririk izan zuen:

1. — Herriaren mobilizazioak toki nabarmen bat ukan zuen (Gernika, Lizarra, Zumarraga; gerratean); baina egunean eguneko politikan bake garaietako mobilizazioak ez zuen, azkenean, premiazko zen fruiturik eman. Gerrateko mobilizazioari esker lortu zen Estatutua.

2. — Klasismoaren traizioa jasan zuen Euskal Herriak: euskal oligarkiak saldu egin zuen. Atxakiarik ttipiena aski izan zuen bere betiko bide zentralistari heltzeko eta, ahal izan zuenean, herria bera ere maneiatzeko (Iruñean 1932an, Araban 1933an, gerraterako 1936an).

3. — Herriaren bozketa mailan, Euskadiko Estatutua ez zen bideratu, arik eta Herrialdeen zalantzak alboratu (Nafarroarenak 1932an, Arabarena 1933an) eta etorkinen sozialismoaren zentzua eta kontzientzia irabazi ez ziren arte.

4. — EAJ/PNV, alderdi iraultzaile bat izan gabe ere, bere abertzaletasun herritarraren indarrez, ezkerteratu egin zen, sozialista eta errepublikazaleekin batera gerra egiteraino. Eboluzio horrek eta «Bienio Negro» (1933-35) hark sozialismoari eman zion eskarmentuak, posibleztatu zuten Estatutua, eta gerrateak nahitaezko bihurtu.

5. — EAJ/PNVren eta PSOEn jarraitzaileek (hemengotarrak eta etorkinek) beren interesak elkarganatu ahal izan ez zituzten arte, ez zen lortu euskal Estatuturik.

6. — Politikarien manikeismoak, eta pragmatismorik ezak (erlijioaren arazoa, ezker-eskuinetan, 1931-33an), Estatutuaren lorpena atzeratu baizik ez zuten egin.

7. — Teorikoengan kontzientzia argia zegoen Euskal Herrian, nazionalitatearen soberaniaz eta hortik jaiotzen diren eskubi-deetaz, eta Eusko Ikaskuntzakoak saiatzzen ziren juridikoki azaltzen. Ondoko Estatutuetan, ordea, geroz eta murriztago agertzen

da hori. Honetan pobreena, hain zuzen, 1936an eman zitzaiguna da.

J. I.

LA REPUBLICA ESPAÑOLA Y EL ESTATUTO VASCO

La historia del estatutismo vasco durante la Segunda República (1931-36) española resultó azarosa. El problema político, no resuelto, de las autonomías regionales fue una herencia recibida de la Monarquía y de una reciente historia antiforal de la política española.

Al mes y medio de la proclamación de la República, la Sociedad de Estudios Vascos, a instancias del movimiento municipalista de alcaldes, elaboró el primer Anteproyecto de Estatuto para Euskadi. Fue aprobado en la Asamblea de Municipios vascos de Estella (Navarra) el 14 de junio de 1931, introduciéndose algunas enmiendas, particularmente una alusiva al derecho de la región autónoma para concordar con la Santa Sede.

Esta propuesta chocó con el articulado de la nueva Constitución republicana que atribuía tal facultad de establecer Concordatos con Roma al Estado central. Esta contradicción obligaba, pues, al autonomismo vasco a revisar sus coordenadas político-religiosas, lo que dio lugar a la crisis del «Bloque Vasco-navarro».

Durante los primeros meses de 1932 se elaboró de nuevo el Proyecto estatutario, de acuerdo con las pautas constitucionales. En junio de dicho año, Navarra aparentemente rechazó el mismo (hecho histórico que ha sido probado recientemente como falso y manipulado). Las tres provincias de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya debieron, entonces, retocar el texto, que fue aprobado en Vitoria (6 de agosto de 1933) por los municipios vascos y plebiscitado el 5 de noviembre de 1933, aprobándose el mismo con el 84% del censo electoral. De este modo, el Proyecto quedaba a disposición de las Cortes españolas.

El acceso al Poder de la derecha (radicalismo y CEDA) dio lugar a una prolongada demora en el seno de la Comisión parlamentaria de Estatutos, demora que se alargó a causa del enfrentamiento entre la Generalitat catalana y el Gobierno central (problema de la inconstitucionalidad de la Ley de Cultivos, en junio de 1934), y la represión que siguió al levantamiento armado de las izquierdas (octubre de 1934).

El desencanto sufrido por el PNV (Partido Nacionalista Vasco) con las derechas españolas, durante el llamado Bienio Negro (1933-35), lo alejó de aquellas y propició una mejor inteligencia con las izquierdas, que volvieron al Poder en febrero de 1936. Comenzó, así, una nueva etapa de promesas y esperanzas; pero el 18 de julio de 1936 se desencadenó el Alzamiento Nacional, dando lugar a la Guerra Civil.

Al fin, el 6 de octubre de 1936 la II República rubricaba con la aprobación del Estatuto la fidelidad republicana de Euskadi. En el breve tiempo de cinco años y medio se habían elaborado o retocado hasta cinco proyectos. Las movilizaciones populares, los enfrentamientos y colaboraciones

de los partidos, la actividad político-cultural, todo ello contribuyó al desarrollo de la conciencia nacional vasca y a una mejor matización de las posturas autonomistas de cada grupo protagonista.

LA REPUBLIQUE ESPAGNOLE ET LE STATUT BASQUE

L'histoire du statutisme basque pendant la II.^e République espagnole (1931-1936) fut hasardeuse. Le problème politique, non résolu, des autonomies politiques régionales fut un héritage reçu de la Monarchie et d'une récente histoire antiforale de la politique espagnole.

Un mois et demi après la proclamation de la République, la Société d'Etudes Basques, à la demande du mouvement municipaliste. Il fut approuvé dans l'Assemblée des Municipales Basques d'Estella (Navarre) le 14 juin de 1931, après l'introduction de certains amendements, particulièrement celui qui faisait allusion au droit de la région autonome pour se mettre d'accord avec le Saint-Siège.

Cette proposition choqua avec l'ensemble d'articles de la nouvelle Constitution républicaine qui attachait la faculté d'établir des Concordats avec Rome à l'Etat central. Cette contradiction obligeait, donc, l'autonomisme basque à revoir ses coordonnées politico-religieuses, ce qui donna lieu à la crise du «Bloque Vasco-Navarro».

Pendant les premiers mois de 1932, on élaborà à nouveau le Projet statutaire, en accord avec les normes constitutionnelles. Au mois de juin de la même année, la Navarre rejeta apparemment le Projet (fait historique qui a été récemment prouvé comme faux et manipulé). Les trois provinces d'Alava, Guipuzcoa et Biscaye durent alors, remanier le texte, qui fut approuvé à Vitoria (6 août 1933) par les communes basques, et plébiscité le 5 novembre 1933, après avoir été accepté par 84% des électeurs. De cette façon, le Projet restait à la disposition des «Cortes» espagnoles.

L'accès au Pouvoir de la droite (radicalisme et CEDA) donna lieu à un retard prolongé au sein de la Commission parlementaire des Statuts, retard qui se traîna encore à cause de l'affrontement entre la Generalitat catalane et le Gouvernement central (problème de l'inconstitutionnalité de la «Ley de Cultivos», en juin 1934), et de la repression qui suivit le soulèvement armé de la gauche (octobre 1934).

Le désenchantement subi par le PNV (Parti Nationaliste Basque) à cause de la droite espagnole, pendant le «Bienio Negro» (1933-1935), l'éloigna de cette droite et favorisa une meilleure compréhension avec la gauche, que reprit le Pouvoir en février 1936. Ainsi commença une nouvelle étape de promesses et d'espoirs; mais le 18 juillet 1936 naissait le Soulèvement National, donnant lieu à la Guerre Civile.

Enfin, le 6 octobre 1936, la II^e République signait, avec l'approbation du Statut, la fidélité républicaine d'Euskadi. Pendant le bref temps de cinq ans et demie, on avait élaboré ou retouché cinq projets. Les mobilisations populaires, les affrontements et les collaborations des partis, l'activité politico-culturelle, contribuèrent au développement de la conscience nationale basque et à une meilleure donnée des positions autonomistes de chaque groupe protagoniste.

Gaurko estatutu-gaien eta estatutuen egoera

Gurutz Jauregi

Nik ezagutzen ditudan eta, ezagutuaz, aztertze-ko posibilitatea izan ditudan estatutu edo estatutu-gaien egoeraz mintzatzera behartua aurkitzen naiz. Honekin zera esan nahi dut: Entzun dudanez, badaude hortik zehar zenbait proiektu edo aurreproiektu ezagutzen ez ditudanak, eta ahaleginak egin baditut ere, ez dut lortu proiektu horien textua.

Aldez aurreko oharpen hau eginaz, ikus ditza-gun gaurregun azaltzen diren estatutu edo estatutu-gaiak. Hiru dira azken aldi honetan azaldu diren textuak: Otxoa de Barandikak *Garaia* aldizkarian argitara emana¹; Manu Escudero eta Javier Villanuevak idatzitako *La Autonomía del País Vasco desde el Pasado al Futuro* liburuan azaltzen dena²; eta azkenik «Kimu Berri» taldeak egin duen *Euskal Autonomi Estatutu Berrirako Aurreproiektua*³.

Hona hemen textu bakoitzaren azaleko aipamen labur bat.

Otxoa de Barandikaren proiektua

Otxoa de Barandikak, «Proyecto de Estatuto para Vasconia-Euskadi» izeneko bat ateratzen du, lehen esan dugunez, *Garaia* aldizkarian; baina textu honekin batera, beste bi textu argitaratzen

ditu, aldizkari horren ale berean: bata, «Estatuto para Guipúzcoa» delakoa, eta bestea, berriz, «Proyecto de Constitución Federal» izenekoa.

Idazleak aitzinsolasean esaten digunez, bai Gipuzkoako Estatutuak, bai Euskadikoak, eta baita Estatu Federalaren Konstituzioak ere, ukaezinezko elkar erlazio koordinatu bat dute, menpetasun gabekoa, egitura federal baten barruan. Abiapuntu bezala, Estatu Unitarioa onhartzen du, eta oinharritzko hastapen honetatik federakuntzaren helburuak bilatzea, beharrezkoa ikusten du.

Hala ere, egileak esaten digunez, eta legean edo textuan besterik esaten ez bada, ahalmen osoak beheko erakundeetan egonen dira, eta goi mailako erakundeek izan behar duten boterea edo konpetentziak expresuki izendatu eta legatuak izan beharko dute.

Beste puntu aipagarri bat, hauxe da: Euskadiren ahalmen edo konpetentziak mugatzerakoan, historian zutik zirauten foruen eta azken aldi honetako lege errepresiboen bidatzerditan gelditzen da textu hau, egileak esaten digunez.

Textuaren mamia aztertu baino lehen, zera aipatu nahi nuke. Egilearen eritziz, Estatu Espainolaren barruko erregio guztiak, eskubide berdina ukan behar dute autonomia zabal bat lortzeko eta beren boterea eskuratzeko, gogo hori adierazten badute.

Mamiari dagokionez, Vasconia edo Euskadiri buruzko proiektuaz mintzatuko naiz soil-soilik, Gipuzkoa eta Estatu Federalarenak alde batetara utziaz.

Textua bederatzi ataletan banatua dago; lehenengoa atari gisa, bigarrena Euskal Errejiorearen botereetaz, hirugarrena hezkuntzaz, laugarrena lana, jabegoa, eta segurantza sozialaz, boskarrena ordenu publikoa, soldadutza eta defentsaz, seigarrena hazien-daz, zazpigarrena probintzien araudiaz, zortzigarrena Estatutuaren aldaketa edo erreformaz eta haren iraupenaren geraldiaz, bederatzigarrena azken erabaki bezala, eta azkenik bitarteko erabaki bat soil.

Teknik aldetik, zenbait akats ikusten dit textu honen barruan, eta horien artean inportanteenak, hauk lirakeke. Alde batetik, oso konkretuegia da, gehiegi zehazten ditu gai batzu, eta honela zurrunezi gelditzen da textua. Ene ustez, artikuluek askoz basikoagoak izan behar zuten, eta aztertzen diren gaiak, modu zabalago eta era funtsezko eta sakonagoan tratatu behar ziren.

Bestalde, eta honako hau litzateke akatsik nagusiena, ene

critiz, forma edo itzura aldetik, ez ditu behar bezala banatzen textuan azaltzen diren sail bereziak. Adibidez, textuaren lehenengo atala aztertuz, errazki egiazta dezakegu hau. Atal honen izenburua «Preámbulo» edo Ataria da; normalean, textu legal baten atarikoan zera, oinharritzko printzipio nagusi batzu aipatzen dira, agertzen den lege berri horren funtsa edo helburuak, eta gehienetan atarikoan azaltzen dena ez da erabaki lotzaile gisa jartzen, seinalagarri edo adierazgarri moduan baizik.

Ikertzen ari garen atariko honetan, zazpi artikulua sartzen dituen egileak. Horien artean, zazpigarrenak Euskal Errejiorearen konpetentziak eta ahalmenak markatzen ditu, hogeita hamaika apartadutan banatuak; eta, atal berean, konpetentzietatik aparte, bai ikurriñaz, eta bai euskararen eta gaztelaniaren ofizialkidetasunaz hitzegiten digu.

Bestalde, eta lehen esan dudanez, oso laboratua dago, gehiegi beharbada; eta horrek kalte handia egiten dio textuari, gisa honetako oinharri lege batek ukan behar zituen funtsezko arauak nahiko desfiguratuak gelditzen bait dira.

Javier Villanueva eta Manu Escuderoren projektua

Javier Villanueva eta Manu Escudero egin duten lana, duela zenbait hilabete argitara duten liburu berri baten barnean agertzen da. Liburuaren izena, *La Autonomía del País Vasco desde el pasado al futuro*, eta guri interesatzen zaigun lanak, zortzigarren kapitulua osatzen du, «Un proyecto de alternativa para el futuro de Euskadi» izenburuarekin.

Otxoa de Barandikak eta Kimu Berrik egindakoen alderantziz, idazle hauek ez dute projektu konkretu bat landu. Nahiago izan dute zenbait ideia aztertu, eta oinharri orokor batzu azaldu gerorako alternatiba gisa. Bestalde, oso kontutan izan behar dugu, idazle hauek Espainiako Estatuaren egoera politiko konkretu baten barnean finkatzen dutela beren lana. Honela, Errejiomena ostentzerakoan, eta «haustura demokratiko» baten bidez, normaleztapen prozesu bat hasiko litzateke une honetan bertan, bai Espainian, eta baita Euskadin ere.

Euskadik gaurregun planteatuak dituen problema eta arazoei bide jator bat eman nahi badiegu, hiru epe ezberdinetako prozesu bat behar beharrezkoa ikusten dute idazle hauek.

Lehenik, eta haustura demokratikoa lortuz, Euskadik behin-

-behineko Euskal Gobernu bat ukan beharko luke, Euskal Herrian lan egiten duten indar politiko demokratiko guztiek osatua, egitarau konkretu batekin. Behin-behineko gobernu honen eginkizunik nagusia, Euskadiren normaleztapena lortzea izanen litzateke alor guztietan: adibidez, hizkuntz alorrean, irakaskuntzan, hirigintzan, kutsaduran, lurraren espekulazioan, langintzan, sanital erakundeetan, eta abar.

Gobernu honek bere eginkizuna amaitzeko, Hauteskunde lege bat eman beharko luke eta, lege honen bidez, hauteskundeetara deitu Herri osoa, Batzarre Nagusi Eratzaile bat antolatzeko. Batzarre Nagusi hori eratzean, behin-behineko Gobernu horrek bere funtzioak utzi eginen lituzke.

Bigarren epean, Batzarre Nagusi Eratzailearen eginkizun lehenbiziko eta nagusia, Autonomi Estatutu berri bat eratzea izanen litzateke. Textu berri hau, referendum baten bidez Herriak onhartu ta gero, negoziatu egin beharko litzateke Estatu Zentralaren arduradunekin, Batzorde Parekide Bikoitz baten bidez, elkarrekiko akordio batetara ailegatuz. Akordio honetan baiez-taturiko testua izanen litzateke behin betiko Estatutua.

Idazle hauek proposatzen duten estatutuaren mamiari buruz, zera esanen nuke: gerra aurreko «Berjabetasun Araudia Euzkadirentzat», 1936. urtean onhartutakoaren, eta 1933.eko «Estatuto Plebiscitado» delakoaren bidatzerditan gelditzen da, ahalmen eta botereari dagokionez, ene eritziz behintzat. Projektu honen ardatz nagusia honetan datza: Arlorik gehienetan, Estatu Espainolaren mailako lege basiko batzu izanen lirarteke, eta lege hauk bete beharrekoak dira Estatu osoan. Adibidez, dirugintza, mugazaintza edo aduanak, irakaskuntza, legegintza soziala, banka eta arazo fiskalen plangintza, desjabeketak, nazionalkuntzak eta sozialgintzak, eta abar... Oinharritzko lege arrunt hauk onhartuaz, Euskal Gobernuak, Estatutuaren bidez, hobeagotu egin ditzake lege horik zenbait araudi osagarriren bitartez, eta hobekuntza hori, batez ere, Euskadirentzako autonomia zabal bat lortzeko bide egokia izanen litzateke.

Lehen aipatu dudanez, Villanueva eta Escuderok hirugarren epe bat jartzen dute, Euskadiren bere autoafirmatze prozesu horren bidean. Hirugarren epe hau, Euskadik autodeterminatze-ko eskubidea libreki erabiltzea eta bere etorkizuna erabakitzea izanen litzateke. Idazle hauek esaten digutenez, Herriak erabaki beharko luke eskubide erabiltze horren «noizkoa» eta «nola-koa». Hala ere, beren eritzi pertsonala aurreratzen digute, eta hauxe da: gure herriarentzat biderik jatorrena eta egokiena, Es-

painian dauden herri eta nazio guztiakin elkarturik, Estatu Federal bat antolatzea izanen litzateke.

Kimu Berriren Aurreprojektua

«Kimu Berri» taldeak, orain dela bi hilabete argitara du bere *Euskal Autonomi Estatutu Berrirako Aurreprojektua*. Textuaren sarrera edo aitzinsolas luze batetan esaten digutenez, egun Euskal Herriak planteatuak dituen premia biziei erantzuteko helburuak eta bideak jartzen lagundu nahirik sortzen da Textu hau aurreprojektu gisa, Euskal Herriko indar politiko eta erakunde sozial guztiak, azken finean herri osoak aztertuaz, dituen akatsak zuzendu eta proiektu baliotsu bat bilaka dadin.

Textu hau egiterakoan oso kontutan izan dituztela gerra aurreko testu guztiak, oharrazten digute egileek, eta sakonki aztertuak izan direla. Hala ere, bai Euskal Herrian, bai Espainian, eta baita mundu osoan ere, gertatu izan diren era guztietako aldakuntza sakonak ikusiaz, behar-beharrezkoa ikusten dute testu berri bat plazaratzea, gaurko egoerari eta zenbait arlotan eman diren aurrerabideei erantzun ahal izateko.

Kimu Berriren testua, aurrez aldeko oinharritzko definizio batzurekin hasten da. Definizio hauk erabaki lotzaile gisa jartzen dira textuan, eta estatutu-gaiaren lehen lau artikulua osatzen dituzte. Nire ustez, hauxe da, hain zuzen ere, testu honen atalik inportanteena, definizio hauetan sustraitzen bait da legegai horren mami guztia. Bereziki aipatu nahi nuke atal horretan agertzen den definizio pare bat. Adibidez, 1.º Artikuluak honelaxe dio:

«Euskaldun Herriak, gaur egun Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Nafarroa Behera, Lapurdi eta Zuberoa izeneko herrialde historikoetan ezarriak, Nazio bat osatzen du. Nazional elkarte hau aurrerabide historiko berezi baten ordorioa da batetik, duen lurralde, hizkuntza, kultura, ekonomia, eta erakunde jatorretan nabaria, eta, bestetik, elkarrekin bizitzeko nahi iraunkorrean agerturiko nazional kontzientziaren adierazpenean ongi ageria».

Bestalde, 4.º artikulua hala dio:

«Euskal Herriak beste edozein herrik bezalaxe, libreki autodeterminatzeko ezin kenduzko eskubidea du eta, hortaz, bere politik egoera eta ekonomi, sozial, eta kultur aurrerabide libreki erabakitze erakundeak sortzea ere arazo eksklusibotzat dauka. Eskubide horretaz baliatzeko, ordea, epe luze bat, askatasun demokratikoez hornitua, behar da, berorren bidez, Herriak pairaturiko

desnazionalakuntzaren ondoren, bere nazional nortasuna osorik berreskura dezan».

Oinharrizko hastapen hauk finkatu ondoan, Estatutu honen helburu eta eremuak mugatzerakoan, hala ere, penintsulako lau herrialdeetara mugatzea beharrezkoa jotzen dute. Horregatik Estatutu honek, Hego Euskadiko lau herrialdeek Estatu Espainolarekin dituzten harremanak erregulatzen ditu, soil-soilik. Arrazoi honengatik, agertzen diguten textua, behin-behinekoa eta bide gisakoa da.

Konpetentzia edo ahalmenei dagokienez, aztertu ditudan beste biak baino askoz zabalagoa dela esan dezaket. Arlo honetan ere, alde aurretiko funts edo oinharrizko deklarapen batean finkatzen dituzte Euskal Estatuaren botereak. 27.º Artikuluak honela dio:

«Euskal Estatu Autonomoari, ondoren aipatzen diren gai guztietan, legeak egin, epaitu eta aginduak betetzeko botere gorenarekin, horregatik aurrerabide politiko, ekonomiko, kulturazko eta sozial propioaren premientatik beharrezko juzka ditzakeen beste gai batzuren erregelatzea ukatu gabe».

Alde horretatik, eta gerra aurreko Estatutuekin parekatzerakoan, 1931. urtean Lizarran onhartutakoarekin antzeratuko nukerik. Lehen esan dudanez, Euskal Estatutuak, era eksklusiboz, hartzen dituen ahalmenak oso zabalak dira testu honetan. Konpetentzia eksklusibo hauetatik aparte, botere koordinatu batzuetan adierazten ditu, eta baita, Estatu Zentralari legatzen dizkio zenbait konpetentzia.

Itxura teknikoaren aldetik, hizkuntzazko alorrean izan ezik, beste sail guztietan, Oinharrizko Lege baten gisara formulatua dago, gehiegizko xehetasunak baztertuaz. Bestalde, Estatuaren atal bakoitza nahiko garbi banatua dago, kapitulu bakoitzak gai konkretu eta intererlaziotuak biltzen bait ditu.

¹ OCHOA DE BARANDICA, «Proyecto de Estatuto para Vasconia-Euskadi», in: *Garaia* 30, 24-31 or.

² ESCUDERO, M. — VILLANUEVA, J., *La Autonomía del País Vasco desde el pasado al futuro*, Txertoa, Donostia.

³ KIMU BERRI, *Euskal Autonomi Estatutu Berrirako Aurreproiektua*, 1976.

SITUACION ACTUAL DE LOS ESTATUTOS Y DE LOS PROYECTOS DE ESTATUTO

Hay varios proyectos de Estatuto en marcha. Nosotros examinaremos tres que han conocido la luz pública.

Otxoa de Barandika analiza en la revista Garaia los Estatutos de Guipuzkoa, de Euskadi y del Estado Federal, los tres estrechamente coordinados, pero sin subordinaciones mutuas. Su proyecto queda a medio camino entre los históricos fueros y las leyes represivas de la última época. El texto se divide en nueve secciones. El trabajo es muy concreto, excesivamente detallado a veces. Un proyecto debe abordar el problema de una manera más amplia, fundamental y básica. Las secciones no están suficientemente diferenciadas.

M. Escudero y J. Villanueva han dedicado el octavo capítulo de su obra «La autonomía del País Vasco desde el pasado al futuro» a este problema: «Un proyecto de alternativa para el futuro de Euskadi». No es tanto un proyecto preciso y elaborado, sino el examen de algunas ideas y de algunas bases generales, con evidente incidencia del momento político del Estado español. Trazan en tres fases el itinerario a recorrer que va desde la ruptura democrática y el Gobierno provisional de Euskadi, pasando por el Nuevo Estatuto de Autonomía, el referendun y la negociación con el poder central hasta al autodeterminación de Euskadi y la constitución del Estado Federal con los demás pueblos y naciones de España. Referente a las competencias y poderes, este proyecto queda entre los Estatutos de 1933 y de 1936. La mayoría de ellos son del orden del Estado español, quedando para el Gobierno vasco algunas mejoras.

El tercero de los proyectos conocidos es en realidad un anteproyecto: «Un anteproyecto para el nuevo Estatuto vasco» del grupo ad hoc Kimu Berri. Es un ensayo de adaptación a la nueva situación de la realidad del País Vasco, tras el estudio de los textos de la anteguerra. Las definiciones más fundamentales están configuradas en cuatro artículos, donde se explicitan los principios. Concede muchos más poderes y competencias al Poder vasco que los otros dos proyectos. Puede parangonarse al Estatuto de Estella del 31. El Estado vasco gozaría de muchos poderes y derechos delegando algunos de ellos al Estado central.

ETAT ACTUEL DES STATUTS ET PROJETS DE STATUTS

Il y a plusieurs projets de Constitution en marche. Ici nous en examinerons seulement trois, les trois connus du public.

Otxoa de Barandika analyse dans la revue Garaia les Statuts de Guipuzkoa, d'Euskadi et de l'Etat Fédéral, tous les trois étroitement liés, mais non subordonnés l'un à l'autre. Son projet reste à mi-chemin entre les «fueros» historiques et les lois répressives de la dernière époque. Le texte est divisé en 9 sections. Il s'agit d'un travail très concret, parfois détaillé à l'excès. Nous pensons qu'un projet doit poser le problème d'une façon plus vaste, fondamentale et essentielle. Par ailleurs, les sections ne sont pas suffisamment différenciées.

M. Escudero et J. Villanueva ont écrit le huitième chapitre de leur ouvrage «L'autonomie du Pays Basque du passé au futur» sur ce problème: «Un projet d'alternative pour le futur de l'Euskadi». Il s'agit moins d'un projet précis et élaboré que de l'examen de certaines idées et de quelques

bases générales, avec une évidente incidence du moment politique de l'Etat espagnol. La route à parcourir aurait trois phases qui iraient de la rupture démocratique et du Gouvernement provisoire d'Euskadi, en passant par la Nouvelle Constitution d'Autonomie, le référendum et la négociation avec le Pouvoir central jusqu'à l'autodétermination d'Euskadi et la constitution de l'Etat Fédéral avec les autres peuples et nations d'Espagne. En ce qui concerne les compétences et pouvoirs, ce projet s'arrête entre les Statuts de 1933 et de 1936. La plupart de ces pouvoirs sont du ressort de l'Etat espagnol, ne laissant au Gouvernement Basque que quelques retouches et améliorations à apporter.

Le troisième de ces projets est en réalité un avant-projet: «Un avant-projet pour le nouveau Statut basque», élaboré par Kimu Berri. Il s'agit d'un essai de réadaptation à la nouvelle réalité du Pays Basque, qui vient après l'étude approfondie des textes d'avant-guerre. Les définitions et les principes les plus fondamentaux sont développés en quatre articles. Ce projet accorde beaucoup plus de pouvoirs et de compétences au Pouvoir basque que les deux autres. On peut le mettre en parallèle avec le Statut de Estella de 1931. L'Etat basque jouirait de beaucoup de pouvoirs et de droits et en déléguerait quelques-uns au Pouvoir central.

Bibliografia

Obarra. Kasu ttipiren bat edo beste kenduz gero, bibliografia hau aukeratzean, irakurlearen erosotasunari begiratu diogu. Hau da, gaurregun liburudendetan dauden argitalpenak gogoratzen ditugu batez ere. Errepublikara garaiko euskal liburuetarako esku-zabalago ere izan gara. Hala ere, ez daude hemen denak, ez derrigorrez onenak ere; baina bai errazki idoro daitezkeenak. Dena dela, lehenengo ekinaldi batetarako, aski lagungarri ukanen du lehenengo horretara doan irakurle kezkatuak.

1. Euskal Foruak

- DIAZ DE ARCAYA, F.: *La Constitución Foral alavesa*. RIEV, 1932.
- ECHEGARAY, C. de: *Compendio de las Instituciones Forales de Guipúzcoa*. Diputación de Guipúzcoa. San Sebastián, 1924.
- ELIAS DE TEJADA, F.: *El Señorío de Vizcaya*. Minotauro. Madrid, 1963.
- ELIAS DE TEJADA, F.; PERCOPO, G.: *La Provincia de Guipúzcoa*. Minotauro. Madrid, 1965.
- HARISTOY, Abbé: *Nobleza y Fueros Vascos: Laburdi*. Auñamendi. San Sebastián.
- MADRAZO, P. de: *Historia y Fueros del País Vasco-navarro*. Auñamendi. San Sebastián, 1973.
- MARICHALAR, E.; MANRIQUE, C.: *Historia de los Fueros de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Alava*. Auñamendi. San Sebastián, 1971.
- MONREAL, G.: *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el siglo XVIII)*. Diputación de Vizcaya. Bilbao, 1974.
- NUSSY SAINT-SAENS, M.: *Le País de Soule*. Bordeaux, 1955.

ORTIZ DE ZARATE, R.: *Compendio Foral de Alava*. Inst. «Sancho el Sabio». Vitoria, 1971.

VARIOS: *Nuestros Fueros. El proceso político vasco*. Eset. Vitoria, 1977.

* * *

ARPIDE, F. J.: «El juramento foral», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 39, 39 or.

EIZAGIRRE-GARAÍKOA, J. M.: «Foruak zer diren», in: *Anaitasuna* 321, 5 or.

GARATE, J.: «Herri-Foruak», in: *Z. Argia* 676, 14-15 or.

KAIERO, A.: Eibarren emandako hitzaldiaren laburpena, in: *Z. Argia* 678, 22-23 or.

LETE, X.: «Foruak eta bertsolaritza», in: *Z. Argia* 696, 30-31 or.

MONREAL, G.: «Hego euskaldunen Foru boterea», in: *Z. Argia* 696, 7-19 or.

X. X.: «Foruak, Ipar aldean», in: *Anaitasuna* 321, 17-18 or.

X. X.: *Anaitasuna* 321, ale osoa.

X. X.: *Z. Argia* 696, ale osoa.

2. XIX. mendea eta Foruen deuseztapena

AMEZAGA, E.: *1.000 años con Fueros y 100 sin...* La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1976.

ANGULO, J. M.: *La abolición de los Fueros e Instituciones vascongadas*. Auñamendi. San Sebastián, 1976. 2 liburuki.

ESTORNES ZUBIZARRETA, I.: *Carlismo y abolición foral. En torno a un Centenario (1876-1976)*. Auñamendi. Donostia, 1976.

FERNANDEZ ALBALADEJO, P.: *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa, 1766-1833: cambio económico e histórico*. Akal Editor. Madrid, 1975.

* * *

AIESTARAN, J. A.: «Orain dela ehun urte. Euskal Foruen deuseztapena» (Eibarko hitzaldi baten laburpena), in: *Z. Argia* 677, 19 or.

ALVAREZ ENPARANZA, J. L.: «25 de octubre de 1939. Los vascos, carne de cañón», in: *Garaia* 10, 40-41 or.

ANATSAN: «Karlismua eta Foru suntsiera», in: *Z. Argia* 692, 30-31 or.

AYESTARAN, J. A.: «Foruak: Karlistak eta Liberalak», in: *Anaitasuna* 321, 15-16 or.

AYESTARAN, J. A. eta ESTORNES ZUBIZARRETA, I.: «Ante un centenario. 1876-1976», in: *Garaia* 10, 24-45 or.

- BIDEGORRI, B.: «Bi mende», in: *Anaitasuna* 321, 19 or.
- CABALLERO, K.: «25 de octubre 1939-1976», in: *Garaia* 9, 27 or.
- GARAIKOETXEA, K.: «Nafarroako Foru esperientzia» (Hitzaldi baten laburpena), in: *Z. Argia* 678, 21-22 or.
- INTXAUSTI, J.: «Euskal Foruak Espainiako Gorteetan», in: *Anaitasuna* 321, 13-15 or.
- KINTANA, X.: «Agustin Xaho karlistadan», in: *Anaitasuna* 321, 22 or.
- LERTXUNDI, A.: «Foruak eta euskal literatura», in: *Garaia* 0, 52-53 or.
- X. X.: «Foruen urtea ote?», in: *Z. Argia* 683, 19-22 or.
- X. X.: «Karlismoaren gora-beherak. 150 urteko historia batez», in: *Z. Argia* 737, 18-19 or.
- X. X.: «1876-1976. Ehun urte forurik gabe», in: *Anaitasuna* 321, 3 or.

3. Kontzertu Ekonomikoak eta Estatutuak

- AGUIRRE Y LEKUBE, J. A.: *Entre la libertad y la revolución (1930-1935)*. GEU. Bilbao, 1976.
- ANIEL QUIROGA, J. M.: *Descentralización local e integración regional. Conferencia en torno al estatuto vasco*. Bilbao, 1931.
- ARRESE, D.: *El país vasco y las constituyentes de la segunda república*. Madrid, 1931.
- ARTOLA, M.: *Partidos y programas políticos. 1808-1936*. Dos volúmenes. Madrid, 1974.
- AZAOLA, J. M.: *Vasconia y su destino. Los vascos ayer y hoy*. Dos volúmenes.
- BALPARDA, G.: *El estatuto vasco y la república española*. Bilbao, 1933.
- BALPARDA, G.: *El porvenir de la villa, plaza y puerto de Bilbao y el estatuto vasco*. Bilbao, 1933.
- BASALDUA, P.: *El estatuto vasco y la República española*. Bilbao, 1933.
- CASTELLS, J. M.: *El estatuto Vasco*. L. Haranburu-Altuna Ed., San Sebastián, 1976.
- CILLAN, A.: *Sociología electoral de Guipúzcoa. (1900-1936)*. San Sebastián, 1975.
- COMISION DE CULTURA VASCA (J.M.C.-I.E.Z.): *Historia de los Estatutos Vascos de Autonomía*. Interprofesional de Estudios y Publicaciones. San Sebastián, 1976.
- FLORRIETA, F.: *La constitución de los proyectos de estatuto vasco y el régimen de conciertos económicos*. Bilbao, 1932.
- FSCUDERO, M.; VILLANUEVA, J.: *La Autonomía del País Vasco desde el pasado al futuro*. San Sebastián, 1976.
- ESTEVEZ RODRIGUEZ y otros: *Cultura vasca*. Vol. I. San Sebastián, 1977.

- EUSKADIKO JAURLARITZA: *La gestión del gobierno de Euskadi desde 1936 hasta 1956*. París, 1956.
- E.U.T.G.-ko *euskal hamabostaldia. Euskal-herria 1900-1936*. Curso 1976-1977. San Sebastián.
- JIMENO JURIO, J. M.: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Pamplona, 1977.
- KIMU BERRI TALDEA: *Euskal Autonomi Estatutu berrirako Aurreprojektua. Anteproyecto para un nuevo Estatuto de Autonomía*, s. 1., 1977.
- LANDABURU, J. F.: *Estatuto vasco. Estudio jurídico sobre la existencia de la comunidad de ayuntamientos alaveses*. Bilbao, sin fecha.
- LARRINAGA, F.: *Alcance y contenido del estatuto vasco*. Bilbao, 1931.
- MUGARZA, D.: *El decenio crítico. La política y la guerra en el País Vasco entre 1930-1940*. Oñate, 1974.
- ORIOI, J. y otros: *Alava en el momento actual*. Vitoria, 1933.
- ORUETA, G.: *Fueros y autonomía. Proceso del estatuto vasco*. San Sebastián, S. F.
- RAMIREZ, M.: *Los grupos de presión en la segunda república española*. Madrid, 1969.
- SARRAILH de IHARTZA: *Vasconia*. 2.ª edición. Buenos Aires, 1973.
- TUSSELL, G.: *Historia de la democracia cristiana en España*. Vol. 2.º Madrid, 1974.
- ZAVALA, F. de: *De los Fueros a los Estatutos. Los Conciertos económicos*. Sociedad Guipuzcoana de Publicaciones. San Sebastián, 1976.
- ZUBELDIA, N.: *Los estatutos en el actual momento crítico de Navarra*. Pamplona, 1931.

* * *

- CASTELLS, J. M.: «Kontzertu ekonomikoak eta Autonomi Estatutoak», in: *Z. Argia* 696, 21-28 or.
- DEUSTUAR: «Escudero Kontzertu Ekonomikoari buruz», in: *Z. Argia* 676, 15-17 or. (Bilbon hark emandako hitzaldiaren laburpena).
- JOSEBA: «Alava: un siglo de concierto sin juntas soberanas», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 18, 7 or.
- LASA, J. M.: «Gipuzkoa eta Estatuaren arteko diru harremanak», in *Z. Argia* 721, 4-5 or.
- SAMANIEGO, L. de: «Sobre el concierto económico de Araba», in: *Garaia* 17, 25 or.
- X. X.: «Concierto económico o fueros». in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 1, 2-6 or.
- X. X.: «Concierto económico. Un concierto en NO mayor» (M. Escudero Ruedarekin elkarrizketa), in: *Garaia* 00, 37-38 or.

ZUBIRI, X.: «Alava ante el concierto económico. Ni fraude ni paraíso», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 4, 10-11 or.

* * *

- ANTXON: «Alava: Juntas Generales sin función foral», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 5, 6-8 or.
- ARANBERRI: «1931-1933-1936. Euskal Herriaren hiru Estatutoak», in: *Z. Argia* 688, 20-21 or.
- ARBELOA, V. M.: «Navarra ante el Estatuto de Autonomía (1916-1932)», in: *Berriak* 19, 30-31 or.
- ARISTA: «La financiación de la Autonomía. Una aproximación (I)», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 35, 44 or.
- AZAOLA, J. M. de: «Nacionalismo y Federalismo», in: *Berriak* 14, 22-23 or.
- BELTZA: «Gaurregungo Estatuto bat», in: *Z. Argia* 728, 3-4 or.
- HUALDE, A.: «Viaje a los Estatutos de la República (entrevista a J. M. Jimeno Jurío)», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 11, 8-11 or.
- JIMENO JURIO, J. M.: «Autoridades Provincial y Foral», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 26, 24-27 or.
- JIMENO JURIO, J. M.: «La reintegración foral 1917-1919», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 29, 46-49 or.; 30, 24-27 or.; 37, 26-30 or.; 38, 26-30 or.; 39, 32-36 or.; 40, 26-30 or.; 41, 26-30 or.
- JIMENO JURIO, J. M.: «República y Autonomía Foral», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 23, 24-28 or.
- JULEN K.: «Burujaetza ala Federalisma espainiatarra», in: *Z. Argia* 725, 12-13 or.
- LIZUNDIA, J. L.: «Foruak gaurkotzeko zenbait baldintza», in: *Anaitasuna* 321, 10-12 or.
- MARTINEZ GARATE, L. M.: «El Carlismo: esbozo de una trayectoria en cuarenta años», in: *Garaia* 29, 28-32 or.
- MUNIAATEGI, A.: «Foru burruka, gaur», in: *Anaitasuna* 321, 20 or.
- ODRIOZOLA, J. M.: «Abertzaletasuna=Nazioa, Estatua», in: *Z. Argia* 728, 3 or.
- OTIA: «Controvertidas juntas», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 321, 23 or.
- SANTAMARIA ANSA, K.: «Autonomia eta Paktoa», in: *Z. Argia* 679, 4 or.
- URRAKA: «Febrero de 1936: las últimas elecciones en Euskadi (sur)», in: *Garaia* 24, 22-26 or.
- VILLANUEVA, J.: «La autonomía desde la izquierda vasca», in: *Berriak* 24, 8 or.
- X. X.: «Autonomia Estatutu berria», in: *Anaitasuna* 335, 3 or.

- X. X.: «Declaración de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País», in: *Garaia* 0, 49-51 or.
- X. X.: «El Estatuto hoy», in: *Garaia* 5, 30-34 or.; 6, 29-35 or.
- X. X.: «Estatuto de 1936: sus protagonistas», in: *Garaia* 2, 4-6 or.; 3, 6-8 or.; 4, 4-6 or.; 5, 6-8 or. Protagonista horiekin (hots: Koldo Mitxelena, Luis Ruiz de Agirre, Manuel de Irujo, Agustín de Zumalabe) elkarrizketa.
- X. X.: «Estatuto del 77», in: *Berriak* 24, 6-7 or.
- X. X.: «Estatuto General del País Vasco» (testua), in: *Z. Argia* 703, 19-23 or.
- X. X.: «Foru berriak» (zenbait alderdiri inkesta), in: *Anaitasuna* 321, 6-9 or.
- X. X.: «Foruak, Estatutoa, Bakea», in: *Z. Argia* 688, 4 or.
- X. X.: «Gasteiz eta Estatutoa», in: *Z. Argia* 725, 1 or.
- X. X.: «Los Estatutos en la historia», in: *Berriak* 26, 12 or.

4. Autonomiari buruzko liburu espainolak

- AUMENTE, J.: *Regionalismo andaluz y lucha de clases*. Granada, 1976.
- BOZZO, A.: *Los partidos políticos y la autonomía de Galicia. 1931-1936*. Madrid, 1976.
- CARBALLO, A.: *Canarias, región polémica*. Madrid, 1972.
- CORES, B.: *El Estatuto de Galicia (actas y documentos)*. La Coruña, 1976.
- CUCO, A.: *Estatutismo y valencianismo*. Valencia, 1976.
- FERRANDO BADIA, J.: *Formas de estado desde la perspectiva del estado regional*. Madrid, 1965.
- GARCIA DE ENTERRIA, E.: *La administración española*. Madrid, 1964.
- GARRIDO FALLA, F.: *La descentralización administrativa*. Costa Rica, 1967.
- GONZALEZ CASANOVA: *Federalismo i autonomía a Catalunya (1868-1938)*. Barcelona, 1974.
- LARUMBE BIURRUN, P. M.: *La región. Aspectos administrativos*. Madrid, 1973.
- LLORENS, E.: *La autonomía en la integración política*. Madrid, 1932.
- MARTIN MATEO, R.: *El horizonte de la descentralización*. Madrid, 1969.
- MARTIN RETORTILLO, S. y otros: *Descentralización administrativa y organización política*. Madrid, 1973.
- RUBIALES, A.: *La región: Historia y actualidad*. Sevilla, 1973.
- VALERA, S.: *El problema regional en la segunda República española*. Madrid, 1976.
- VILAS NOGUEIRA, X.: *O estatuto Galego*. La Coruña, 1975.

TORNE JIMENEZ, J. C.: *Ensayo de una administración regional en España*. Granada, 1972.

* * *

AVANCE-INTERVENCION. Número dedicado a la autonomía. N.-2.

CUADERNOS ARAGON - N.º 1. *Caspe: un estatuto de autonomía para Aragón*. Zaragoza, 1977.

DOCUMENTACION ADMINISTRATIVA. Número monográfico dedicado a la región. N.º 169. Madrid, Enero-Marzo 1976.

DOCUMENTACION SOCIAL: Regionalismo y desarrollo regional. N.º 16. Octubre-Diciembre, 1974.

DEIA, Euskal Herriko lehen egunkaria

1977ko ekainaren 8a, egun gogoangarria izanen da. Gerra ondoko Euskal Herriko lehen egunkaria sortu zen eguna.

Bagenituen, eta baditugu oraindik, Euskal Herri osoan (Ipar eta Hego) zortzi goizeko egunkari. Baina gure arteko berririk jakin nahi izanez gero, Madrila eta Parisa jo behar zenuen, edo gauez, klandestinitate giro batetan, atzerriko irratiak sintonizatzen leher gaizto egin, edo aste bete geroago *Cambio 16* edo antzeko aste-kariren bat eros, edo euskal aldizkariren bat irakur.

Lehen aipatu egunkariak, erdaldunak izateaz gain, ezaugarri batbera zuten: Madrilgo gobernuaren bozgorailu izatea. Helburu horrek markatzen zuen informazio politika osoa. Xede hori beteaz gero, taktika guztiak ziren onak. Gertaerak isildu, ukatu; zurrumuru faltsok letra handitan zabaldu, hurrengo egunetan txokoren batetan gezurtatzeko; gertakarien bertsio ofizialak bakarrik eman; berriak eman bai, baina nolabait ezkutatzeko asmoz eman. Hitz batez: informaziorik eza, informazio deformatua, faltsua, ezkutatua edo benetakoa, baina beti Madrilgo begiez ikusitakoa. Guzti hau tamaina desberdinetan, lotsagabe eta nabarmen edo disimuloz eta elegantzia apur batez egiten zen. Patologikoa bihurtu zen *La Voz de España* Zuloagaren zuzendaritzapean. Boikotarekin otdaindu zuen Euskal Herriari egin zion iraina, eta honen bizkarretik egin zituen irri eta barre histerikoak.

Informazio zulo hori betetzera dator *Deia*. Eta xede berbera du, noski, udazkenean kaleratuko zaigun *Egin*-ek. Euskal Herriko ikuspegitik Euskal Herriari bertako eta kanpoko berriak zintzo eman.

Ikuspegi desberdin eta kontrako hauk ederki isladatzen dira egunkariaren egiturari. *Deia*-k zortzi orrialde ematen dizkio «Euzkadi» sailari; eta bertan Euskal Herri osoa, Ipar eta Hego, hartzen du. Beste egunkariak ez dute Euskal Herri osorik eta guttiago Euskal Herri bezala hartzen. Herri honek ez du esistitzen. Probintziak daude aurrena, eta eskualdea gero. *La Gaceta del Norte*-k, adibidez, Bizkaiko edizioan, lau orrialde ematen dizkio «Vizcaya»-ri eta hiru «Regional»-i. Azken sail honetan sartzen ditu Burgos, Santander, Logroño eta hegoaldeko euskal lau probintziak. *El Diario Vasco*-k orrialde bat ematen dio Donostiari; «Guipúzcoa, hombres, y problemas» bat; bailara bakoitzeko herrietako kronikei, bat. «Región» sailarekin garbitzen ditu gainerako Euskal Herriarekiko

kontuak. Sail hau «Madrid Capital» sailaren ondoan doa; neurri berdintsua du: orrialde laurden bat; eta azken honi baino tratu apalagoa ematen diote.

Kantitatezko aldea handia bada, kalitatezkoa argiagoa da oraindik. Baina analisi sakon bat egiteko tokia ez da hemengo hau.

Deia-k biziki poztu gaitu. Ez bakarrik euskarak ere bere tokia duelako. Euskal Herriaren arazo politikoak eta kulturalak hemendik aurrera eguneroko berri izaterik baduelako baizik. Gaurtik, Euskal Herriaren berri jakin nahi duenak, *Deia* eskutan hartu beharra dauka. Ez euskaldunak bakarrik, baita erdaldunak ere.

Ez noa *Deia*-ren kritikarik egitera. Zer esanik egongo litzateke inprenta hutsei buruz, interviu formulari ematen zaion garrantziaz, nazioartekoari eta deporteari ematen zaion tokiaren desproporzioari buruz, presentapen garbi eta argiari buruz, egitura egokiari buruz, etab. Zihur gaude ibiliaren ibiliz akatsak zuzenduz joan direla.

Horretarako indartu beharra dauka. Publizitatea ugari etor da kiola opa diogu. Eta *Egin* jaio dadincan, izan daitezela ez etsai eta bai elkarren zirikatzaille. *Deia*-k eta *Egin*-ek ez dute erabat euskarazko izaterik. Halaz ere, 1977 urtea «Euskal egunkarien urtea» deitzeko arrazoi eman digute. ■ *Manolo Pagola*.

Loiolako Irrati berritua: aukera galdu bat?

Jadanik ezaguna denez, ekainaren 11an «ezezagun» batzuk ahotsik gabe utzi zuten Loiolako Herri Irratia, Itxumendiko Zentroa descginaz. Ez da ahotsik gabe gelditu den lehen aldia: Fraga ministro zelarik ere, 1964etik 1966ra ez zuen lan egiterik izan. Geroztik ere jasan izan ditu bereak eta bost, gainerako euskal informabideen antzera. Oraingo honetan, ostera, normalago mintzatzeko eskubidea dagoen honetan, legez kanpoko ekintza baten bidez isiltzen dute atzera Loiolako Herri Irratia.

Loiolan gertatuak min eman du Euskal Herrian. Euskal irratigintzan gehien egin duena bera izan bait da. Guztiok dakigu zein egoera tristea den gure arteko irratiena. 18 irrati emangailu ditugu Euskal Herrian, horietatik guti batzu besterik ez gure herriaz arduratzen direnak: Herri Irratiak, alegia, Loiolakoa, Donostiakoa eta Bilbokoa. Denetan aintzindari, Loiolakoa.

Derrefente ikusi da ekintza horren kontrako herriaren arropotua. Zer ez da egon, eta egongo?: kaleko eskeak, jaialdiak, artisten eskaintzak, haizkora jokuak, eranskailuak, eta abar. Herria berekin duela ikusi dute Loiolako Irratiiko langileek. Aurrerantzean lanari ekiteko, a zein bultzada jasoko zuten oraingoan. Herriaren laguntza hori, irratia jasotzeko eta berritzeko aukera cderra da.

Hutsune bat bezala sentitzen dut, hala ere, arazo honen in-

guruan. Hots, ez da planteamendu berririk egin. Megaziklo batzu gorabehera, aurrekoari eutsiz jarraituko du Loiolako Herri Irratiak. Ez al zitekeen pentsa, esate baterako, Loiolako eta Donostiako Herri Irratiak bat eginaz Euskal Herrirako Irrati on bat eratzeari? Programa zenbait bateratsu egitea ez da aski, oinbarrizko ajearekin jarraitzen bait dugu, hots, Euskal Herri osorako hedaturarik ez duela batek ere. Bakoitza, berrikuntzan ere, bere aldeetik ibili beharrean, bat egin eta irratetxe indartsu bat sortzea posible dela, eta agian oraindik posible dela, sinetsi nahi dut.

Holatsuko planketa baterako laguntza eska zekiokkeen herriari. Erantzun-puntta bat, herriaren emankortasun honetan ikusi dugu. Herriaren eta zenbait erakunderen laguntza zihurtaturik izan zitekeen, hauzia argi eta garbi plazaratu izan balitz. Ez dut holako asmoren berririk. Ez saiatu izatean dagoke errua. Aukera alferrik galdu bat agian? ■ *Joan Altzibar.*

C. I. E. M. E. N.

Gutiengo Etniko eta Nazionalen alde

Orain dela urte t'erdi sortu zen CIEMEN (Centro Internazionale Escarré sulle Minoranze Etniche e Nazionali), Kultur asoziazio bezala. Estatutuen 2. artikulua dioenez, bi asmo eta helburu nagusi ditu asoziazioak: a) Gutiengo etniko eta nazionalen arazoak hobeto ezagutaraztea; b) Gutiengo horik legez, politik-, gizarte- eta kultur mailan berrezagatuak izan daitezten laguntzea.

Bere etxe nagusia Milano-n jarri du Asoziazioak. Baina bere internazionaltasunari atxekiz, dagoeneko idazkaritza bat irekia du Ipar Catalunyan, Sant Miquel de Cuixà-n hain zuzen ere.

Gutiengo etnikoek eta nazionalak, herri direnez, «erakusten dituzten desberdintasun historikoak, kulturazkoak, etab. —dio CIEMENek bere aurkezpenean—, funtsezko ekarriak dira, gizadi zuzenago eta anaikorra goa eratzeko. Hala ere, oso nabariak diren arrazoinengatik, 'gutiengoek' ez dute beren buruak agertzeko eta beren eskubide utzeginak errebindikatzeko aski tresna».

Hiru mailatan egiten du lana batez ere CIEMENek: Dokumentazio zentru bezala, informakuntz organismo bezala, eta elkartopaketan une bezala.

«Minoranze» Aldizkaria

Asoziazioak *Minoranze* («Gutiengoak») Aldizkaria argitaratzen du. Italicraz; baina katalanezko eta frantsesezko laburpen eta guzti. Gai nagusiren bat erabiltzen du zenbaki bakoitzak; gchienetan nazio

ukatu edo gutiengoren baten aurkezpena egiten du: bertako ekonomi, kultur, gizarte eta politik arazoak azalduz, etab.

Beste sail garrantzizko bezala *Agiriak* izenekoa du, Gutiengoen aldeko edo Gutiengoen beraien hainbat agiri ematen dituena. Azkenik, Asoziazioaren beraren ekintzen kronika ematen du.

Laster datozenetako zenbaki bat Euskal Herriari buruz argitaratzekoa da. Honelako aldizkaritan, eta Europan behintzat, bakarra dela uste dut, zuzen-zuzenean eta bakarrik Nazio ukatuei eta Gutiengo etnikoei buruz ari dena. Benetan haintzakotzat hartzekoa dela esango nuke.

Nazio ukatuen hauzitegi herritarra

1976ko abuztuak 22-29 bitartean mintegi bat antolatu zuen Asoziazioak Sant Miquel de Cuixà-n. Gaia: «Nazioarteko legetza eta gutiengo etnikoak».

Mintegiaren ondorio bezala, eta eskuhartu zutenek denek batean, *Nazio ukatuen aldeko nazioarteko justizi hauzitegi herritarra* eraikitzea erabaki zuten.

Hiru arrazoin jartzen dituzte Hauzitegia eraikitzearen oinharri bezala:

1. — Nazio ukatu gehienek dituzten egoera juridikoa, sozio-politikoa eta kulturazkoa;
2. — Estatuak landuriko eta ezarririko nazioarteko legetzak ez diela nazio ukatuei beren erreibindikapenak aurrera eramateko zirrizturik ematen;
3. — Nazio ukatuak eskubide estatal eta nazioartekoez gabeturik daudela, eta horregatik ezin dituztela beren justizi eta askatasun asmoak bideratu.

Hauzitegia osatzeko gizonak, Nazio ukatuetako milioika gizonak jasaten duten egoera horretaz jabeturik daudenak izango dira. Beraien izango dira nazionalitate horien ordezkari, munduaren aurrean eta bereziki Estatu zapaltzaileen aurrean, Nazio ukatuen zapalkuntza salatuko eta horien eskubideak nabarmeneraziko dituztenak.

Asoziazio hau, oraindik hasi berria bada ere, garrantzi handikoa izan daitekeela uste dut, Europa mailan batez ere. Eman dituen urratsak tinkoak izan dira. Europako (eta munduko) Nazio ukatu eta Gutiengo guztietara hedatzea beharrezkoa da, hauen kontzientzia pizteko edota horien burruka aurrera bultzatzeko.

Euskaldunoi dagokigunez, gure askatasun burruka eta gure nazio erreibindikapenak ezingo ditugu bakarrik aurrera eraman; Europa osoko eta munduko Herri zapalduen, Nazio ukatuen eta Gutiengo baztertuen burrukak bateraturik joan behar du. ■ *P. Kortabarria.*

Zientzi euskara

Martzelino Aizpurua

Ez da txantxetakoa euskarak normaleztapen bidean eman behar duen pausoa: erakunde sozial eta politikoen aldaketaz beste, bere baitan aurkitzen bait du ezinik franko. Guztion eza-gun baten hitzak hartuz, «nor mintza euskaraz fisika nuklearrak», malkoen ordeztan izerdi tantak isuri gabe? Eta adibide berarekin jarraituz, bide luze eta zabala urratu badu ere Fisika Nuklearrak, ez du euskara lagun izan ibilera horretan; baina orain abiatuak gara, urduri eta herstu, historiaren trenak aldegin ez diezagun.

Euskara berritu eta moldatu nahirik gabiltza, euskara eta irakaskuntza osoa; horregatik oihukatzen dugu *Euskal Unibertsitatea*; eta biek dute arazo berbera: ez dakigula zer izanari diren; egiteko daude Unibertsitatea eta bertan erabiliko den euskara.

Honoko lantxo hau, Lexoako Unibertsitatean, Urtarrilaren azkenean, «Euskal Unibertsitatea eta Euskara» gaiak egin zen mahaingururako gertatu nuena da, argitaratzeko apur bat aldatu eta zenbait puntutan osatua.

I. HIZKUNTZ MAILAK

Egunero ikus dezakeguna da, ez dugula berdin hitzegiten lagun artean eta publiko baten aurrean; ustekabez sarritan,

maila batzu bereizten ditugu hizkuntza bat berean, eta une eta egoera desberdinetara moldatzen. Lau maila nagusi bereiz gaitzake: Ikertzapen-, Unibertsitate-, Eskola- eta Herri mailak. Piramide gisara antola daitezke lau maila hauk, Herri maila funtsean delarik eta Ikertzapenezkoa erpinean. Behetik gora, landuagotuz doa hizkuntza. Maila bakoitzekoak, bere gertuenekoekin du harremanik gehien, eta goienekoen bitartez egiten dira batipat inguruko beste hizkuntzekiko harremanak.

Edozein gizarte aurreratu eta normaldutan ematen dira lau maila hauk, gizarte batetik bestera haietako bakoitzaren garrantzia aldatzen delarik. Euskararen kasuan, ia beheeneko mailan aurkitzen gara, Eskolaren mailan lan haundiak egiten ari garelarik, eta Unibertsitatekoan bideak urratzen hasten baino ez. Orain ikastoletatik irteten diren haurrek, osatua dute guk ez genuen maila bat, guk ez genuen maila horretako «batuketa» bera ere ikasi.

A. IKERTZAPEN MAILAKO HIZKERA

Maila honetako hizkuntza mintzatua, kongresu, sinposium elabarretan agertzen da, eta ikertzapen aldizkarietan idatzizkoa. Hemen idatzizkoari buruz arituko naiz. Esan beharrik ez dago, gaurregun ez dugula maila honetan euskararik ikusten. Ez gara bakarrak; hizkuntza normaldu franko ere ez da agertzen, eta ez noski nazio horietan ikertzapen lanik egiten ez delako, argitaratzen ez delako; beste hizkuntzetan argitaratzen dituztelako baino, ingelesez batipat.

Ingelesaren garaipena ez dago noski hizkuntza honek duen gaitasunean, babesten duen indar politiko eta finantziaketa indar ekonomikoan baizik. Denbora batez iraunen du, baina ez da betirako izango, latina izan ez zen bezala. Errusia, Txina, Hego Ameriketa, Arabe Herriak hor ditugu, eta hauetatik aterako diren zientzilariek eta lagun izanen duten eragin ekonomikoak alda eraz lezake oraingo dendun hori. Baina gaur ingelesa da nagusi. Zenbait zientzian, badira haren pareko erabiltzen diren beste hizkuntzak ere, alor konkretu hartan tradizio haundia dutelako, hizkuntza hartako ikertzaile asko dagoelako, etab.

Euskaldunok ere, beste nazioetakoek bezala, aukera bat egin behar dugu: «euskaraz ala ingelesez» labur daitekeena, erdibideko aukerak alde batetara utziz. Zein bata zein bestea hautatzeak, zer pentsa gogorra ezartzen digu. Ingelesez idaztea

onartzeak, gure hizkuntz irakaskuntzaren aldaketa batetara buitzatzen gaitu; aurrez, maila honetan ingelesa erabiltzeak beste mailetan ukan dezakeen eragina aztertuta gero. Euskararen aldekoa onartzeak, berriz, larriagoak dakartzala iruditzen zait. Eskubideen arazoan sartzen ez naizelarik, nongo ikertzailek irakurri behar ditu euskaraz idatzitako lanak?

Nahasmendurik sor ez dadin, ohar bat egin nahi nuke hemen, ikertzapen lanaz zer ulertzen den argituaz. Lantxo honetako zentzuan, aurren puntako ikertzapenen argitalpenak dira, zientzi mundura zerbait berririk ekartzen dutenak. Eta «zientzia» hitzaz, tradizionalki hala ulertzen direnak: Matematika, Fisika, Kimika, Biologia, Geologia, etab. Era honetako lanak idatzi, maila berdineko ikertzaileen artean, kolegen artean, elkarren berri jakin, kritikak jaso eta hipotesi berrien gain aurrera egiteko arduraz idazten dira. Unibertsitate edo Herri mailara iritsi nahi denean, tratatu, textuliburu edo maila guztietako dibulgazio aldizkarien bidez egiten dute.

Ez garela, esan dut, honelako buruhaustek dituen hizkuntza bakarra; adibide bezala, bi ekarriko ditut, frantsesa eta katalanarena.

1. — Frantsesaren egoera

Joan den irailetik hona, eztabaida bat sortu da *La Recherche* aldizkarian: «Balio ote du frantses hizkuntzak zientzi hizkuntza izateko?» Eztabaida honen muina honela laburtuko nuke: Zientzi munduan, hau sumatzen dute frantsesek:

a) Frantsesez idatzitako lanak gutxi aipatzen dira Frantziatik kanpo. Kalitate faltaz batera, hizkuntzaren errua aipatzen dute.

b) Ikertzailek onenek ingelesez argitaratzen dituzte beren lanak.

c) Irakurtzeko hainbat gauza dagoen une honetan, ez du ikertzaileak irakurtzeko zailtasunik nahi.

d) Frantses hizkuntza, bere internazionaltasuna galtzeko bidean dabil, dagoeneko galdu ez badu.

e) Ekonomi arazoa dela eta, finantziaketa alegia, ezinezkoa da bi hizkuntzatan argitaratzea eta oso-oso sona haundiko aldizkari bakarren batetan soilik gertatzen da hori.

f) Gaurregun ezin daiteke inor ikertzapen lanetan ihardun ingelesik jakin gabe.

Aurreko puntu hauk inork ukatzen ez dituela ere, bi ikus-puntutako jendea agertu da. Batetik, errealitatea hori dela jakin beturik, eta hizkuntza pribilegiatu hori frantsesa ez dela erabat etsita, ingelesari gero eta gehiago heltzen diotenena; frantsesari laborategi eta Unibertsitate mailetan toki nagusia aitortuz, eta toki hauetatik baztertua izan ez dadin arreta eta laguntza eskatuz. Bestetik, frantsesaren bazterketa, frantses kulturarentzat galera haundizat daukatena; maila horretako nagusigoa ingelesari uzten bazaio, besteetako ere bereganatuz joanen dela eta kolonizapena ekarriko duela adieraziz. Gaurko egoeraren gakoa, ikertzapenaren plangintza txarrean legoke; laguntza estatal indartsu batez ikertzapena berritzen bada, eta aldizkariak berregituratzen, frantsesa hizkuntza internazionala izanen da berriro. Ezin uka, galduriko haundikeria berreskuratu nahia nabari dela hauen eskutizetan. Guztiek aitortzen dute, laburpen luze batzu egin behar liratekeela beti ingelesez, lana frantsesez argitaratzen bada; azken eritzikoentzat, nahikoa litzateke hau.

Hona, 129 ikertzapen aldizkari argitaratzen dituen eta 230 milioi mintzatzaile dituen hizkuntza baten larria.

2. — Katalanaren egoera

Aurrekoarena baino gehiago, gurearen antza du honoko honen. 1973an, Prada herrian egindako Udako Katalan Unibertsitatean, «Katalana, zientzi adierazpen hizkuntza» izeneko kolokio eta debate baten ondoren, manifestu bat argitara zuten. Hango katalan hizkuntzaren erreinbindikazioaz ihardun gabe, alderdi praktikoa aipatuko dut. Hona:

«a) Ahalegin guztiak egin behar ditugu gure kultur elkar-teari zuzendutako testuak katalanez argitaratzen (manualak, testu liburuak, eta edozein mailatako dibulgazio lanak...)».

«b) Gure geografi inguruari loturiko ikertzapen lanak katalanez argitara batez ere (geologia, geografia, botanika, zoologia, ekonomia...), laburpen zabal batzu, lagungarri gisa, ingelesez emanaz. Gure kultur elkartekoentzat eta hauzoko eta inguruko kultur elkartekoentzat (hizkuntza erromanikoak dira hauk eta ulerterraza zaie katalana), ulerterraz izan behar bait dute». Ez da hau egia euskararen kasuan, eta datorren saileko konklusiora bultzatzen gaitu.

«c) Geografi ingurunetik kanpoko lanak (kimika, mikrobiologia, matematika, fisika...), ingelesez edo alor bakoitzean

maioritariaoa den hizkuntzan argitara, katalanez puskak, laburpenak edo inoz lan osoa argitaratzea ahanzi gabe».

Manifestu hau, 200 zientzilari eta midiku katalanek izenpetua da.

Beraz, nire eritzia guk jarraitu behar genukeen biderei buruz, honela laburtuko nuke:

- Ikertzapen lanak, ingelesez edo alor bakoitzean hedaturarik zabalena duen hizkuntzan argitara.
- Laburpen zabal batzu eman euskaraz, lan bakoitzaren ondoren. Zabal esatean, hamarretik bat bezala esan nahi da.
- Osagarri beharrezko bezala, maila guztietako dibulgazio aldizkari euskarazkoen oinarriak jartzen hasi behar genuke.

Hitz batean: Frantsesarentzat, Espainolarentzat, Katalanarentzat, Suedierarentzat, Polskerarentzat, Daniera eta abarrentzat toki herstuak badira mundu honetan, guretzat kapilaireak dira. Jarrera hau atxakia eder bihur liteke askorentzat, baina datozen mailen eskakizunek ez dute ihesbiderik uzten.

Maila hau utzi aurretik esan dezadan, maila honetako hizkuntz arazoa ez dugula bestela ere gaurreguneko larrienetakoa; izan ere, gure arazoa beste bat bait da: *ikertzapenik eza*, eta hau lortzeko jarri behar ditugu gure ahaleginik haundienak, ikertzapen hau:

Euskal Herrian eginez; hortik Unibertsitate eta Ikertzapen laborategien beharra.

Euskal Herriaz ihardunez, inguru geografikoari loturiko alorrean.

Euskaldunok izanik ekile eta finantziatzaile edo, behintzat, kontrolatzaile.

Euskaraz eginez laborategietan. Guzti hau lortuz goazen neurrian, argiago ikusiko dugu zer egin argitaratzeko orduan.

B. UNIBERTSITATE MAILA

Maila honek antzak eta aldeak, biak, ditu aurrekoarekin; batetik, haren sorleku delako, ez bait dago benetako unibertsitaterik, ikertzapenik gabe (bere unibertsaltasuna hortik datorkio), Euskal Unibertsitaterik izanen ez den bezala, nahiz hau euskaraz egin. Alde nagusi bat ere badu, ordea: Uniberti-

tatea ikaslegoari zuzendua dagoela, alegia; eta hortik sortzen da Euskarak han ukan lezakeen nagusigoa. Ihardun asko da unibertsitatean bertako ikaslegoari zuzendua: Ikastaldiak, praktikak, mintegiak, hitzaldiak, etab. Argitalpen asko ere bertan irensten da: apunte, giori, textu liburu, tratatu; Tesi eta tesinen argitalpena osorik egiten denean ere, ikasleak kontutan hartuta egiten da sarri, textutzat erabil bait ditzakete haren sarrera eta metodologiako gogoetak; gero, ikertzapen aldizkarietan argitaratzean, muina bakarrik argitaratzen da.

Maila honetaan ekintza guzti horik, beraz, euskaraz egin daitezke, eta mugaketa bakarra, ikaslegoaren, irakaslego eta zuzendaritzaren aldetik etor liteke. Hortik sortzen da azpiegitura hori prestatze lana: ikasle eta irakasleen euskalduntze eta alfabetatzea, eta goi maila honetako gaiak irakasteko eta ikasteko prestatzea. Egunik egokienaren zain egon gabe, han eta hemen sortzen ari diren mintegiak bide egokia dira; eta irakasleek ahal dezaketen neurrian, euskaldunentzat talde bereziak egiteko aukera eskaintzen hasi behar lukete.

C. ESKOLA MAILA

Maila zabala da hau, lau urtetako haurrak eta hamazazpiko gazteak sartzen bait dira hor, hizketan ikasi berri direnak eta Unibertsitate atarian daudenak. Bi adin horien artean, mailaketa jarraitu bat dago, nola informazio kantitatean, hala kualitatean. Mailaketa horretan, nortasun haundia hartzen du eskol-hizkuntzak, herri mailakotik aldenduz, zientzia bakoitzean hitz berezi asko ikasiz, hitz arruntei edukin berria emanez, etab. Maila hau da, noski, gaurregun buruhausterik gehien ematen ari zaiguna eta aurrerapenik haundienak egin dituen ere. Maila hau egoki osatuz gero, egina dukegu hurrengoaren gehiena.

D. HERRI MAILA

Maila honetako hizkuntza, egunero lagunartean, etxean, kailean, lantokian, etab. egiten dena da. Hizkuntza xehea, eskolatik igaro gabekoek eta igarotakoek hitzegiten dutena, esakera motz eta adizkera errazekoa. Nolabait esateko, euskaldunberriei euskal gizartean mugitzeko lehenik erakutsi behar zaie-na. Maila honen gainean eraikiko dira gero besteak.

Sarritan kontrajarri ohi dira maila honetako hizkuntza eta

zientzi mailakoa, hura zehatza ez dela adieraziz. Gertatzen dena, zera da: batetik, praktikotasun batetan oinharritzen dela hau, eta zientziakoa ez beti. Zientzilariari, gizona eta tximinoa bereiztea bezain garrantzizkoa zaio, bi satitsu bereiztea edo bi harri motaren kimik konposaera ezagutzea eta adieraztea. Hortik sortzen da hitz eta esakera ugariagoen behar haundia-goa. Bestetik, berriz, herri hizketan inguruneak ematen dio esaerari bere zehaztasuna, solastiarrek kultur eta sozial une bera bizi bait dute gehienetan, edo begi aurrean dute solas-gaia; zientzilaria, ordea, edonorentzat idazten saiatzen da, esanahibikorik ezer ez uzten. Hortik sortzen da hitzak eta esa-kerak mugatzea, finkatzea, etab.

Aurreko mailarekin loturik badoa ere (hizkuntza normaldu batetan are gehiago, jende guztia igarotzen bait da haiaetik eta urte askotan zehar), hala ere bakoitzak bere nortasuna du eta ez dira nahastu behar bata bestearen zerbitzutan.

II. EUSKARAREN MOLDAERA

Aipatutako mailok ez dituzte zientzia guztiek garai berean lotzen. E. b., Matematikak berehala egiten du mundu aparteko bat; Natur Zientziak, berriz, eguneroko errealitateari oso lotuak daude. Honela, euskal eskolarik ezak matematik mundua erabat ezezagun bihurtu badigu ere —«sumar» bera euskaraz egiteko gai ez izateraino ezezagun—, ez da hala gertatu animalia, landare, geologia, etabarrekin. Baina euskara normaltzeko une honetan, arazoak orokorrak dira zientzia guztientzat, erizpide berberen beharrea aurkitzen gara. Batek ez du jakinen «argindarrak» zer egin, beste hark «deribadaz» eta honoko honek «anfibiaoz».

Azken aldi honetan ari dira argibideak agertzen; aurrizkiaz, hitz konposatuaz, euskara teknikoaz, *Jakin*-ek argitara duen eta argitaratzeko asmotan dituen hiztegi espezialduak. Ondoko lerro hauetan, zenbait arazori buruzko erizpide batzu azalduko ditut.

A EUSKARA OSAGABEA, ZIENTZIA HELDUEN ARTEAN

Zientzietara moldatze bidetan euskarak aurkitzen dituen hiru arazo aipatuko dira hemen: Hitz eta esakerarik eza, polisemia eta sinonimia.

1. — Terminologiarik eza

Orain izendatu beharreko gauza asko sortu zaigu, eta ez dugu hitzik. Irtenbidea arras erraza da; inguruko hizkuntzeta-koak har nahiz berriak sor. Baina noiz sor eta noiz har?

a) Hizkuntzaren aldetik ez dago batere eragozpenik hitz berriak sortzeko; azken urte hauetan nahiko froga eman digu euskarak. Hitz berriak sortzeak, ordea, ez du kanpoko baztertu behar denik esan nahi, «bazter al genezake?» galderari baiezkoa erantzun ezean. Askotan eta askotan, ez dugu baztertzaririk izanen, hitz internazional horietakoa denean behintzat. Hitz hauk, beldurrik gabe erabili behar genituzke goi mailetan. Behe mailetan izanen lukete tokirik haundiena euskal hitz garbiek. Alemanen jokabidea ere honelakoxea da: behe mailetan, aleman hitz garbiak dira nagusi eta, gero, mailaz igo ahala, joaten dira hitz internazional horik sartuz. Honek pedagogi alderdi bat badu: esate baterako, «korrontezale» hitzaren esanahia nabariago zaio haurrari entzun hutsean, «reofilo»rena baino; mailaz igotzean, bigarren honen jabe eginen da. Ez da inor garbizalekeriara bultzatu nahi hemen, joku dinamiko baten ahalbidea agertu baino. Euskal hitza lehendik badugunean ere, erizpide berberak erabili behar ditugu, e.b. «ur» hitzak ez bait du inoiz «hidro» aurrizkia erabat ordeztuko, neurri txiki-txiki batetan izan ezik.

Beraz, «bazter al genezake?» galderari, «zein mailatan?» galdera erantsi behar zaio.

Hitz sortu-berriak egokitasun bat behar du, bai ortografia-
ren, fonetikaren eta abarren arauera idazteko nahiz esateko eta
bai hitz eratorriak osatzeko. L. Villasanteren *Palabras vascas
compuestas y derivadas* liburua garrantzizkoa da honetarako.
Eratorkinak sortzeko gai izatea funtsezko gauza da; e.b., ez da
nahikoa «oxigeno» esateko «erdoigai» sortzea (hona garbiza-
lekeriak sortu duen alferrikako hitz bat); gero «ur oxigenatua»
etab. sortu behar dira. Eratorkinetan, molde erregularretara jo
dugu gehienetan: «sintesi»tik «sintesitu» eta ez «sintetizatu»,
«solido»tik «solidatu» eta ez «solidifikatu», etab.

Hitz sortu-berriek, plazara aurretik, kontsultabide bat iragan
behar dute; gero idazle bakoitzak, aldiro berri bat sortzen ibili
ordez, hari jarrai diezaion. Hitz berriek, berritan, ez dute inoiz
beste hizkuntzetakoaren edukin osoa izaten eta denok izan ohi
dugu berri bat sortzeko tentazioa. Euskal hitzen bat erabiltze-

kotan, oso aldrebesa izan ezean, lehendik tradizioa duena erabili behar genuke, edukina tradizioak ematen diola jabeturik.

b) Kanpotikako hitzek, geureganatzean, moldaera bat jasan behar dute, euskararen fonetikaren eta ortografiaren arauerara. Lan eder batzu ari zaizkigu agertzen: X. Amurizak «Euskeraren», Jakin-ek «Natur Zientziak Hiztegia»n, M. Zalbidetik «Elhuyar»en. Inguruetakoen aurrizki eta atzizkien erabilketa egokiak bide haundiak zabaltzen dizkigu.

2. — Sinonimiaren arazoa

Zientzietan hitz sinonimo asko egonik ere, bakarra erabilzera jotzen da nazio batekoen artean, unibertitate berekoen artean, etab. Guk arrazoi gehiagoz, euskara batu bat ez dugunez eta hitzen finkaketa ere egin gabea dugunez. Bat hautatzeko orduan, euskalkietan zabalduena hautatzea da egokiena, besteren batek, ordurako, tradizio bat ez badu behintzat zientzi literaturan.

3. — Polisemiaren arazoa

Polisemiaz zera esan nahi da: hitz bakarrez gauza asko adierazten dela. Bi kasu gerta daitezke: arrunta den hitz horretaz gain hitz bana izatea gauza desberdinentzat, ala ez izatea. Ez daudenean, bi hautabide dauzkagu: hitz arrunt hori baztertu eta hitz berriak sortu nahiz ingurutik hartu, edo eta hitz arrunt hura gauza bakarraren adierazgarri bezala utzi. E.b., «azukrea uretan urtu» esaten da eta «elurra urtu» ere bai. «Urtu» hori baztertu egin dezakegu edo, gure artean egin dugun bezala, bigarren kasurako utzi, lehenengoarentzat «solutu» hitza geureganatuz. Arrunta den horretatik aparte bakoitzak beste hitz bana balu, arrunta dena baztertu eta besteak erabiliko genituzke.

Gauza jakina da, herri mailan hitz horiek lehenagoko esanahiekin jarraituko dutela denbora luzean, baina eskola mailak esan dugun nortasuna duenez, esanahi berri horiekin erabili behar ditugu ikastoletan. Erdaldunek ere eskolan ikasten dute «petrolioaren harria dela» e.b., eta ez da harrizteko gauza belarriko min pixkat ematea, ahalik eta ikastolen bidez eduki berria hartu arte. Zehaztasunaren izenean, erabat baztertu behar dugu polisemia, non eta oso urruneko alorretakoan artean gertatzen ez den behintzat.

B. EUSKARA ETA INGURUKO HIZKUNTZAK EZ DIRA ERRO BERDINEKOAK

Hizkuntza batek eta hizkuntz sail batek, bere bideak hautatzen ditu arazo berriak konpontzeko. Gure ingurukoek ere, baztertua zegoenean, beren bideak hartu dituzte zientzietako beharrak betetzeko. Honela gertatu da e.b. zientzi hizkuntzek diminutiboetara jo dutenean. Latinetiko diminutiboetaz baliatu dira zientzi munduan ibiltzeko: *ventrículo*, *alvéolo*, *ósculo*... hitzak sortu dituzte, gaurregun diminutibotasun guztia galdua dutenak. Arazoa hemen datza: nora jo, latinetiko diminutiboetara ala geureetara? Kontsulta batzuren ondoren, euskarazkoetara jo dugu. Baina ez arruntenak diren diminutiboetara, gutxien erabilietara baino. Honela, *sabeltto* eta ez «sabeltxo», *gelaxka* eta ez «gelatxo», *ahoxka* eta ez «ahotxo» erabili ditugu aipatutako *ventrículo*, *alvéolo* eta *ósculo* esateko. Jakina, goi mailetan bentríkulu, albeolu eta oskulu erabili beharko dira, inolako beldurrik gabe.

M. A.

Euskal idazleak, gaur

- *** JOAN MARI TORREALDAY. *Euskal idazleak, gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas*. Lankidetza bereziak, Joseba Intxausti eta JAKIN taldea. Euskaldunari, Prólogo, Joxe Azurmendi. Argazkiak, Anton eta Ramon Eiguren. Argitaletxea, Editorial Franciscana Aránzazu, JAKIN. Eragilea, Luis Iriondo—Lan Kide Aurrezkia, C.L.P. — Lehenengo irakurbidearen aurkibidea: Hitzaurre gisa. Idazlearen jatorburuak. Idazlearen izanmodu eta norabideak. Idazlea eta euskal edizioa. Idazlea gizartean. Euskal idazlearen egoera. — Bigarren irakurbidearen aurkibidea: El euskera, la lengua de Euskal Herria. Historia de la literatura vasca (1545-1975). La Literatura vasca contemporánea (1936-1975). — Hirugarren irakurbidea: Galería de imágenes de la literatura vasca. Jakin. Oññati-Arantzazu, 1977. 680 orrialde. 21 x 29.

Liburu kritikagaitz baten aurrean aurkitzen naizela aitortu behar diot irakurleari. Eta liburu baten aurrean baino areago, hainbat gauza desberdin biltzen dituen «haltzari» baten aurrean aurkitzeko sentsazioa dudalarik, zilegi bekit, Torrealdayren lanaz gainera, bide nabarrezko kontuez ere ihardutea.

Hasieratik hasteko, demagun Jakinek bere Liburu Sortan zenbaki berri bat publikatu duela, 25.ena gutxi gorabehera. Egilea, Joan Mari Torrealday. Izenburua, *Euskal idazleak, gaur*; 250en bat orrialde 11 x 18. Liburuaren oinarria Pariseko Institut Catholique-ko IESeñ, 1975ean, Soziologiako Lizentziatu-titulua ateratzeko egin zuen tesia da. Tesiaren funtsa, egileak gaurko euskal idazleei bidali zien inkesta baten erantzunen estudioa da. Erabili dituen gaien berri, gorago eman dudan lehen irakurbidearen aurkibidean aurki dezake irakurleak.

Torrealdayren beraren «Hitzaurre gisa»n hau irakur dezakegu: «Esperientziaren berritasunari begira, bada besterik ere: metodologiaren teoriatzko koadroak eta teknik aztergailu hau ez dira kultur minorien problemetarako pentsatuak izan. Sortu, eza-guna denez, kultura hazien idaz-fenomenoa estudiatzeko sortu dira metodologia eta teknika hauk». Hor datza hauziaren gakoa: beldur naiz Torrealday, zailtasun hori aitortu ondoren, ez ote den (halabeharrez seguru asko) zenbait puntutan mekanikoki eta mimetikoki lotu kultura hazientzat burutu den analisi-aztergailu bati. Adibide niretzat nabarmenena jartzeko: liburuen sailkaketarako, UNESCOren Gomendioa erabiltzen da. Ene ustez, Pello Errotaren bertsoak eta Urkizuren *Sekulorun Sekulotan* sail berean sartzeraz behartzen duen klasifikabide bat ez da euskal liburugintzarako pentsatua izan. Europako kultura hazietan, zeintzuetan, adibidez, liburugintza herritarraren pisua produkzio osoari buruz baztergarria gertatzen baita, UNESCOren Gomendioa azterketa-tresna erabilgarria dateke, baina euskara idatzia- ren norabidea eta gure kultur dinamikaren hainbat alde funtsezko argitzeko guztiz desegokia gertatzen da. Egoera «normal» batera heltzea guztion desira da, baina ez gara normaltasun horretara lehenago helduko jadanik egoera normal horretan bageunde bezala arituz. Are gehiago, hainbat urtetan «Europatik urrun» ibiltzeko azaldu dugun joera okerra salatzeak ez gaitu bultzatu behar «europar homologazio» batetan gure eskasien salbaidia ikustera. Joxe Azurmendik «Euskaldunari» benetan lau izarreko hitzaurrean dioen bezala (eta ez bedi harri irakurlea *Zorion us-tela*-ko «Herria, euskara, literatura eta horrelako batzuk» artikulua funtsean hildo beretik doala ikustean), gure helburua euskal nazioa da, eta horrek, delako hitzaurrean bertan adierazten denez, kultur estrategi programa oso bat suposatzen du, bere ondorio guztiekin.

Puntu hau alde batera utzirik, lana interesgarria da aditzera ematen dituen idazle-eritziei dagokienez, denok gutigorabehera (enpirikoki, egileak dioen bezala) ezagutzen genuen errealitate bat sistematurik eta ahal zen neurrian zenbakiturik, koantifikaturik ematen zaigun aldetik. Eta guztiz interesgarria saioak aportatzen duen lan «objektibo» azpimarkagarrian: mapa, taula, piramide, estatistika eta, bereziki, hainbat gerolanen oinarri fin-ko gerta daitekeen euskal liburuen katalogo orokorrean (1937-1976). Dena dela, hainbat kontzeptu ez dira behar adina zehaztu edo argitu. Adin-piramidetan, adibidez, ni behintzat ez naiz ongi jabetu garai bakoitzean zein hartzen den garaiko idazle-tzat: 1954ekoan, 20-24 urte dituzten 21 idazleetatik ez dirudi

guztiak ordurako idazle zirenik. Orobat, liburuen katalogoan ez da ongi finkatzen zet aditzen den euskal liburutzat: P. Mujikaren Hiztegia (1965) adibidez, euskal liburu bezala hartua ikus-tea, gutxienez harrigarria iruditzen zait. Era berean, liburu bat bilinguetzat hartzeko erizpidez zer esanik franko legoke, baina ez da beharbada hau horretaz mintzatzeko mementurik aproposena.

Hitz batez, Jakinek argitaratu zukeen liburu hipotetiko hori, oro har aski pentsatua eta landua, nahiko interesgarria zatekeen berez zegokion ingurunean. Baina Torrealdayren saioa, bi ahoko harma gertatzen den liburu batetan eman zaigu. Lehenik, «kanporako» pentsatu eta itxuratu den liburu batetan, eta beldur naiz testuinguru horretan, alde batetik bederen, Torrealdayren saioaren efikazia, lekutik at eta liburuak gainezka egiten diolarik, murrizturik geratu ez ote den. Kanporako liburuen oportunitatearen kontua alde batera utzirik ere, badirudi alde grafikoa tartekatzeko aukeratu den moldea (ez da ahaztu behar liburu-objetu baten aurrean gaudela) ez dela izan lana plazaratzeko modurik egokiena: Torrealdayren lana liburuaren funtzioan dago eta ez liburu Torrealdayren lanaren funtzioan. Ondorioz, *Euzkal idazleak*, gaur saioa irakurri nahi duen irakurleak, bere gogoan ahan-tzarazteko dioten aigazki erakargarriz gurutzatuegia aurkitzen du bere bidea.

Objetu bezala kontsideraturik, liburu aski ongi tankeraturik eta biribildurik dagoela ezin daiteke uka. Baina ez dut uste argazkilarien lan benetan onaz eta erdal testuen gaitasun aipagarriaz mintzatzeko tokia hau denik.

Azkenik, liburuaren alde bilinguea aipatu behar da. Inon gutxitan ikusi dut elebitasunaren arazoa Jakinen ihardukian bezain ongi planteaturik eta erresolbiturik. Izan ere, euskal kultur estrategian, *elebitasun* hitzak zerbait izatekotan, *berreuskaldun-tze*-ren sinonimo puntuz puntukoa izan behar du ezinbestean. Horrela, irabazirik ditugun arloetan elebitasunaren izenean erdarari leku uztea, elebitasunaren ukazio hutsa izango litzateke. Guretzat, orain arte heltzen utzi ez zaigun alorrak gureganatzeko tresna bat izan behar du elebitasunak, eta besterik ez du izan behar. Jakinen liburugintzari dagokionez, hor ditugu *Gero*-ren azken edizioa (gonbara bedi aurrekoarekin) eta *Axularren Hiztegia*: erdara sartu beharra (eta sartu behar zen nire uestez) ez da euskal testuaren nagusitasunaren hondatzaile gertatu. Hitzaurreek eta bestek, funtsean (eta garrantzizkoagoa dena, kultural-ki), euskal liburu baten aurrean gaudela adierazten digute klar-

ki. Komentatzen ari garen liburua ere, espero zitekeen baino «euskaldunago»a gertatu da: erdal zatia ez da euskarazkoaren itzulpen soil eta mekanikoa, erdal irakurlearen egoerara egokitu baizik, eta gehienbat bigarren maila batetan ematen da. Alde bonetatik salagarria iruditzen zait Arestiren *Obra guztiak / Obras completas*-en argitarazioa egin den modua: eskuineko orrialdea, hau da, testu nagusiari eman ohi zaiona, erdarazkoa da; euskarazkoa ezkerrekoan ematen da eta, bigarren tomoan, ezin nabarmenago ikus daitekeenez, askoz okerrago eta arduragabekiago konposatua gainera. Hitzaurreri dagokionez, itzulpena (zeina ez baita nirea) separatan (Detxepareren poemetan egin zen legez) edo maila askoz apalago batetan egingo zela agindu bazidan ere editoreak berak, azkenean (eta, noski, hitzik ere esaten ez zitzaidala), eskuineko aldean azaldu zen, beste aldean «bético euskal itzulpena» balihoa bezala. Liburuari begiraturik (Catalunyatik idazten dut), batek ez daki Aresti euskal ala erdal poeta bat den, nola egin den hitzaurrea eta abar. Azken finean eta besteak beste, ingeles edo errusiar poetak Madrilen argitaratzen diren era berean argitara da Aresti Euskal Herrian. Eta hori elebitasun omen den zerbaiten izenean.

Zer dugu Orixeren kontra **Zer dugu Orixeren alde**

*** JOXE AZURMENDI. **Zer dugu Orixeren kontra.** Azala: J. M. Telleria. — Aurkibidea: Orixeren interpretazio saio bat. — I. Zer dago Orixeren kontra? Erljio zale eta moralista. Orixeren euskal kontzientzia. Orixeren euskara. Baserritarkeria. Karaktere epikoa. Konklusio antzean. — II. Orixeren euskara dela eta. Anarkia. Garbi eta mordoilo. Beldur soluzioak eta trukoak. Garbitasun iluna, iheskeria, zehaztasun falta. Krea-zioaren mugak: Orixeren garbizaletasuna. Erdal hitzak. Orixeren bakartasuna. Hitz teknikoak, hizkera teknikoa. Azkenik, estiloaz. Orixeren mugak. Aintzindaria. Konklusio antzean. Jakin Liburu Sorta. Oñati-Arantzazu, 1976. 184 orrialde. 11 x 18. 225 pezeta.

*** JOXE AZURMENDI. **Zer dugu Orixeren alde.** Azala: J. M.

Telleria. — Aurkibidea: Argibidetxo batzu irakurleari. — III. «Euskaldunak». Baserri literaturaz. Letari-ko kronistarena dela eta. «Euskaldunak» poemaren errealismoaz. Lenin irakurri eta Orixe interpretatu. Gonbarazioak «Euskaldunak» poeman. — IV. Literatur aldetik: azterketa zati batzu. Mistikazko trilogia poetiko haundia. Irudi eta gonbarazio: Ama Lur. Deskribatzaile aparta. Kontu kontari: Santa Kruz apaiza. — V. Konklusio antzean. Jakin Liburu Sorta. Oñati-Arantzazu, 1977. 352 orrialde. 11 x 18. 325 pezeta.

Kritikotan erabiltzen dudan izartxoeren sistema biziki kritikatu du batek baino gehiagok, eta ez zentzurik gabe gainera. Niretzat laburbide bat besterik ez dira, eta ez dira, inola ere, «nota» bat jartzeko pentsatuak izan. Kritikotan ez nuke, inola ere orobat, inoren lanaren epaile gertatu nahi. Nire asmo bakarra irakurlearen (eta, egokitzen bada, idazlearen) gidari izatea besterik ez da. Ez da oso egiteko eroso, ez distiratsua, ez, azken finean, oso nire gogokoa. Baina tira.

Zer dugu Orixeren kontra-ri lau izartxo ezarri dizkiot; *Zer dugu Orixeren alde*-ri, berriz, hiru. Lehenengoa bigarrena baino «hobe»tzat hartzen dudala esan nahi du horrek? Bai zera, ez eta inola ere. *Zer dugu Orixeren kontra*-ren lau izarrek zera adierazi nahi dute, irakurle nahiz idazle bezala egungo euskal mugimenduan parte hartzen duen euskaldun (hori adierazi nahi nuen inoiz erabili nuen «euskaldun kulto» hartaz) orok irakurri beharko lukeen liburu bat dela, besterik ez. Eta nire ustez, noski. Eta hori bi arrazoiengatik. Lehenik, liburua idatzirik dagoen eragatik, are euskaraz ezer gutxi irakurri duenak ere (esperientziatzat diot hori) inolako nekerik gabe irakur dezakeen liburu bat delako. Bigarrenik, euskara eta euskalgintza dela eta, hazaldi berriko gazteok askotan antzertzen zaigun baino arrazoï gehiago eta, batera, gutxiago dugula ikusarazteko trebetasuna eta azkartasuna izan duelako. Gure hazaldiak burutu duen kritikaren alde onak eta, batera, gabeziak. Eraiki eta lortu ditugun gauza aipagarriak eta, batera, alferrik hondatu eta galdu ditugunak. Eta gainera, saiakera-liburu bat idazteko gorbataz jantzen ez den idazle-literato baten eskutik. Kito.

Zer dugu Orixeren alde besterik da: Orixe idazleari sarrera bat. Baina ez da azterketa akademiko bat. Azurmendik berak esaten digunez, «oraingu idazleak eskola ordezkatu beharrean gaude, eskola hobeak izan arte. Eskolan ematen ez dena eman beharrean gaude». Euskaldunok ez dugu euskal eskolarik, baina ez eta ere eskola-tradiziorik. Gure egoera ez da, eskola-tradizio bat izanik, mementu historiko jakin batetan hori gabe geratu den herri batena: gure hauzia ez da eskola birberegianatu behar dutenena, sortu behar dutenena baizik. Hor datza nire ustez Azurmendiren idazkera bereziaren gakoa. Eskolatik pasatu ez den eta jadanik pasatuko ez den irakurlearentzat (edo hobeki horrentzat ere) ari da. Beste zenbait, aldiz, «eskola-idazkera» bat itxuratzen saiatzen dira. Bi bideok ez dira kontrajargarriak, elkar-osatzaileak baizik.

Honekin elkarloturik aurkitzen den beste puntu bat ere gogoan eduki

bchar da. Euskal kulturgintza osoa, egoerak hartaraturik, emergentziatzko kulturgintza bat da oraindik ezinbestean. Horrela, gure literatur kritikak ere emergentzi lanen hainbat tasun agertzen ditu halaberharrez. Hildo honetan, gure betebeharrak lehena oinigitura bat prestatzea da, hau da, erreferentzi puntu sare bat eraikitzea, gero lan zehatzagoren aurrerabidea posibletuko duena.

Gauzak horrela, denetik aurkituko du irakurleak *Zer dugu Orixeren alde*-n: literatur soziologia teorikoa («Lenin irakurri eta Orixe interpretatu» osoa, adibidez) eta praktikoa, azterketa formalistak, sarrera historikoak, dibagaketa guztiz sugeritzaileak (azken hau Azurmendiren iharduki solasalditarrari berez darion gauza) eta abar. Izan ere, Azurmendiren saioek, gau pare batetan etengabe eta eskutitz bat idazten den eran taxututako lanak dirudite (nola bestela Joxerena bezalako produkzio harrigarriki ugari hori?), gaia hartuz, utziz eta, zenbait dozena orrialde geroago, beste alde batetik berrartuz. Eta nik behintzat ez dut ihardunbide hori gaitzetsiko, besteak beste, autoreak idazten dituen helburuei egoki lotzen zaielako eta darabilen gaiari buruz erakusten duen ezaguera ia exhaustiboari (gonbaraketan eta paralerrotasunen zuhurtasunean, adibidez, nabari denari) bide eroso eskaintzen diolako.

Irakurlearen gidari izan, eskola ordezkatu, ahaztuegi dugun idazle bat birgureganatu. Ezin hobeki betetzen du zeregin hori Azurmendiren saioak. Ez guztioi baina bai bati baino gehiagori sortuko dio Orixe zuzenean eza-gutzeko grina. Eta Orixe irakurri nahi duenak, eta are gehiago Orixe aztertu nahi duenak, nahi-ta-ez hartu beharko du esku artean liburu hau, baina baita gerra aurreko euskaldungoaz eta literaturgintzaz oraindik erabiltzen ditugun lau topikoak baino zerbait gehiago jakin nahi duenak ere. «Baserri literaturaz» edo «Barne muinetan» zatietan egiten diren go-gotak lekuko. Aipamen berezi bat merezi du alde honetatik *Santa Kruz apaiza*-ri eskaintzen zaion estudioak; euskal prosaz arduratzen den orok irakurri beharko luke. Eta ez euskal prosak izan behar lukeenera heltzeko urrezko giltza bertan miraritsuki ematen zaigulako, ez horixe: Orixeren idazkeran gainbegiratu presazko batek ohartarazi ez digun zer ikasirik asko ikusarazten digulako baizik.

*** JON LARIZ. **Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak**. Azala: Jose Luis Zalbide. Gero euskal liburuak. Bilbo, 1977. 236 orrialde. 11 x 18. 320 pezeta.

Mario Onaindia «*Brumaire*»ren *hamazortzia*-ren itzultzaile bezala eza-guna bagenuen ere, ez nuen espero *Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak* bezalako nobela irakurgarri batez birplazaratuko zenik. Eta sorpresa ona izan dela aitortu behar dut alde aurretik.

Elurtzan datzaten zuhaitz enborrak elaberri lineal bat da, egituraz ia klasikoa. Burutik eginik dagoela dirudien gizon bat bere bizitzako zen-

bait une funtsezko oroitzun eta taxutzen saiatzun da bi lagunun aurrean. Gauzak horrela, psikoanalisi-ihardukietan bezala, kontakizunaren haria guztiz inkohherentki ematen da, eta hortik datorke hainbat irakurlerentzat nobelak izan dezakeen zailtasun bakarra. Baina horretan datza halaber obraren lehen parteen balio nagusienetarik bat: errepikazio partzial horien bidez, musik lan batetan *obstinato*-aren bidez bezala, lortzen den erritmo berezi erakargarrian.

Nobela osotasun bat bezala hartuz, zenbait parte desberdin bereiz daitezke. Lehen parteen ondoren, niretzat nobelako onenak, kontakizunaren haria aurreratuz doa 134 orrialdea arte. Ondorengo 60 orrialdeetan, Jon bihurtzen da pertsonaia nagusia, nire ustez nobelaren kaltetan, eta ez kontatzen zaigunak literatur baliorik ez duelako, kontakizunaren hari hura hausten duelako baizik. Dibagaketa zilegiztatzeko ematen zaigun arrazoia (191 or.: «Erabat ahantzirik zituen gauza haiek, Lenek kontatzen zizkion gauzek berriz piztu arte...») ez dirudi pisukoa. Tartekatzen den zati horretan adierazten dena bi ipuin independentetan (lehenena Jonen enplegu-bilatzeaz, bigarrena Ana Marirekin dituen harremanez) taxutu izan balitz, nobela irabaziz atera zatekeen (nire ustez, noski).

Estiloari dagokionez, egilea aise moldatzen da Len-en hizketaldi luzeetan. Bati baino gehiagori artifizialeria irudituko zaio, baina alde batetik, autorea, Len urdazubitarra dela adierazteko bezain azkarra izan da, eta bestetik, euskal kontaketa-prosa gaurregun dabilen bide estuegiatetik ateratzeko saio aski interesgarria iruditzen zait. Elkarriketa laburra da, behar bada, Onaindiaren estiloaren punturik ahulena.

Hitz batez, *Elurtzan datzaten zubaitz enborrak*, nobela interesgarri eta irakurgarri bat iruditzen zait. Onaindia agian ez da oraindik nobelagile guztiz heldu bat, baina bai, duarik gabe, hainbeste eskertzen diren detaleak arretaz zaintzen eta oparo eskaintzen dituen narratzaile fin eta baliabidez bete bat.

JUAN B., J. de: **Nire lehen hitzak euskaraz**. Euskal itzulpenaren arduradun: A. Amondarain, S. Saralegi, J. F. Setien, D. Amundarain, D. Ibargoitia, T. Elortza, K. Etxeberria, Txillardegia, J. Barriola; kantuen arduradun: I. Urbieto, L. Iriondo. Irudibidezko hiztegia, kantuak eta euskara-gaztelera hiztegia, haurrentzat. Argitalpena: Axular/Gordailu, Gasteiz/Donostia, 1977. 27 x 30, 97 orrialde.

ESTORNES ZUBIZARRETA, I.: **Qué son los Partidos abertzales**. Inpr. Itxaropena. Zarautz, 1977. 116 or. 18 x 12. 165 pezeta. Aurkibidea: ¿Qué es ser abertzale? 1. Las organizaciones históricas. 2. El segundo estallido del nacionalismo vasco. 3. Los partidos políticos de nuevo cuño. 4. Candidatos a las elecciones generales y senatoriales del 15-VI-1977. 5. Diez preguntas a los políticos vascos.

Ibon Sarasola

Aurreko zenbakiaz bi ohar

JAKIN aldizkariaren zuzendaritzako lagunoi!

Zuen aldizkariaren bigarren alea, bigarren aldiko bigarrena, irakurri berri dudalarik, laburrik eta luze gabe neure eritzi pare bat azaldu gura nizueke, ale horretan agerturiko zenbait aburu ezin onhar baitezaket.

1. — Europako nazio ukatuen arazoaz ikuspegi orokor bat emateko Sergio Salvi-ren datuak erabili dituzue, eta datu horik berriztatzeke abagadunerik ukan ez duzelako atxaki egin arren, ez dut uste zuzen datekeenik, ez eta artez, ez Galizia, ez Korsika gu-tiengotzat judikatzearren, portugesa lehena eta italiarra hurrengoa, alegia.

Lehena ez da portugaldar ez historiaz, ez kulturaz, ez **Autokontzientzi**az, eta azken bostehun urte honetan galiziarren hizkuntzak jasan duen barnebilakaeragatik, az-

keneko ehunetan aintzineraturiko tradizioagatik batez ere, gaur egun ez hizkuntzaz ere, nahiz eta portugesa eta galiziera, agi denez, hizkuntza baten forma ezberdinak besterik ez direla erran daitekeen. Korsikaz denez bezainbatean, arrazoia berbera da, arazoa bera bezala. Korsikarrak ez dira italiarrak nahi ez dutelako, gu euskaldunok espainiar edo kontxintxinar izan nahi ez garen bezala. Bestalde, korsikera, zentzu hertsian hizkuntza erromaniko beregaintzat ezin jo baldin badaiteke italieran finkatu eta oinharrituta egoteagatik, galizieraren kasuan legez, pairatu duen bilakae-rarengatik eta dauzkan elementu sardiniar guztiengatik, bere tradizio berezia daukan mintzairatzat bidezko da agerrereztea.

2. — Ikutu nahi nukeen bigarren pundua, Ibon Sarasolak emandako uste bat da, hots, «**Euskal Hiztegi Modernoa**-n hitzen orde, eta

hitzak balira bezala, sintagma osoak ematen zaizkigu, hau da, hitzaren parafraasiak, eta hori arriskutsua iruditzen zait. Beste hitz batzuetaz, kaltegarria irauditzen zait euskararen aurrerabiderako (epe luzerako lan batetan pentsatuz batez ere) **Hiztegi Moderno**-k (eta oro har gure hizkuntzak) agertzen duen joera sintetikoa, gainerako kultur hizkuntzen analitikoaren ondoan» (120. or.).

Eta ez dut aburu hori onhartzten euskara bera hala delako, joera hori arriskutsua dela esaten bada, euskara bera arriskutsua dela esan gura duelako. Ez nintzateke hemen luzatu nahi, batetik JAKIN linguistikaldizkari bat ez baita, eta bestetik horretaz luzeago beste toki batetan idazteko naizelako. Halaz ere hau esan behar dut:

— Euskara hizkuntza aglutinatzailea dela gehien bat, eta hizkuntza hauen ezaugarririk bereziarena, Skalička-ren arauera, hau dela, erro bati beste elementu guztiak eransten zaizkiola.

— Gezurrezkoa dela Ibonen arraznamendua, hots, «eskilamihia» sortzea, sintagma bat lexikaltzea dela, hitz berri hau ez baita sintagma batetatik sortu, «mihi» berbari egindako determinazio edo mugaketa batetatik baizik.

— **Berez** «eskilamihia»k «eskila»k eta «mihi»k ez dutela elkarren artean zerikusirik, —agerian dago noski semantikoki eta formaz senitartekoak direla—, berariaz euskararen hiru unitate lexikal absolutuki beregain direla. Alemanez «ibilgailu» «Fahrzeug» esaten da: «fahren+Zeug. Ezin daiteke ordea esan elementu horien suma denik,

unitate berria besteen batuketa inondikan ere ez baita.

— Ematen den argudio «estilistikoa» ez dela justua, zeren «mihi» «eskilamihia»ren ordez erabil ahal badezaket, aldez aurretik «eskilamihia» badagoelako baita bakarrik. Modu berean «zezenplaza» eta «plazagizon» ez dira ezelan ere elementu osatzaileen batuketa. Eta ezin daiteke argudia «gizon» unitateari zentzu hori ere eman diezaioketula, zeren horretarako lehendabizikoz «plazagizon» unitatea sortu behar baitugu, Ibonen arauera arriskugarri izan daitekeena hain zuzen ere, eta egin nahi ez zena. Alde honetan euskararen antzeko den suomierak ere bide berbera erabiltzen du, eta orobat, lehenago aipatu bezala alemanak, diren diferentziak gainditurik:

pääkaupunki: pää+kaupunki,
Hauptstadt: Haupt+Stadt,
hiriburu: hiri+buru.

Beraz tankeraren problema esaldi eta idazle bakoitzaren kontua da, honelako esaldirik ez idazteko molde asko baitago:

«Santurtziko plazagizonak beheko plazara plazaratzen dira».

— Honegatik hain zuzen, hitz moldatuen arazoan ahalik eta batuen idaztearen aldekoa naiz, hizkuntzak daukan bide ikaragarri aberats hau guztiz mozten delako ostera. Eman dezagun:

kulturbide, herrikoetxe, aita-ponteko, kontzientzialdaketa, mezaliburu, kanpoministro, irakaskuntzaministergo, naturzientzia, hizkuntzalaritzairakaslego.

Andolin Eguzkitza

Gutiengoen eskubideez beste Agiri bat

Zuzendari jaun horri, agur!

Aurreko zenbakian, «Nazio ukatuak Europan» gaia erabili duen horretan, bi agiri eman dituzue **Agiriak** sailean: Bata «Brest-eko Agiria» deritzana, eta bestea «Argel-go Agiria».

Biok garrantzizkoak direla uste dut, munduko Herri kolonizatuei, Nazio ukatuei eta Gutiengo zapalduen begira. Baina bada beste Agiri garrantzizko bat, 1976. urtekoa hau ere, Gutiengoen eskubideez diharduena eta zuek alde batera utzi duzuen.

JAKINen irakurleek horren berri badakite beharbada; eta ez dakitenentzat ere jakingarria dela uste dut.

Gutiengoen Eskubideen Karta du titulu bezala Agiri honek. «Hizkuntza eta Kultura mehatxatuen Defentsarako Nazioarteko Asoziazioak», Châtillon-en (Valle d'Aosta-n), 1976ko uztailak 23-25 bitartean egindako bere VII. Batzarrean onharturiko Agiria da.

Euskal Herriari bereziki dagoz-kion bi artikulua aipatu nahi nituzke hemen: 10.a eta 13.a.

Honela dio 10. artikulua: «Gutiengo etnikoko elkarkideek eta hauen erakunde publiko nahiz pri-

batuek, kulturazko edozein harreman ukan ditzakete, hizkuntza berbera duten eta Estatutik kanpo bizi diren populazioekin. Orobat populazio horien agintari ordezkariekin ere edozein harreman ukan dezakete».

Honela dio, berriz, 13. artikulua: «Gutiengo etnikoak, lurraldez bildua eta Estatuaren lur- edo itsas mugaldeen finkaturik dagoelarik, eskubidea du bere buruaz libreki baliatzeko, bai eta Estatutik bereizteko ere. Estatuak, berriz, prozedura demokratiko egokiak eskaini behar dizkio, bere autodeterminazioa bete dezan. Eskubide hau ez da kadukutzen, eta behin eta berriro ejertzita daiteke, dagokion herriak berak eskaturik. Autodeterminazioarekiko lanek nazioarteko kontrolpean joan behar dute, eta nazioarteko magistraturara jotzeko bideek irekita egon behar dute».

Argel-go Agiria Herrien autodeterminazioaren inguruan egina baldin bada, beste Agiri honetan ere, Gutiengo etnikoen autodeterminazioak oinharritzko garrantzia hartzen du.

Besterik gabe, bihotzez agurtzen zaitut.

G. I.

1956aren udazkenean agertu zen lehen-dabizikoz **Jakin** aldizkaria. Gerraosteko belaunaldiaren lehen kultur langintza autonomoa izan da. Hizkuntza trebatzea eta kultura berria sortzea ziren haren asmorik behinenak.

Handik 20 urtetara birsortzen da **Jakin**, traba guztien gainetik, bi aldiz geldituarazia, azkenekoa zazpi urtetan, izan ondoren.

Garaian garaikoa izan da **Jakin**: gaur, gaurkoa. Etorkizunaren alde jokatu du beti.

Euskal Herriaren kultur aldizkaria izan nahi du **Jakin**-ek.

JAKIN

aldizkaria • Cuartel, 2 • Tolosa (Gipuzkoa) • tel. 65 11 05

Urteko suskripzioa: 500 pta. Alea: 175 pta.